



**HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA BATERATURANTZ:
AHOZKO AZALPENAREN DIDAKTIKA ELEANIZTUNA
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN**

**TOWARDS AN INTEGRATED TEACHING OF
LANGUAGES:**

**PLURILINGUAL DIDACTICS OF THE ORAL
EXPOSITION IN SECONDARY EDUCATION**

ANA ALDEKOA DÍEZ

Nazioarteko Doktorego Tesia/ International PhD Dissertation

Zuzendariak/ Supervisors:

ITZIAR IDIAZABAL (UPV/EHU)

IBON MANTEROLA (UPV/EHU)

UNIVERSITY OF THE BASQUE COUNTRY (UPV/EHU)

LETREN FAKULTATEA/ FACULTY OF ARTS

HIZKUNTZEN ESKURAPENA TESTUINGURU ELEANIZTUNETAN DOKTOREGO PROGRAMA/
DOCTORAL PROGRAMME IN LANGUAGE ACQUISITION IN MULTILINGUAL SETTINGS

HIZKUNTZALARITZA ETA EUSKAL IKASKETAK SAILA/ DEPARTMENT OF LINGUISTICS AND
BASQUE STUDIES

VITORIA-GASTEIZ, 2020

Mundu hobe baten alde, edozein diziplinatan, konpromisoz lan egiten duten guztiei

Hitzek indar handia dute
Hitz egiten dakien batek hitz bat beste
baten atzean jarri eta txast!
Ondokoa lasaitu dezake
Gudak geldiaraz ditzake
Injustiziak kondenatu
Justiziak lege bihurtu
Dena zein hitzen bidez adierazten den.
Isiltasunak ere izan dezake zer esana.

Eta Mikel Laboak abesten zuen moduan,

*Gure hitzak
esan, berriz esan
Ez daitezela ahaztu,
ez daitezela gal.*

Esker ona

Hunkigarria da eskerrak emateko garaia iristen denean, esker onen orria idazteak esan nahi baitu tesia bere amaierara heltzen ari dela. Eta bukaera (edo hasiera berri) guztiek bezala, badu beldur edo pena puntu bat, guzti honen hain parte sentitzen zara... Doktoretzako bide honetan eman dezake tesigileak bakarrik egin duela tesia, baina ez nintzatekeen tesi hau egiteko gai izango, ondoren aipatuko ditudan pertsonengatik izan ez balitz. Zuen guztion bultzada nire oinarria izan da tesi hau burutzeko.

Lehenik eta behin, eskerrik asko, bihotz-bihotzez, nire tesi zuzendari Ibon Manterola eta Itziar Idiazabali. Doktoretzan hain esperientzia polita bizi izana zuei zor dizuet bereziki. Tesi hau egiterakoan askotan sentitu izan dut zuei eskerrak emateko gogoia, eta horrek esan nahi du askotan sentitu izan naizela zorioneko, zuen moduko pertsonekin lan egitea benetan gozamina delako. Eskerrik asko, eta hitz hauek ez dira mila aldiz errepikatuta ere nahikoa izango, nirekin inbertitu duzuen denbora kantitate eta kalitateagatik. Zuengandik ikasi dudana guztiagatik batik-bat, baina baita ezagutza hori transmititzeko moduagatik ere: bide korapilatsu honetan alde pertsonala hain ondo zaintzeagatik, eta zuzendaritzan zehar transmititu didazuen prestutasun, dedikazio, humanitate eta, batez ere, barne-barnean daramazuen eta zoazten lekura zoaztela loratzen duzuen PASIOagatik. Eskerrik asko egiten den horretan bihotza emanez hain gauza politak atera daitezkeela erakusteagatik. Maila akademiko eta pertsonalean pertsona zoragarriak zarete!

Eskerrik asko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Sailari, erabateko laguntza emateagatik. Eskerrik asko baita ere ELEBILAB ikertaldeko kideei: Marijo, Leire, Inés, Amaia, Margareta, Aroa, Saioa. Eskerrik asko, Leire, zure inplikazioagatik eta sekuentzia didaktikoaren diseinuan laguntzeagatik. Eskerrik asko talde osoari ELEBILAB bileretan egindako aurkezpenen ondorengo hausnarketa eta hobekuntza proposamenengatik, eta zuengandik guztiengandik ikasi dudanagatik. Askok hazi naiz zuekin. Eta nola ez, eskerrik asko nire Elebilobby maiteari: Beñat, Maite, Tania, Uxue, Alejandra, laborategian horren giro goxo eta polita sortzeagatik. Oso pertsona bereziak zarete!

Eskerrik asko, Ikimilikiliklik! Bide honetan zehar zuekin igarotako denboran txispatxoak izateagatik. Eta batez ere bihotzeko lagunei, Ane, Julene eta Itsaso, nire kaktusei, nire bidelagun, arroka eta etxeei. Bizitzako momentu kuttun eta zurrunbilotsuenetan magia egiten

jakiteagatik. Maiti, AnamCara, nire kezka eta poztasun barnekoenak beste “ni” bat bazina bezala ulertzeagatik. Jow, audio bidez *ain't no mountain high enough*, distantzian hain hurbil sentitu zaitudalako beti. Zuen laguntasuna ezinbestekoa izan da bide honetan aurrera egiteko.

Eskerrik beroenak nire familiari, aitite-amamei, lehengusun-lehengusin guztiei, izeko-izebei, eskerrik asko eman didazuen guztiagatik. Bereziki, ni neu naizena zor diedan pertsonei: aita, ama, Isra, Rati, Kuli eta Iñari. Nire bizitzako oinarriak sendoena zarete, nire bihotz taupadak. Eskerrik asko horren intentsitate handiz eta egunero opari bat bezala bizitzeagatik, eta hori bide honetan ere kontagiatzeagatik! Lan hau aurrera eramateko beharrezko indarra eman didazue.

Eskerrik asko Iker, bide honen alde serioa albo batera utzi eta nigan ume sena bizi mantentzeagatik, beste begi batzuekin ikusteko perspektiba emateagatik. Eskerrik asko Ikerren familia osoari ere. Eta Dakoti, ezin zutaz ahaztu.

Asko maite zaituztet guztioi.

Lan honek ikerketaren mundua zabaldu dit begien aurrean, ezagutzarena. Beti adi, beti bizi, curioso egotearena. Ikerketaren mundua utopikoa izan daiteke agian batzuetan, baina utopiak ematen digu aurrera egiteko norabide zuzena. Nahiz eta ibilbide gorabeheratsua izan den, maite dudan gai baten inguruan lan hau burutzeari aukera paregabea izan da niretzat. Esker oneko sentitzen naiz baita ere lan hau ezagutzera emateko ezagutu ditudan herrialde eta pertsonengatik.

Esta tesis se ha enriquecido gracias a los valiosos comentarios de Joaquim Dolz, Sandrine Aeby, Roxane Gagnon y Jean Francois di Pietro en la estancia predoctoral de tres meses que pude realizar en Ginebra (Suiza) gracias a la ayuda EGONLABUR del Gobierno Vasco. Especial agradecimiento a Joaquim, por su inagotable energía y su abundante generosidad, y a Sandrine Aeby, mi tutora durante la estancia predoctoral, por su absoluta predisposición, y también por elaborar uno de los informes favorables de la tesis.

Esker bereziak eman nahi dizkiot Bilboko AA¹ ikastolari, lan hau aurrera eramateko elkarlana onartzeagatik eta inplementazio didaktikoa egiteko gauzak horren erraz jartzeagatik. Esker bereziak ikastolako zuzendariari, DBH eta Batxilergoko ikasketa buruari eta DBH 4ko tutoreari.

¹ Ikastolaren jatorrizko izena AA izenaren bidez anonimizatu da.

Eskerrik asko Berritzegune Nagusiari, ikerketa proiektu honekin hasi aurretik norabide egokian abiatzen laguntzeagatik, baita Josune Zabala eta Ane Ortigari ere, aholkulari lanagatik. Eskerrik asko Jon Casenaveri, tesiaren aldeko txostenetako bat egiteagatik.

Tesi hau egitea posible izan da baita ere Eusko Jaurlaritzako doktore aurreko laguntzari esker (PRE_2015_1_0111), Eusko Jaurlaritzako EGONLABUR programari esker (EP_2018_1_0023), eta Eusko Jaurlaritzako IT983-16/ HIJE-2 proiektuari esker ere, "Hizkuntzaren irakaskuntza, jabetasuna eta erabilera. Euskara, erderak, elebitasuna eta eleaniztasuna."

AURKIBIDEA

INTRODUCTION.....	13
-------------------	----

LEHEN ZATIA: ATAL TEORIKOA

I. KAPITULUA: HEZKUNTZA SISTEMA ELEANIZTUNA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN.....	22
1. Euskal hezkuntza sistemaren ezaugarri nagusi batzuk.....	22
2. Euskara, gaztelania eta ingelesaren gaitasunaren garapena ISEI-IVEI-ren Ebaluazio Diagnostikoaren arabera.....	27
3. EAEko hezkuntza eleaniztuna eta hizkuntzen trataera bateratua.....	30
II. KAPITULUA: HIZKUNTZEN DIDAKTIKARAKO MARKO TEORIKOA: INTERAKZIONISMO SOZIO-DISKURTSIBOA (ISD).....	37
1. Testuak eta testu-generoak.....	37
2. Testu-generoak hizkuntzen irakaskuntzan.....	40
2.1. Transposizio didaktikoa eta eredu didaktikoa.....	43
3. Sekuentzia didaktikoak (SD)	44
3.1. Sekuentzia didaktikoaren faseak.....	45
3.2. Sekuentzia didaktikoak: bermeak eta erronkak.....	48
3.2.1. Testu generoetan oinarritutako sekuentzia didaktikoa eta irakasleen prestakuntza.....	49
3.3. Sekuentzia didaktikoen balio didaktikoa.....	50
3.4. Irakaslearen jardunaren analisisa keinu didaktikoen bidez.....	51

III. KAPITULUA: IKASLEEN GAITASUN ELEANIZTUNA ETA HIZKUNTZEN ALTERNANTZIA	
IKASGELAN	54
1. Hezkuntza eleaniztunerako zenbait baliabide didaktiko	56
1.1. Berrikusitako proposamen didaktikoen helburuak.....	58
1.2. Proiektu komunikatibo eleaniztuna eta aurre- eta ondo-testuen ekoizpena....	60
1.3. Hizkuntza alternantzia moduluetan.....	62
1.4. Hizkuntza alternantzia lantzen duten proposamen didaktikoen emaitzak.....	64
2. Translanguaging.....	65
2.1. Translanguaging pedagogikoa.....	68
2.2. Ikasgelan hizkuntza desberdinak integratzea: zenbait ondorio.....	73
IV. KAPITULUA: JENDAURREKO AHOZKO AZALPENAREN DIDAKTIKA	76
1. Ahozko hizkuntza eta bere irakaskuntza.....	76
2. Jendaurreko ahozko azalpenaren oinarritzko ezaugarriak.....	79
3. Jendaurreko ahozko azalpen elebi/eleaniztunen praktika sozialak.....	80
3.1. Hizkuntza alternantziaren egoera komunikatiboa.....	81
3.2. Hizkuntza alternantziaren konbinaketa modu ezberdinak.....	83
4. Jendaurreko ahozko azalpenaren didaktika.....	90
4.1. Euskal curriculum dekretuak ahozko azalpenaren lanketari buruz zehazten duena.....	90
4.2. Jendaurreko ahozko azalpenaren alderdi irakasgarrien aukeraketa.....	92
4.3. Jendaurreko ahozko azalpena lantzeko proposamen didaktikoak.....	95

BIGARREN ZATIA: ATAL ENPIRIKOA

SECOND PART: EXPERIMENTATION OF THE TRILINGUAL DIDACTIC SEQUENCE: METHODOLOGY AND RESULTS

CHAPTER V: METHODOLOGY	103
1. Research questions and hypothesis.....	104
2. Context of the didactic experimentation.....	105
2.1. The school where the project was carried out: AA Ikastola ²	105
2.2. Sociolinguistic context of the school.....	106
2.3. The participants of our study.....	110
2.3.1. The sociolinguistic profile of participants.....	111
2.4. Planning of language teaching in AA Ikastola.....	113
3. The didactic model of the text genre chosen for the didactic sequence.....	117
3.1. The communicative situation.....	118
3.2. The organization of the content.....	118
3.2.1. Explanation of the text production activity throughout groups A, B and C....	120
3.3. The features of the text genre chosen for the research.....	120
3.4. Other important features of the didactic model and of the text genre experimented.....	123
3.4.1. Justification of the strict control over the languages.....	123
3.4.2. Contents and main discursive abilities: a text of a pluridiscursive nature....	123
3.4.3. A monological and dialogic text genre.....	124
3.4.4. Why a trilingual oral expository text?	125
4. Experimentation of the trilingual didactic sequence.....	126

² The school's original name has been replaced by AA in order to preserve its anonymity.

4.1. Timeline of the experimentation.....	127
4.2. Introduction of the classroom project and the production of the initial text....	128
4.3. Analysis criteria for the trilingual oral expository texts.....	131
4.4. The trilingual modules of the didactic sequence.....	133
4.4.1. The main and specific aims of the modules.....	134
4.4.2. Linguistic topics of the trilingual didactic sequence. Complementary clarification.....	135
4.4.3. General overview of the trilingual modules.....	136
4.5. The final text production of the didactic sequence.....	140
4.6. Teachers' didactic gestures to foster interlinguistic transfer.....	143
CHAPTER VI: RESULTS.....	145
1. The planning.....	146
1.1. The introduction in Basque.....	146
1.1.1. The introduction in Basque in the initial text.....	146
1.1.2. The introduction in Basque in the final text.....	149
1.2. Use of the first person plural to talk on behalf of the group.....	150
1.2.1. Use of the first person plural to talk on behalf of the group in the initial text.....	151
1.2.2. Use of the first person plural to talk on behalf of the group in the final text.....	152
2. Adaptation to the communicative situation.....	154
2.1. Explanation of the "difficult words" in English.....	154
2.1.1. Explanation of the "difficult words" in English in the initial text.....	155
2.1.2. Explanation of the "difficult words" in English in the final text.....	159
2.2. Producing explicit interactions with the audience in English.....	166

2.2.1. Producing explicit interactions with the audience in English in the initial text.....	166
2.2.2. Producing explicit interactions with the audience in English in the final text.....	166
2.3. The invitation to take part in the forum in Basque.....	168
2.3.1. The invitation to take part in the forum in Basque in the initial text.....	168
2.3.2. The invitation to take part in the forum in Basque in the final text.....	172
3. Textuality.....	179
3.1. Topic introducers in Basque, English and Spanish.....	179
3.1.1. Topic introducers in Basque, English and Spanish in the initial text.....	180
3.1.2. Topic introducers in Basque, English and Spanish in the final text.....	185
3.2. Past verb forms in English.....	197
3.2.1. Past verb forms in English in the initial text.....	198
3.2.2. Past verb forms in English in the final text.....	200
4. Teacher's didactic gestures to foster interlinguistic transfer.....	204
CHAPTER VII: CONCLUSIONS.....	215
1. The determined predictions and their realization.....	215
2. Final considerations.....	223
2.1. Towards a multilingual didactic engineering in the Basque educational context.....	223
2.2. Some limitations of the study and further research.....	224
Bibliografia.....	228

ERANSKINAK

1. Eranskina. Hizkuntza alternantziaren praktika sozialak: Lehendakaria Twitterren.....	253
2. Eranskina. Hizkuntza alternantziaren praktika sozialak: telesailak eta abestiak.....	254
3. Eranskina. Hizkuntza alternantziaren praktika sozialak: kartelak.....	256
Annex 4. The sample of the survey that was used in order to get to know students' linguistic profile (in Basque and English).....	261
Annex 5. Characteristics and outline for the semistructured interview at AA Ikastola (in Basque and English)	271
Annex 6. Explanation of the text production activity throughout groups A, B and C.....	275
Annex 7. Positive evaluation of the Ethics Commission of the University of the Basque Country (UPV/EHU).....	278
Annex 8. Introductions of the classroom project and explanation of the task for the initial text (in Basque and English)	279
Annex 9. The instructions for the text production activity. Initial text (in Basque and English)	282
Annex 10. Sheet of paper to prepare the notes. (in Basque and English)	287
Annex 11. Transcription criteria for the oral expository texts. (in Basque)	288
Annex 12. Example of a transcription of an initial text.....	291
Annex 13. Outline of the aims of the didactic sequence.....	302
Annex 14. Detailed description of the modules.....	303
Annex 15. The modules of the trilingual didactic sequence.....	320
Annex 16. The explanation of the task for the final text.....	321
Annex 17. The instructions for the text production activity. Final text.....	323
Annex 18. Summary of what students had learnt within the modules (in Basque and English)	327

INTRODUCTION

Nowadays almost every student in the world lives in contact with more than one language, and having a plurilingual competence can therefore be considered an indispensable condition to meet in order to act effectively in this globalized world (García-Azkoaga & Idiazabal, 2015). In a community where there is a minority language, if that minority language is to survive, it is essential that its members should at least be competent bilinguals, because the two languages that are in contact are vital in order not to be discriminated. Apart from that, having a good command of three languages (the language of the territory, the official language and at least one foreign language) seems to be the most accepted model (Wolff, 2019; Romaine, 2019). As in contexts similar to the Basque one, this principle would involve the minoritized language, the dominant language(s) and a foreign language. Indeed, one of the main features of the Basque education system is that it promotes multilingualism including a minority language, Basque (Cenoz, 2009; Idiazabal et al., 2015).

In the Basque context, immersion education, where students learn all (or almost all) non-linguistic subjects through the medium of Basque has proven to be successful in promoting Basque-Spanish bilingualism, especially when it comes to promoting Basque skills in sociolinguistic contexts where Spanish is dominant, at no cost of students' Spanish proficiency (Manterola et al., 2013).

A criticism that is sometimes raised against immersion education, however, is that while it claims to be promoting bilingualism, it still draws strict boundaries between languages, endeavouring to avoid language mixing; in other words, its view of bilingualism is said to be monoglossic (García, 2009). In the Basque context, this has typically been the case with the teaching of the three languages in the immersion programme being carried out separately. However, in recent years, the idea of integrating languages in the learning process has become a key aim of generic guidelines regarding multilingual language teaching and learning at both Basque and European levels (EHAA, 2016; Europako Kontseilua³, 2001). This perspective was supported long ago by Roulet (1980), and also by Cummins (1979/1981), who proposed the "Linguistic Interdependence Theory". This theory suggests that a shared underlying proficiency exists across languages, thus allowing positive transfer of linguistic skills to occur between languages.

³ *Europako Kontseilua* is the Basque name for "Council of Europe" and it has been expressed in Basque throughout the whole thesis.

The aim of this PhD thesis is to study the impact and the feasibility of a multilingual didactic sequence on the development of trilingual oral expository skills in sixteen-year-old students of Spanish (L1), Basque (L2) and English (L3). The experimentation of a trilingual didactic sequence that integrates Basque, Spanish and English, thus, constitutes a key element of this research project. The main research question that we will try to address is whether or not a trilingual (Basque-Spanish-English) didactic sequence is effective in promoting an improvement of the oral expository skills in Basque, Spanish and English. That is, whether students, after completing the didactic sequence, are able to produce more elaborated and adequate oral expository texts. In order to analyse students' linguistic skills, we will focus on a specific text genre: the oral expository text. We decided to take up the challenge to work on an oral, not written text genre, despite it not counting on such teaching and research tradition as the written language does. Analyzing students' linguistic skills within a specific text genre will enable us to obtain very specific data regarding students' oral proficiency.

Both Basque and European Curricula suggest that a language integrated approach could benefit from interlinguistic transfer and contribute to the development of language skills. The second research question that we will try to address is to what extent is the promotion of language alternation and interlinguistic transfer concerning specific linguistic and discursive items of the text genre practiced in the didactic sequence successful and, consequently, to what extent do students develop the targeted oral skills through language alternation and interlinguistic transfer.

Seeing that we have designed and experimented a new and not very usual trilingual Basque-Spanish-English didactic sequence, we also want to assess its didactic validity (Sénéchal & Dolz, 2019), so we set out the third research question as follows: Can a didactic sequence of this nature meet the criteria for didactic validity?, making reference to the five criteria of didactic validity: legitimacy, pertinence, coherence, feasibility and possibility of progress in learning. The implementation of a didactic device in three languages, one of them being minoritized and L2 for the majority of students, is a challenge that we wanted to approach knowing the difficulties that we would have to overcome.

The title of this dissertation *Hizkuntzen irakaskuntza bateraturantz: ahozko azalpenaren didaktika eleaniztuna Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan* ("Towards an integrated teaching of languages: plurilingual didactics of the oral exposition in Secondary Education") is in accordance with one of the lines of research of ELEBILAB research group, namely,

plurilingual education including a minority language. The research group has contributed to the research field of Basque multilingual education with abundant research, including topics such as the development of Basque-Spanish/ French linguistic competence in children from diverse sociolinguistic backgrounds schooled in Basque-medium education (Díaz de Gereñu & García-Azkoaga, 2016; Manterola et al., 2013; Lascano & Manterola, in press), the experimentation of didactic sequences for the learning of written as well as oral skills (Idiazabal, 2000; García-Azkoaga, 2013), teacher training (Díaz de Gereñu & García-Azkoaga, 2012; Ortega & Anakabe, 2015), and also discursive analysis of oral texts in Basque, based on the socio-discursive interactionism (Larringan et al., 2008; García-Azkoaga, 2007; García-Azkoaga et al., 2010). In this context our thesis focuses more explicitly in the experimentation of a trilingual didactic sequence, in view of the scarce existing research on this subject.

As it can be observed, the implementation of multilingual education with the promotion of the use of the minority language Basque constitutes a basic criterion to meet within the Basque educational context. The above-mentioned research lines have delved into the linguistic, sociolinguistic and didactic factors that favour the encouragement of Basque within the framework of multilingual education, which constitute compulsory references for our study.

This dissertation is divided into seven chapters: the first chapter *Hezkuntza-sistema eleaniztuna Euskal Autonomia Erkidegoan* ("Multilingual education system within the Basque Autonomous Community") contextualises the study by discussing relevant details of the Basque education system. As we have already mentioned, the central idea emphasized is that the Basque education system has to promote multilingualism including a minority language (in this case, Basque). We also provide census data from the Basque Institute for Research and Evaluation in Education concerning language proficiency of students in Basque, Spanish and English, in order to determine where the main gaps and successes of language competence lie. These data are, in sum, valuable to provide objective characteristics of the Basque education system and, specifically, to become aware of its accomplishments and deficiencies. In fact, that data show the relationship that can be found between this dissertation and some challenges of the Basque education system. Didactics of plurilingualism has hardly ever been a field into which much research has been done, and the aim of this dissertation is to prove a practical example of it and to present it, which could also be applied in other contexts.

In chapter 2 *Hizkuntzen didaktikarako marko teorikoa: interakzionismo sozio-diskurtsiboa* (“Theoretical framework for language didactics: socio-discursive interactionism”), as the title itself says, we explain the theoretical perspective we have adopted when it comes to analysing language teaching and learning, in this case, the socio-discursive interactionism (Bronckart, 1996/2004), which understands language as an activity that takes place in a specific communicative context, and oral and written texts constitute empiric forms of the use of language. This perspective defends the idea that in order to analyse students’ linguistic competence, it is essential to do it by means of texts. In this second chapter we also introduce the tool that has been proposed for language teaching and learning through texts and text genres: the didactic sequence (Dolz et al., 2001). Briefly though it may be, we also outline the didactic gestures the teacher can make use of in order to make the teaching object explicit in class.

Chapter 3 *Ikasleen gaitasun eleaniztuna eta hizkuntzen alternantzia ikasgelan* (“Plurilingual ability of students and alternation of languages in the classroom”) draws its attention to the use of more than one language inside the classroom as a didactic resource to promote plurilingual abilities, trilingual in our case. In this chapter we focus on what language alternation is and how it is worked on in some didactic proposals. In order to do that, it revises a selection of didactic proposals designed to develop students’ plurilingual competence: first, didactic proposals that integrate more than one language. Second, some following a translanguaging approach (García & Wei, 2014). The conclusions that can be drawn from the revision of the didactic proposals are the basis around which the choice of working with didactic sequences as an accurate resource is built, and also the reason why in this dissertation we work with didactics of plurilingualism. Pedagogical translanguaging is also presented as a resource to deliberately use more than one language in language teaching, designed with a specific purpose, although socio-discursive interactionism remains our main theoretical reference.

The fourth and last chapter of the theoretical section called *Jendaurreko ahozko azalpenaren didaktika* (“Didactics of the oral exposition”) focuses on the didactics of oral language and its relevance in the teaching of any language, specifically for the teaching of minority languages, in order to encourage their use. In fact, as mentioned before, the written language has a longer tradition as teaching and research unit, but oral language is gaining more and more pertinence and, at the same time, its teaching seems to be more challenging. In this chapter we will also focus on the text genre that we will work on in this thesis and we

outline the main characteristics of the oral expository text. We will also talk about the didactics of oral expository texts: what the Basque curriculum decree declares about what students have to know about oral expository texts, its teachable aspects, and we will also examine some of the didactic sequences that have been designed for its teaching in the Basque context and abroad.

The second part of the thesis covers the empirical content of the dissertation. It is written in English and consists of three chapters. Chapter 5 describes the methodological choices of the study: the didactic sequence we designed is described in detail and the experimental device is presented thoroughly. We also give specific information about the criteria we used for analysing students' oral presentations before and after the didactic sequence. As it will be explained throughout chapter 5, we have experimentally proven a didactic sequence based on a text genre, since in order to study students' oral expository skills, we take into account a control and an experimental group: while the experimental group has carried out the activities in the didactic sequence, the control group has not, and so, that leads us to more efficiently assessing the impact of the didactic sequence.

Chapter 5 starts with the statement of the research questions and the hypothesis. Then, the didactic model based on the text genre used in the experiment will be presented. The text production activity included in the didactic experiment is also described: the contents and the main discursive abilities that the text demands, and the way languages are to be alternated. In fact, the text students have to produce is quite unique, since they have to integrate Basque, Spanish and English within the same oral expository text, which is produced in groups of three; the text is, therefore, a trilingual oral expository text. Texts that integrate more than one language are becoming more and more common in today's multilingual society. In this chapter the school where the trilingual didactic sequence was implemented is also introduced, and students' linguistic profile is described. We also tried to gather some information about whether languages were taught taking an integrated approach in that school. Afterwards, the experimentation of the didactic sequence is described following the structure of didactic sequences, and the analysis criteria for the texts are described. As we will see, we have selected very specific linguistic criteria for analysis in order to assess students' language productions in a precise way.

After carefully describing the experimentation procedure, we move on to the results, where we make a comparison between the production of the initial and final texts of both the

control and the experimental group in chapter 6. The results are presented making reference to each analysis item that was used to analyse students' productions, namely, and based on Bronckart's (1996/2004) text architecture model, the planning, the adaptation to the communicative situation and the textuality, always bearing in mind the set objectives for each category and language. Apart from making reference to the discursive and linguistic topics that were worked on within the modules, we will also bring into focus the results concerning the interlinguistic transfer of skills that was promoted through language alternation, and assess whether it was successful. In particular, we will describe the implementation of two moments of the didactic sequence through the analysis of the didactic gestures employed by the teacher, in order to see how interlinguistic transfer was fostered.

We end in chapter 7 with discussion of our findings and conclusions relating to the effectiveness of trilingual didactic sequences in the Basque context. In this chapter we give details about the fulfillment of the hypothesis and the discoveries we have made concerning the teaching of oral language, integration of languages in trilingual didactic devices, didactic integration of discursive and grammatical features, teachers' gestures within the didactic experiment and the use of the text genre as an effective teaching tool. We also comment on the assessment of students' productions. Besides, we mention the novel contributions of a trilingual didactic sequence and we try to theoretically justify the results found in the final texts. The didactic sequence that was designed and experimented is also assessed following the didactic validity, in order to respond to the third research question.

We should finally provide an explanation about the language use in this PhD dissertation. Seeing that this thesis is international, we decided to use English as the language for scientific communication, in order to comply with the language standards of international thesis, as established by the University of the Basque Country (UPV/EHU); at the same time, we opted for incorporating Basque too in order to give visibility to our home minority language. First of all, the introduction and the empirical part, that is, the methodology, the results and the conclusions (chapters 5, 6, 7) have been written in English, since they constitute the original part considering the content of the research, and we regard it of utmost importance that the people in the jury who do not know Basque should be able to comprehend in detail the new contributions of the thesis. At the same time, we opted for using Basque for the theoretical section (chapters 1, 2, 3 and 4). The theoretical section is not original concerning the content, we do our own original interpretation to provide theoretical justification of the decisions made, and we foresaw that the jury would already be familiar

with the adopted theoretical perspective. In chapter 5 methodology, however, we have tried to justify, based on the literature, the perspective we have adopted by making reference to the theoretical section, but this time in English.

LEHEN ZATIA: ATAL TEORIKOA

I. KAPITULUA

HEZKUNTZA SISTEMA ELEANIZTUNA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Sarrera

Atal honetan EAEko hezkuntza sistemari buruzko aurkezpen bat egingo dugu, tesiaren testuingurua azaltzeko. Azpimarratu behar da batez ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan jarriko dugula arreta, maila horretan gauzatu baitugu tesi proiektu hau.

Sarreratxo honetan, 1. atalean, euskal hezkuntza sistemaren zertzelada batzuk emango ditugu, hala nola, haren antolamendua, irakaskuntza ereduak edota matrikulazio datuen bilakaera izango ditugu hizpide, enfasi berezia hizkuntzen irakaskuntzan jarritz, betiere. Eta 2. atalean, euskara, gaztelania eta ingelesaren hizkuntza-kompetentziei buruz egin diren azterketa batzuk aipatuko dira, hain zuzen ere, Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI-IVEI) egindako Ebaluzio Diagnostikoetan jarriko dugu arreta. Izan ere, arreta ikasleen gaitasunetan nahi da jarri, tesiaren ardatz nagusi bat hori delako. Gure ustez, egin diren azterketetan ez dira oso emaitza onak edo lasaigarriak agertzen, uste dugu didaktikak baduela horretan eragiteko gaitasuna, eta gure ikerketan hain zuzen hizkuntza gaitasunak garatzeko baliabide didaktiko bat esperimendatzen dugunez, datu zehatz batzuk eman nahi izan ditugu ikasleek hizkuntzetako bakoitzean duten gaitasunari buruz. Lehen kapitulu honen azken atala EAEko hezkuntza eleaniztunari eta hizkuntzen trataera bateratuari eskainiko diogu.

1. Euskal hezkuntza sistemaren ezaugarri nagusi batzuk

Derrigorrezko Euskal Hezkuntza Sistemaren Oinarrizko Hezkuntza Lehen Hezkuntzan (LH) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) banatzen da. Lehen Hezkuntza 6 eta 12 adin-tarteko ikasleei dagokie, eta Bigarren Hezkuntza 12-16 urte bitartekoei. Bigarren Hezkuntza, kasu honetan interesatzen zaiguna, lau mailaz osatzen da.

EAEEn hiru hezkuntza-sare dauzkagu: sare publikoa, pribatua eta itunpeko sarea. Ikasleen erdia baino zertxobait gehiago eskola publikoetan dago matrikulatuta. Hain zuzen ere, 2014-2015 ikasturtean ikasleen %51,2 zentro publikoetan matrikulatu zen, eta %48,8 pribatuetan (Eusko Jaurlaritza, 2016). Eskola publikoak Eusko Jaurlaritzak finantzatzen ditu. Sare pribatua publikoak ez diren baliabideez finantzatzen da: gurasoak, atzerriko estatuen gobernuak, eta abar. Itunpeko sareak finantzazio bikoitza jasotzen du: finantzazio publikoa eta haien seme-alabak itunpeko zentroetan eskolatzen dituzten gurasoen finantzazioa.


Esan dezakegu EAEko hezkuntza sistema eleaniztuna dela, ikasleek gutxienez hiru hizkuntza ikasten baitituzte: euskara, hizkuntza gutxitua eta bertakoa dena, gaztelania, eta ingelesa, ikasle gehienek lehen atzerriko hizkuntza. Beraz, hizkuntza gutxitu bat barne hartzen duen hezkuntza eleaniztuna sustatzea hezkuntza sistema euskaldunaren ezaugarri bereizgarrietako bat da (Cenoz, 2009; Idiazabal et al., 2015). Horren ondorioz, euskara biziberritu beharrik hizkuntzen planteamenduan eragina izango du. Hala diote García-Azkoagak eta Idiazabalek (2015: 11) ere: “La formación plurilingüe, objetivo para todos y oportunidad para las comunidades con lenguas minorizadas”.

Hala ere, eskolak beste eragile batzuren beharra dauka hizkuntza gutxitua biziberritzeko eta, eskolan egiten den hizkuntzen irakaskuntzaren planteamenduz gain, hizkuntza gutxituek bizirik irauteko legearen aldetik ere babesa behar dute. Euskarak lege babesa jaso zuen urte askotan debekatuta egon ondoren, eta 1979an euskara, gaztelaniarekin batera, ofizial bihurtu zen EAEn, Autonomia Estatutuarekin batera. EAEko hezkuntza sistemaren barruan, 1982ko Euskararen Normalizaziorako Legeak (10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzakoa) zehaztu zuen eskolek ikasleen hizkuntza gaitasuna bai euskaraz zein gaztelaniaz garatu behar zutela. Aldi berean, lege horrek gurasoei aitortu zien haien seme-alaben irakaskuntza hizkuntza aukeratzeko eskubidea. 1983ko legeak (Uztailaren 11ko 138/1983 Dekretua, Euskal Herriko irakaskuntza ez unibertsitarioan hizkuntza ofizialen erabilera arautuz), euskara eta gaztelaniaren erabilera hezkuntzan arautzen duenak, hiru hezkuntza eredu ezarri zituen, non euskara eta gaztelaniaren rola eta erabilera desberdinak diren: A ereduak gaztelania da irakaskuntza hizkuntza bakarra eta euskara ikasgai soilak; B ereduak euskara eta gaztelania, biak dira irakaskuntza hizkuntzak eta ikasgaiak; azkenik, D ereduak euskara da irakaskuntza hizkuntza bakarra eta gaztelania ikasgai soilak. 1990. urtetik aurrera, ingelesak irakaskuntza hizkuntzaren rola hartu du pixkanaka, nahiz eta euskara (D ereduak) eta gaztelania (A ereduak) diren oraindik ere irakaskuntza-hizkuntza nagusiak (Cenoz, 2009).

Ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzean hizkuntza bakoitzean lortu beharreko kompetentzia mailak euskal curriculumak (EHAA, 2016) zehazten dituzten Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoari (Europako Kontseilua, 2001) jarraiki: B2 maila lortu behar dute euskaraz eta gaztelaniaz, eta ingelesez B1 maila.

Matrikulazio-datuak bilakaerak erakusten du D ereduak gurasoen eta gizartearen aldetik irabazi duen babesa. 1. eta 2. grafikoetan ikusten da bilakaera.

1. Grafikoa. EAEko Lehen Hezkuntzako matrikulazio datuak.



Manterola (2019: 119)

Grafikoa 80ko hamarkadatik 2015-2016 arte EAEn egon den hizkuntza-eredu desberdinetan matrikulatutako ikasle kopuruaren bilakaera ikus dezakegu, Lehen Hezkuntzan. Nabaria da denboran zehar A ereduaren matrikulatutako ikasle kopurua nabarmen jaitsi dela; aldi berean, agerikoa da D ereduaren matrikulatutako ikasle kopurua asko indartu dela, izan ere, 2009-2010 ikasturtean ikasleen %60k aukeratu zuten D eredu. Ikasturte berean %30 baino ez zen matrikulatu B ereduaren.


2018ko Eustaten Euskal Urtekari Estatistikoak (Eustat, 2018) ere emaitza berriagoak argitaratu ditu EAE osoari begira, eta joera bera da, alegia, D ereduaren matrikulatutako ikasle kopurua areagotzen doa, A ereduaren kaltetan; B ereduaren matrikulatutako ikasle kopuruak, aldiz, nekez jasan du aldaketarik.

2. Grafikoa: Euskal AE-ko ikaslegoaren bilakaera, irakasteredu elebidunaren arabera.

15 GRAFIKOA / GRÁFICO

IKASLEGOAREN BILAKAERA, IRAKASTEREDU ELEBIDUNEN ARABERA


EVOLUCIÓN DEL ALUMNADO POR MODELO DE ENSEÑANZA BILINGÜE



(Eustat, 2018: 216). Moldatua.

Eusko Jaurlaritzak 2017-2018 (Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzaren datuak Euskadin) ikasturteko datuak ematen ditu ikasteredu bakoitzean matrikulatutako ikasle kopuruari dagokionez, eta hemen ere joera da 2017-2018 ikasturtean DBHn D ereduan matrikulatutako ikasle kopurua hazten doala.

3. Grafikoa. Ikasleen bilakaera D ereduan. 2013/14 ikasturtetik 2017/18 ikasturtera.



(Eusko Jaurlaritza, 2017/2018: 14).

Etxeko hizkuntza gisa gaztelania duten ikasleentzat, D eredu, euskarari dagokionez, euskararen hizkuntza-konpetentzia garatzeko helburua duen murgilketa programa da (Dolz & Idiazabal, 2013); euskara etxetik dakarten eta, beraz, H1 gisa duten ikasleentzat, aldiz, mantentze programa da D eredu.

D ereduko ikasleek A eta B ereduko ikasleen gaztelania mailan antzeko emaitzak lortzen dituzte (Eusko Jaurlaritz, 1986; 1989; 1990), murgilketak elebitasuna sustatzen du-eta. D eredu jarraitzeak euskararen B2 maila lortua izatea suposatzen du izatez, baina hori ez da beti lortzen, gero ikusiko den bezala. Era berean, Cenoz (1992) eta Lasagabasterren (1998) ikerketek eredu desberdinetan lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleek lortutako ingeles-maila ebaluatu zuten; ikerketa horiek erakutsi zuten D ereduan matrikulatutako ikasleek emaitza hobeak lortzen zituztela, gainerako ereduetan matrikulatutako ikasleekin alderatuta.

Euskara eta gaztelaniaz gain, ingelesa da ikasle gehienek ikasten duten beste hizkuntza, atzerriko hizkuntza gisa. Ikasgaia izateaz gain, irakaskuntza-hizkuntza ere bada. Horren adibide da Ikastolen Elkarteak 1991n martxan jarri zuen *Eleanitz* proiektua, 4 eta 16 adin bitarteko ikasleengan eleaniztasuna garatzeko asmoarekin. Proiektu horrek ingelesaren irakaskuntza goiztiarra ezarri zuen, baita Lehen Hezkuntzako azken zikloan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasgai batzuk ingelesaren bidez ikastea ere, CLIL (*Content and Language Integrated Learning*) metodoaren bidez. Gaur egun oso praktika arrunta da Gizarte edo Natur Zientziak bezalako ikasgaiak ingelesez ikastea.

Azken urteotan, hizkuntzen ikas- eta irakaskuntzan hizkuntza bat baino gehiago integratzea gidalerro orokorren oinarritzko printzipio bihurtu da, bai Euskal Herri mailan, zein maila europarrean ere (EHAA, 2016; Europako Kontseilua, 2001). Hala ere, ikasgela barruan integrazio ikuspegi batean oinarritutako inplementazio didaktikoak erronka garrantzitsua izaten jarraitzen du oraindik ere hezkuntza sistema euskaldunean (Manterola et al., onartua; Apraiz et al., 2012).

Hizkuntza bakoitzari eskaini behar zaion gutxieneko ordu kopurua Hezkuntza Sailak zehazten du curriculum lerroetan. Lehen Hezkuntzan, lehen eta bigarren zikloetan, gaztelania eta euskara hizkuntza ikasgaiei eskaintzen zaion ordu kopurua bera da, 4 ordu, alegia. Hirugarren zikloko lehen urtean ere 4 ordu eskaintzen zaizkio ikasgai horietako bakoitzari, eta azken urtean 3,5 ordu. Ingeles ikasgaiari eskaintzen zaion ordu kopurua, aldiz, handitzen doa, lehenengo zikloan 2 izatetik, bigarren eta hirugarren zikloetan 3 izatera.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ere modu berean banatzen da euskara eta gaztelania hizkuntza ikasgaiei eskaintzen zaion ordu kopurua: lehenengo zikloan 4 ordu eskaintzen zaizkio hizkuntzetako bakoitzari eta bigarren zikloan 3. Atzerriko lehen hizkuntzari dagokionez, kasu honetan ingelesari, ordu kopurua txandakakoa da, hain zuzen ere, lehenengo urtetik laugarren urtera 4, 3, 3, 4 ordu.

Ez da ahaztu behar hizkuntza ikasgaiez gain, hezkuntza eredueta (A, B, D) bakoitzean euskarak, gaztelania eta ingelesak hizkuntzazkoak ez diren irakasgaien irakaskuntza hizkuntza gisa ordu gehiago edo gutxiago betetzen dituztela ordutegiaren barruan.

EAEko curriculum dekretuak (EHAA, 2016), bere 10. artikuluan, “Elebitasuna eta eleaniztasuna” deitutakoan, zehazten du hezkuntza-sistemak euskarari emango diola lehenetasuna, eleaniztasuna sustatzen duen heinean, hizkuntzen arten oreka bilatze aldera. Ikastetxe bakoitzak bere Hizkuntza Proiektua eta Curriculum Proiektua tokian-tokiko ingurune soziolinguistikoaren ezaugarrietara egokituko du, eta euskararen normalkuntza prozesuan eragile aktibo izango da.

2. Euskara, gaztelania eta ingelesaren gaitasunaren garapena ISEI-IVEI-ren Ebaluazio

Diagnostikoaren arabera

Lehen aipatu bezala, curriculumak zehazten du ikasleek DBH bukatzean B2 maila lortu behar dutela euskaraz eta gaztelaniaz, eta B1 maila ingelesez. Atal honetan ikusiko dugu, 2017an egindako Ebaluazio Diagnostikoan oinarrituta, zein izan zen ikasleek DBH 2. mailan lortu zuten euskara, gaztelania eta ingeles kompetentzia-maila.

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI-IVEI, 2018), Hezkuntza Ikuskaritzak eta irakasleei laguntza emateko zerbitzuak (Berritzeguneak) elkarrekin garatutako ebaluazio-frogak dira Ebaluazio Diagnostikoak. Ebaluazio Diagnostikoak Euskal Hezkuntza Sistema ebaluatzeko tresnak dira, eta LHko 4. mailan eta DBHko 2. mailan aplikatzen dira bi urterik behin, hau da, etapa bakoitzaren erdian, ikusteko ea ikasleek oinarritzko kompetentziak lortzen dituzten ala ez.

2019koa diseinatuta eta inplementatuta dagoen arren, ez da oraindik emaitzarik argitaratu, izan ere, proben aplikazioa 2019ko maiatzaren 6tik 31ra bitartean burutu zuten. Horregatik, 2017koan oinarrituko gara, eta DBH 2ko euskara, gaztelania eta ingelesaren hizkuntza-komunikaziorako kompetentzietan zentratuko gara.


2017ko ebaluazio-diagnostikoan eskola publiko zein itunpeko ikastetxeetako LHko 4. mailako eta DBH 2. mailako ikasle guztiek hartu zuten parte, DBH 2an 21.436 ikaslek, hain zuzen ere. Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziak honako dimentsio hauek barne hartzen ditu: ahozkoaren ulermena eta entzumena; idatziaren ulermena eta irakurmena; mintzamina; idazmena; ahozko elkarrekintza.

Ebaluazioa egiteko, hiru gaitasun-maila edo atalase zehazten dira, baxuenetik altuenera: hasierako maila, erdi-maila eta maila aurreratua. Argitaratutako txostenean ez da esplizitatzen maila bakoitzarentzako irizpide linguistikorik, baizik eta modu orokorrean zehazten da maila horietako bakoitzean ikasleek garatu beharko lituzketen konpetentziak. Adibidez, DBH 2. mailan ikasle bat euskara maila aurreratuan kokatzeko, errendimendu mailen definizioan zehazten denari jarraiki, ikasleak komunikaziorako konpetentzia altua izan behar du; maila honetan kokatzen den ikaslea gai izan behar da “mota askotako ahozko eta idatzizko testuetan informazio zehatza interpretatzeko eta erlazionatzeko” (26), baita testu konplexuak ulertzeko ere. Azpimarratu behar da maila bakoitzean euskara eta gaztelaniarako zehazten diren irizpideak oso antzekoak direla, eta betiere ingeleserako eskatzen direnak baino maila altuagokoak. Datozen lerroetan aurkeztuko ditugu hizkuntza bakoitzari dagozkion emaitzak.

Hurrengo grafikoan, nahiz eta hizkuntzazkoak ez diren konpetentziak ere ebaluatzen diren, euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzien joera orokorrak ikus ditzakegu, 2017ko Ebaluazio Diagnostikoaren emaitza orokor gisa.

4. Grafikoa: DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoaren banaketa errendimendu mailaren arabera ebaluatutako bost kompetentzietan.

3.1.d. grafikoa: ED17. DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoaren banaketa errendimendu mailaren arabera ebaluatutako bost kompetentzietan.



(ISEI-IVEI, 2018: 43)

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziari dagokionez, azken bi ebaluazio diagnostikoetan oso antzeko emaitzak ikusten dira: ikasle kopururik handiena, hots, %45 baino gehiago, hasierako mailan dagoela, hau da, mailarik baxuenean. Halaber, 2010eko Ebaluazio Diagnostikotik aurrera, hasierako mailan kokatzen den ikasle kopuruak gora egin du, eta 2017an %45,6ra iritsi da. Era berean, maila aurreratuan dagoen ikasle kopuruak etengabe egin du behera, eta 2011-2013 eta 2015-2017ko Ebaluazio Diagnostikoetan oso emaitza berdintsuak lortu dira maila aurreratuari dagokionez. Edonola ere, joera konstantea izan da 2009ko Ebaluazio Diagnostikotik 2013kora arte ikasle kopuru handiena erdi-mailan kokatzea. Eta lehen esan bezala, azken bi urteetako ebaluazio diagnostikoetan ikasle kopururik handiena hasierako mailan kokatzen da.

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziari dagokionez, egoera oso bestelakoa da euskarakoarekin alderatuta. Hasierako mailan dagoen ikasle kopurua egonkor mantentzen da 2009ko ebaluazio diagnostikotik 2017kora, eta oro har ez da inoiz %15 baino altuagoa. Ikasle kopuru handiena erdi-mailan kokatzen da, eta oro har ehunekoa beti da %55 baino altuagoa. Era berean, maila aurreratuan kokatzen den ikasle kopurua berdintsu mantendu da edo hazi egin da Ebaluazio Diagnostiko batetik bestera, eta beti izan da %25 baino altuagoa.

Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziari erreferentzia eginez, 2011n egindako Ebaluazio Diagnostikotik aurrera emaitza hobekak lortu dira, izan ere, hasierako mailan kokatzen den ikasle kopuruak behera egin du (kasu guztietan euskarazkoarena baino baxuagoa da), eta erdi-mailan eta maila aurreratuan dagoen ikasle kopuruak gora egin du. Erdi-mailan eta maila aurreratuan kokatzen den ikasle kopurua kasu guztietan da euskarazkoarena baino altuagoa. Azpimarratu beharra dago hiru atalaseak zehazteko irizpideak H3an ingelesean ez direla gaztelania eta euskararenak bezain altuak.

3. EAEko hezkuntza eleaniztuna eta hizkuntzen trataera bateratua

1. atalean aipatu dugu euskarazko murgilketak denborarekin lortu duen ospe soziala. Murgilketaren hatsarreak Kanadan eman ziren, Montrealen alegia (Genesee, 2006), etxetik ingelesa zekarten haurrak frantsesetik eskolaratzen zirenean. Hori da, hain zuzen ere, murgilketaren definizioa: umeak etxean ikasi ez duten hizkuntzan eskolatzea, helburua hitzun elebidunak heztea delarik. Horrela, etxean euskara ikasi ez duten ikasleek, lehen hizkuntza gaztelania eta atzerriko hizkuntzako ikasgaiak kenduta, hizkuntzazkoak ez diren gainerako ikasgaiak ikasleen H2an ikasten dituzte. Beraz, D murgiltze ereduaren eskolaratzen diren ikasleek, euskaraz ikasten dituzte euskara hizkuntza irakasgaiak gain, ez-hizkuntzazkoak diren beste ikasgai guztiak edo gehienak (posible baita ez-hizkuntzazko irakasgairik bat ingelesez ikastea), hizkuntzazkoak diren ikasgaiak (gaztelania eta ingelesa, behinik behin) izan ezik. Burura etorritako litzaigukeen galdera da ea zer dela-eta lortzen duen murgilketak haurrak hizkuntza gutxituan (kasu honetan euskaraz) eskolatuta ere, hizkuntza nagusian (gaztelaniaz) hizkuntza konpetentzia maila ona erdiestea. Galdera horri erantzuna eman nahian, Cumminsek (1979/1981) *Common Underlying Proficiency* (CUP) edo garapeneraren interdependentziaren teoria iradoki zuen. Cumminsen hipotesi honek proposatzen duen ideia izozmendiaren irudiaren bidez adierazten da: izozmendiaren azpialdeak (bat eta bakarrak) hizkuntzen artean gaitasun komun bat existitzen dela adierazten du, non hizkuntza batak eta besteak konpartitzen dituzten gaitasunak sartzen diren; horrek ez du ukatzen, hala ere, hizkuntza bakoitzak berezko ezaugarriak dituenik eta gaitasun horiek hizkuntza bakoitzaren barruan ikasi behar direnik. Hizkuntza bakoitzaren berezko ezaugarri hauek izozmendiaren tontor desberdinek adierazten dituzte. Hipotesi hau, garai hartan, irakurketa eta idazketa trebetasunen interdependentzia frogatze aldera izan zen esanguratsua, alegia, ikasleek edozein hizkuntzan garatzen dituzten irakurketa trebetasunak erraz transferituko dituztela beste edozein hizkuntzara: "To the extent that instruction in Lx is effective in promoting proficiency in Lx, transfer of this proficiency to Ly will occur provided there is adequate

exposure to Ly (either in school or environment) and adequate motivation to learn Ly (Cummins, 1981: 29).

Horrela, hizkuntzarteko transferentzia izango da murgilketaren bidez ikasleek bi hizkuntzak ikastea ahalbidetuko duena, betiere oinarritzko baldintza hauek betetzen badira: alde batetik, eskolak modu eragikorrean bermatu behar du ikasleek x hizkuntza ikasten dutela; bestetik, ikasleek y hizkuntzarekiko esposizio egokia izan behar dute (eskolan edo eskolaz kanpo); azkenik, y hizkuntza ikasteko motibazio nahikoa ere izan behar dute. Baldintza horien menpe dago, beraz, hizkuntzarteko transferentziaren bermea, eta ondorioz, murgilketak ikasle elebidunak heztearen arrakasta. Hizkuntzarteko transferraz hitz egiteak halaberrez eskatzen du diskurtsoaz eta testuaz aritzea, aipatutako (Cummins, 1979/1981) irakurketa eta idazketa trebetasunez gain, diskurtso alorreko zenbait gaitasunetan ere gertatzen dela frogatu baita (Idiazabal & Larringan, 1996; Idiazabal & Manterola, 2009).

Elebi- edo eleaniztasuna munduan zehar ohikoa dela jakina da (Grosjean, 1984; Idiazabal, 2011), beraz, hizkuntza gutxituak barne hartzen dituen hezkuntza sistemak halaberrez izan beharko luke eleaniztasuna (García-Azkoaga & Idiazabal, 2015). Ingelesaren hiperzentralitateari aurre egiteko irtenbidea ere bada eleaniztasuna: “Le multilinguisme européen n’est donc pas un choix, mais la seule solution possible pour tenter de résister à l’hypercentralité de l’anglais” (Castellotti & Moore, 2011: 292). Hortaz, gurea bezalako komunitate batek hizkuntza gutxitua, kasu honetan euskara, barne hartzen duen eleaniztasuna sustatu behar du.

Hizkuntza bat baino gehiago etengabeko ukipen egoeran egoteak diglosia egoera eragin lezake. Kasu horretan, eskolaren betebeharra garrantzitsua da, garrantzitsua bai baina ez bakarria, hizkuntza gutxituen zabalkuntza eta hizkuntza gutxituekiko nahiz bere hiztunekiko jarrera positiboak bermatzeko. Horrez gain, gaur egun gero eta mundu globalizatuago honetan norberarena ez den beste hizkuntza bat ezagutu eta erabiltzeko gai izateko behar soziala ere existitzen da. Gainera, ezin uka daiteke migrazio fluxuek presentzia sozial eskasa duten hizkuntzak ekarri dituztela eskoletara. Hizkuntza horiek kultur eta identifikazio elementu garrantzitsuak dira ikasleentzat.

Hezkuntza eleanitzaren arrakastak beregain hartzen du besteen hizkuntzak onartzea eta hizkuntza eta kultura horienganako interesa, izan ere jarrera horrek ziurtatzen die geroa hizkuntza gutxituei eta, aldi berean, beste kultura eta pentsaera desberdin batzuk ezagutzeari zabaltzen dizkio ateak (Apraiz, et al., 2012: 121).

Hartara, egungo errealitate eleanitza kontuan hartuz, jada 1973. urtean Europako Kontseiluak gaurkotasun handia duten baieztapenak egin zituen, besteak beste, baieztatu zuten ikuspegi pedagogiko batetik eta hizkuntzalaritzaren teoria modernoek ziotena kontuan izanda, bi hizkuntzen arteko antzekotasunak desberdintasunak baino gehiago hartu behar direla kontuan, eta hizkuntza irakasleek gai izan behar dutela haien jarduera pedagogikoak koordinatzeko eta haien irakaskuntza printzipio linguistiko komunetan oinarritzeko.

Europako Erreferentzia Markoak (Europako Kontseilua, 2001/2018) ere, honen harira, dio hizkuntza baten irakaskuntza beste hizkuntza batzuekin elkarreraginean eman behar dela, hizkuntza bat eta bestearen irakaskuntzarako ekimenak, ariketak antolatzerakoan, beharrezkoak ez diren errepikapenak saihestu behar dituela eta hizkuntza aniztasunak ahalbidetzen duen ezagutzen transferentzia sustatu behar dela. Horretarako, zehazten diren helburuek edota progresio etapek ez dute zertan berdinak izan bi hizkuntzetarako.

1. atalean aipatu bezala, EAEn, ikasleek euskara eta gaztelaniaz gain, atzerriko hizkuntza bat ere (gehienetan ingelesa) ikasten dute. EAEko curriculum dekretuek denbora luze daramate hizkuntzak modu integratuan irakatsi behar direla aldarrikatzen. 1990eko LOGSE Lege Organikoak, Espainiako Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorraren Lege Organikoak alegia, jada zehaztu zuen hizkuntzen irakaskuntza ikuspegi integratzaile batetik egin behar zela, hizkuntza desberdinetako irakasleek erabaki partekatuak hartuz eta ikuspegi metodologiko antzekoetan oinarrituz, ikasleek hizkuntza batean ikasitakoa bestean ere eskuragarri izan zezaten.

2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa, hizkuntzen arteko transferigarritasunari buruz dihardu, horrek, hizkuntzen curriculum integratuaren barruan, gorago aipatutako hizkuntzen arteko gaitasun interdependientea garatzen laguntzen duelarik.

236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum a zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak, 11. artikuluan hizkuntzen trataera integratua eta integralari egiten dio erreferentzia, ikasleek komunikatzeko konpetentzia eleaniztun bat lor dezaten. Hemen ere hizkuntzen artean existitzen den konpetentzia komunari egiten zaio erreferentzia, hizkuntza bakoitzak berezkoak dituen ezaugarriak landu eta guztiek berdinak dituztenak partekatu ditzaten ikasleek. Dekretu honek irakasle guztiek, hizkuntza irakasle diren heinean, ikasleengan komunikazio gaitasuna garatzearen garrantzia azpimarratzen du.

Heziberri 2020 Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoak ere hizkuntzen trataera integratua eta integrala du hizpide. Hemen ere, gorago aipatutako lege dekretuetan bezala, berebiziko garrantzia hartzen du hizkuntzak komunikazio tresna gisa ulertzea. Hizkuntzen curriculum integratua egin behar dela aldarrikatzen du eta egin behar horretan eskola komunitate osoa jartzen du erantzule.

Hizkuntzen Trataera Bateratua edo HTB inplementatuko bada, hizkuntza guztien irakaskuntzan, koordinazioa eta koherentzia hainbat mailatan dira beharrezkoak: irakaskuntza programetan (edukiak, helburuak eta ebaluazioa), terminologia linguistikoan, jardueren diseinuan eta ikasgelan jarduerak gauzatzekoan (Cavalli, 2005). Azken helburuak izango lirateke hizkuntza bakoitzaren irakaskuntza helburuak testu-generoen arabera programazio sekuentzia didaktiko bakarrean txertatzea eta hizkuntzarteko transferra ahalbidetuko duen curriculum antolatzea (Ortega & Anakabe, 2015; Idiazabal & Manterola, 2009; Dolz, 2019).

Aipatu bezala, HTB ikuspegian hizkuntzak irakasteko ikuspegi komunikatiboa hobestea gomendatzen da, zeinen barruan, gure aukeran, testu generoetan oinarritutako ikuspegia nabarmentzea hobetsi dugun (Larringan, 2009). Ikuspegi honek aldarrikatzen du konpetentzia komunikatibo eleaniztunak curriculumeko hizkuntza guztien irakaskuntza modu koordinatuan planteatzea eskatzen duela. HTBren barruan Euskal Herrian ezagutzen den hezkuntza elaniztunerako proposamenik ezagunenak, testu generoetan oinarritutako eta egoera komunikatibo esanguratsuetako hizkuntza ekintzak hartzen ditu kontuan. Bestalde, hizkuntzarteko transferentzia (Cummins, 1979/1981) ere kontuan hartzen den beste baliabide didaktiko onartua da.

Hezkuntza sistema euskaldunean koordinazio maila orokor bat existitzen da hizkuntzazkoak ez diren gaietara dagokienez, euskararen bidez bereganatutako edukiak ez baitira gaztelaniaz errepikatzen. Hala ere, koordinazio ikuspegi batean oinarritutako euskara, gaztelania eta ingelesezko material didaktikoak urriak dira (Apraiz et al., 2012). Kasu batzuetan, hizkuntzarteko erreferentzia esplizituak aurki ditzakegu hizkuntzen artean (Aldekoa, prestak.). Beste kasu batzuetan, koordinazio hori hizkuntza bakoitzean testu genero desberdin bat landuta gauzatzen da (Manterola et al., onartuta).

Arestian aipatu dugu eleaniztasuna ukaezineko errealitatea bilakatu dela gaur egun. Hartara, hizkuntzen trataera bateratuaren zeregin nagusienetakoa ikasleengan eleaniztasunaren garapena ziurtatzea da. Baina helburua ez da ikasi beharreko hizkuntza bakoitzean elebazarrek duten gaitasuna lortzea, ezta hizkuntza bakoitzean gaitasun berbera

lortzea ere, hizkuntza bakoitzean gizarte beharrian jakin batzuei aurre egiteko adinako gaitasunak lortzea baizik (Idiazabal & Larringan, 2004). Honen harira, Grosjeanek (1985) ere aldarrikatu zuen hiztun eleaniztunek helburu desberdinekin erabiltzen dituztela hizkuntzak eta gaitasun desberdinak dituztela dakiten hizkuntza eta hizkuntza-abilezia bakoitzean (entzumena, irakurmena, mintzamena eta idazmena). Baker eta Wright-ek (1997) ere *semilingual* deritzon kontzeptua sortu zuen, zeinak hizkuntza berri bat ikasten duen horren hizkuntza-mailari egiten dion erreferentzia, zeina ez baita konparagarria hiztun natibo baten hiztegi, gramatika, gaitasun edota ezagutzarekin, oro har. Europako Erreferentzia Markoa ere (2018: 28) hontaz dihardu, *plurilinguism* kontzeptuaren bidez: "Plurilingualism is presented in the CEFR as an uneven and changing competence, in which the user/learner's resources in one language or variety may be very different in nature to those in another". HTBren oinarri psikolinguistikoetako bat da bigarren edo hirugarren hizkuntza baten ikaskuntzak mintzaira gaitasunarekiko kontzientzia eta kontrola areagotzen dituela (Idiazabal & Manterola, 2009).

Lehen esan bezala, hizkuntzarteko eragina edo transferrari dagokionez, ikasleei askotariko egoera komunikatiboetan hainbat hizkuntzatan jarduteko gaitasunak irakatsi behar zaizkie, eta, horretarako, sekuentzia didaktikoen bitartez, ikasleak testuen/diskurtsoen ekoizpenean trebatu beharra dago. Hizkuntzen irakaskuntza modu bateratuan programatzeko, modu zehatzean identifikatu egin behar da zein diren hizkuntza desberdinetan bateratu daitezkeen edukiak, hizkuntza batean eta bestean eduki berberak errepikatzea edikituko, ekonomia kognitibo (Cavalli, 2008) baten bila; hizkuntzen arteko eduki komunak identifikatzea bezain garrantzitsua izango da hizkuntza bakoitzak berezkoak edo espezifikoak dituen ezaugarriak zehaztea, eta beraz, hizkuntza bakoitzaren barruan landu behar direnak (Idiazabal & Manterola, 2009). Horretarako, ezinbestekoa da ezagutzea zein diren ikasleen hizkuntza-gaitasun eta zailtasunak, baita testu-genero bakoitzarekiko ezagutza-maila ere.

Hezkuntza elebidunari sarritan egiten zaion kritika da elebitasuna sustatzea aldarrikatzen duen arren, hizkuntzen artean muga zorrotzak ezartzen dituela, eta horrela, proposamen didaktikoetan hizkuntzak nahastea ekiditen duela; beste hitz batzuetan, elebitasunari buruz daukan ikuspegia monoglosikoa (García, 2009) izatea aurpegiatu izan zaio. Testuinguru euskaldunean ere, hiru hizkuntzen irakaskuntza modu banatuan egin izan da murgilketa ereduan. Baldintza soziolinguistiko eta didaktiko jakinetan, hizkuntza bakoitza bata bestearengandik bereizita irakastea egokia izan daitekeela ez dugu ukatuko. Baina hizkuntzen irakaskuntza integratuaren alternatiba ere interesgarria iruditzen zaigu, hizkuntza bat ikasterakoan ikasleak dakizkien beste hizkuntzez baliatzea lagungarria izan daitekeen neurrian.

Kasu honetan, proposamen didaktikoetan hizkuntza bakoitzaren papera eta presentzia modu egokian kudeatzea litzateke funtsezko auzia. Auzi honi heldu nahi dio, hain zuzen ere, doktorego tesi honek.

Ikasgela barruan ikuspegi bateratuan oinarrituta hizkuntzak irakastea gidalerro orokorren parte den arren, integrazio ikuspegi batetik bideratzea hizkuntzen irakaskuntza erronka bat da hezkuntza sistema euskaldunarentzat (Apraiz et al., 2012). Hain zuzen ere, euskara, gaztelania eta ingelesa irakasteko material didaktikoen esplorazio azterketa batek erakutsi du hizkuntzen trataera bateratua gelan inplementatzeko zailtasun handiak existitzen direla (Manterola et al., onartuta), izan ere, material horiek sarritan ez dute kontzeptu gramatikal eta testualen oinarritzko terminologia partekatzen, eta testu ekoizpena eta gramatika irakasteko ariketak modu ezberdinean antolatuta egon daitezke hizkuntzaren arabera. Edonola ere, egun nahiko ohikoa da testuinguru euskaldunean hainbat hizkuntza integratzen dituzten esku-hartze pedagogikoak diseinatzea; esku-hartze horien emaitzak erakusten dituzten ikerketak, aldiz, urriagoak dira (Idiazabal et al., 2015). Horrez gain, hizkuntzak modu banatuan irakasteari desafio egitearen ideia ondo planteatu beharreko auzia da, batez ere hizkuntza gutxitu bat existitzen den testuinguruetan. Hain zuzen ere, tesi honetan argudiatzen dugu ikasgela barruan hizkuntza bat baino gehiago integratzea modu kontrolatu eta planifikatuan egin behar dela; are garrantzitsuagoa da hori, hala ere, ikasleek hizkuntza nagusian (kasu honetan, gaztelaniaz) daukatenean hizkuntza-gaitasun handiena eta, inork gidatzen ez baditu, hizkuntza nagusia erabiltzera joko badute hizkuntza gutxituaren kaltetan (Baker & Wright, 2017).

Lehen kapitulua bukatzeko, gogorarazi nahi genuke ISEI-IVEIk egindako Ebaluazio Diagnostikoaren emaitzek argi erakusten dutela zein den euskal hezkuntza sistemak hizkuntzen irakaskuntzari dagokionez daukan erronka zentrala, alegia, ikasleen erreperitorio eleaniztuna sustatzerakoan, euskarako emaitzak hobetzea. Hori ikuspegi integratutik egin beharra dagoela zehazten du euskal curriculumak, baita Europako Kontseiluak ere, 3. atalean aipatu den bezala, hizkuntzen arteko transferigarritasunari etekina ateratzeko. Horretarako, aldiz, irizpide didaktiko fin eta eraginkorrak behar dira, ISEI-IVEI-ren ebaluazio-diagnostikoan ikusi dugunez, hizkuntza bakoitzaren konpetentzia-maila ebaluatzeko existitzen diren irizpideak lausoak baitira oso. Gauza bera ikusi dugu curriculumaren markoan eta irakaskuntza materialen azterketan ere (Díaz de Gereñu & García-Azkoaga, 2012), alegia ez dagoela zehaztasunik edota koherentzia teoriko lausoa ikusi dute adituek. Gure helburua irakaskuntza eleaniztuna eta hizkuntzen trataera integratuan oinarritzen den baliabide zehatz bat sortu, esperimentatu eta

frogatzea da, ikusteko ea didaktika fidagarria, ingeniaritza didaktikoak (Dolz & Idiazabal, 2013; García-Azkoaga & Idiazabal, 2015) aldarrikatzen duen moduan, posiblea den edo ez. Helburu horrekin, hurrengo atalean tesi honetarako oinarri hartu dugun marko teorikoa aurkeztuko dugu.

II. KAPITULUA

HIZKUNTZEN DIDAKTIKARAKO MARKO TEORIKOA: INTERAKZIONISMO SOZIO-DISKURTSIBOA (ISD)

Sarrera

Datorren kapituluan baliabide didaktikoaren esperimentaziorako baliatu dugun hizkuntzen didaktikarako marko teorikoa aurkeztuko dugu, interakzionismo sozio-diskurtsiboaren (ISD) (Bronckart, 1996/2004) printzipioak jarraitzen dituenak. Hainbat arrazoiengatik iruditu zaigu aproposa ISDak hizkuntzen irakaskuntzarako eraikitzen duen markoa tesi honetan baliatzea. Hain zuzen ere, ISDk marko teoriko-metodologiko baliagarria eskaintzen du hizkuntza jarduera espezifikoen irakaskuntza ikertzeko. Ikusiko dugun moduan, hizkuntzaren erabileraren unitate enpirikoak testuak (ahoz zein idatzizkoak) direla aldarrikatzen du ikuspegi honek, hau da, testuetan gauzatzen da hizkuntzaren erabilera, testuak dira unitate komunikatiboak, alegia. Hizkuntzaren erabilera erreal horiek *testu-genero* bidez irakasten dira, testu generoak antzeko ezaugarriak dituzten mintzaira jardueren multzoak direlarik. Testuan oinarritutako hizkuntzaren irakaskuntzari bide emateko, sekuentzia didaktikoa tresna proposatzen da. Hala ere, ikusiko dugunez, interakzionismo sozio-diskurtsiboaren teoriaren arabera egokitzapen batzuk egin behar zaizkio testu generoari irakaskuntza objektu bihurtzeko (transposizio didaktikoa), betiere tresna didaktikoaren balio zientifikoa bermatuko duten irizpideak errespetatuz.

1. Testuak eta testu-generoak

Gaur egun baieztapen argia da, hizkuntza, komunikazio tresna den aldetik, hura ikastea erabileran trebatzea dela. Helburua hizkuntzaren erabilera erreal irakastea baldin bada, interakzionismo sozio-diskurtsiboari (Bronckart, 1996/2004) jarraiki, erabilera erreal hori testuetan islatzen dela defendatzen da, hau da, testuak dira hizkuntzaren erabileraren forma enpirikoak:

“(…) la adhesión a una psicología interaccionista social nos lleva a abordar el estudio del lenguaje en sus dimensiones discursivas y/o textuales. Por una parte, los textos y/o discursos constituyen las únicas manifestaciones empíricamente constatables de las acciones comunicativas humanas (...), y, por otra parte, es en esas unidades globales donde se manifiestan con mayor nitidez las relaciones de interdependencia entre las producciones

lingüísticas y su contexto accional y social”. (Bronckart, 2004: 14).

Hiztunak, hizkuntza erabiltzean, testuinguru sozial eta kulturalako parametroetara egokitu behar du bere diskurtsoa, parametro horiek gizarte eta kultura batetik bestera aldakorrak baitira. Hizkuntza gizartean ematen diren komunikazio-egoera zehatzetan gertatzeak erakusten digu hizkuntzak alderdi soziala duela (Candelier et al., 2007). Vološinovek (1929/1973), García eta Wei-k (2014: 95) zitatutako moduan, zioen hizkuntzak bizia hartzen duela “in concrete verbal communication, and not in the abstract linguistic system of language forms, nor in the individual psyche of speakers”. Larringanen (2009) “mintzaira” kontzeptua ere gramatikarekin baino, erabilera eta komunikazioarekin dago lotuta, gaitasun komunikatiboarekin. De Pietro et al.-ek (2000) aldarrikatu moduan, mintzairaren eskurapena gizartean ematen diren giza-elkarrekintzen barruan ematen da eta, beraz, diskurtso-mailan gertatzen da. Hymesen (1972) “konpetentzia komunikatiboa” kontzeptuak ere erabilera testuinguruaren garrantzia azpimarratzen du.

Lehen esan dugu testua dela hizkuntza erabiltzearen emaitza enpirikoa (Bronckart, 1996/2004). Hizkuntzen ikas- eta irakaskuntza testuen lanketan oinarritzeari dagokionez, Larringanek (2009) Benvenisteren (1974) hitzak dakartza gogora: “(...) Concluimos que con la frase se sale del dominio de la lengua como sistema de signos y se penetra en otro universo, el de la lengua como instrumento de comunicación, cuya expresión es el discurso” (Benveniste, 1974. Larringanen zitatuta, 2009: 514). Beraz, Larringanen (2009) hitzetan: “Testua, esan bezala, ez da unitate linguistikoa, komunikazio-forma baino. Autonomia komunikatiboa duen unitate txikiena da” (Larringan, 2009: 515).

Testuak komunikazio egoera desberdinetan ekoizten direnez, askotarikoak dira testu motak eta horietako bakoitzaren antolaketa. Testu mota horiek gizarteko hiztun komunitate baten ezagutzak eraiki eta transmititzeko dituen modu desberdinak islatzen dituzte (Bronckart, 2005).

Testu enpiriko baten azterketa egiteko, Bronckartek (1996/2004), ISDren barruan testu arkitekturaren eredua proposatu zuen. Hiru dira testu arkitekturaren mailak: testuaren azpiegitura orokorra, testuratze mekanismoak eta ardura enuntziatiboaren mekanismoak. Maila bata besteari gainjartzearen eta hiru mailen arteko osotasun hori adierazteko hostopilaren irudia erabili zuen Bronckartek. Hauek dira testu arkitekturari buruz hitz egitean desberdintzen diren hiru mailak (Bronckart, 1996; 2013): lehenengoa, azpiegitura. Azpiegitura, alde batetik, eduki tematiko edo testuaren gaiaren planifikazio orokorraren ezaugarriek, eta

bestetik, mobilizatutako diskurtso motek eta dagozkien artikulazio motek osatzen dute; bigarrena, testuratze mekanismoak. Mekanismo hauek testuari koherentzia lineal edo tematikoa ematen laguntzen dute, konexio, izen kohesio eta aditz kohesioaren bidez. Konexioa testu antolatzaileen bidez egiten da; izen kohesioa unitate anaforikoen bidez, eta gai edo pertsonaia berriak aurkezteaz eta horiek berrartzeaz arduratzen da; eta aditz kohesioa aditz eta aspektuaren bidez egiten da; azkenik, ardura enuntziatiboaren mekanismoak aurkitzen dira, ahotsen eta modalizazioen kudeaketak hain zuzen ere, hots, testuan esaten dena noren erantzukizuna den eta testu ekoizleak esaten duen horrekiko zer jarrera hartzen duen adierazten duten mekanismoak.

Horrez gain, Dolz eta Schneuwlyk (2006) diote ahozko hizkuntzan testuratzeak gorputzaren inplikazioa ere hartzen duela bere gain: prosodia, erritmoa, arnasketa eta geldiuneak, gorputzaren keinuak, etab.

Orain aurkeztu dugun testu arkitektura hau testuen analisirako ez ezik, testuetan, testu-generoetan oinarritutako didaktikarako ere irizpide nagusia da, eta bereziki sekuentzia didaktikoen egituran ikusiko dugu arkitektura honen baliagarritasuna. Gure ikerketan ere aurrerago ikusiko den bezala, oinarri berbera erabiliko dugu ikertu nahi dugun baliabide didaktikoaren diseinurako eta emaitzen azterketarako.

Gizakiok, hitz egiten dugunean, testuak sortzen ditugu, hitzezkoak zein idatzizkoak. Hitzunek gizarte eta kultura baten barruan komunikazioaren esparruan ekoizten duten mintzaira-jarduera bakoitza testu-genero bata edo bestearen barruan sailkatuko da. Testu-generoak, hala, gizatalde baten hizkuntza-praktika egonkortuak dira:

“La realización efectiva de una acción verbal, en el marco de una formación social, proviene de la explotación de *formas comunicativas* en uso; en otros términos, necesita recurrir al acervo de los **géneros de texto**, que son constructos históricos. Esos géneros, que se encuentran disponibles en el *intertexto*, se adaptan permanentemente a la evolución de las exigencias sociocomunicativas y conllevan múltiples *indexaciones* sociales. Están organizados en *nebulosas*, de fronteras difusas y móviles, y por lo tanto no pueden ser objeto de una clasificación definitiva” (Bronckart, 2004: 68).

Testu oro pertsona batek momentu konkretu batean egindako ekoizpena den arren, “el acto de redacción, construcción de sentido, se inscribe en una época, en una cultura, se escribe en una lengua y de acuerdo con una intención particular.” (Dolz & Gagnon, 2010: 500),

beraz, testu generoak dinamikoak dira denborarekin aldatzen direlako, eta kultura edo hizkuntza batetik bestera desberdinak izan daitezke.

Testu baten ekoizpenean beti agintzen du “printzipio sozial” (Larringan, 2009: 521) batek, hau da, gizarte batean existitzen den gauzak esateko moduak, testu generoak, alegia. “Horrela, ‘testu librea’ espejismo bat litzateke” (Larringan, 2009: 529). Testu baten ekoizleak eskuragai dituen generoen artean testuinguruaren ezaugarrietara hoberen egokitzen dena hautatuko du (Bronckart, 2013). Horrela, eta Bronckartek (2013) dioenez, emaitza testu enpiriko berri bat izango da. “Una vez que ha hecho una elección tiene que someterse a las reglas que rigen la organización del tipo o género seleccionado: éstas ponen a su disposición un elemento de orden y previsibilidad. Aparecen las regularidades.” (Larringan et al., 2015: 150). Are gehiago, generoek duten norma-indarra ere azpimarratzen du Bakhtine-k (1984), hau da, enuntziatu bat, nahiz eta paregabea izan, ez da hartzen hizkuntza formen konbinazio libre gisa, forma batzuk existitzen direlako eta horiek kopiatzearen emaitza gisa baizik. Horrela, eta betiere Bakhtinen (1984) hitzetan, diskurtso-genero zehatz batek gidatzen du gure prozesu diskurtsiboa. Dolz eta Gagnonek (2010) aipatzen dute Jaussi (1975/1978) zor diogula “itxaropen horizonte generiko” (*horizonte de expectativa genérica/ horizon d'attente générique*) baten nozioa.

2. Testu-generoak hizkuntzen irakaskuntzan

Azaldu berri dugun moduan, komunikazioa ahalbidetzeko, gizarte bakoitzak testu-molde nahiko egonkorak sortzen ditu, generoak, alegia, hizkuntza praktiken elementu formalak eta erritualak egonkortzen dituztenak. Beraz, hitz egiten ikastea egoera komunikatibo desberdinetan hitz egiteko baliabideez jabetzea da, hau da, testu-generoek (Dolz & Schneuwly, 2006).

“En relació a l'enorme variabilitat de les pràctiques lingüístiques, els gèneres poden considerar-se com unes entitats intermediàries que permeten establir els elements formals i rituals de les pràctiques. D'aquesta manera, el treball sobre els gèneres dota els alumnes de mitjans d'anàlisi de les condicions socials efectives de producció i de recepció dels textos. A més a més, subminstra un marc d'anàlisi dels continguts, de l'organització del conjunt del text i de les seqüències que el formen, així com de les unitats lingüístiques i de les característiques específiques de la textualitat oral” (Dolz & Schneuwly, 2006: 83).

Ildo honetatik abiatuta, Dolz eta Idiazabalen (2013) ustez, hezkuntza eleaniztunak ikasleak hizkuntzen erabileran gaitzea izango du helburu: “Hablaemos de enseñanza bi/plurilingüe cuando el objetivo perseguido por dicha enseñanza es la capacitación de los estudiantes para el uso de más de una lengua.” (Dolz & Idiazabal, 2013: 12). Gramatika erabileraren mesedetan eta bereziki testu generoak ulertu eta ekoizteko mesedetan irakatsi beharko litzateke, eta ez modu isolatuan (Idiazabal et al., 2015). Izan ere, testu generoetan oinarritutako pedagogian hizkuntza-ezaugarriak modu esplizituan ikasten dira, baina soilik genero bakoitzarentzat pertinenteak diren ezaugarriak, ezaugarri horiez zentzua ematen dieten testuinguruetan jabetzeko (Rose, 2006). Irakasgaietako edukia jorratzen den testu-generoen egitura eta ezaugarrien inguruan planteatuz, irakasleak kontzienteago bihurtzen dira hizkuntzak beraien ikasgaietan jokatzen duen rolaz (Whittaker & García Parejo, 2018). Hymesen duela 40 urtetako aipua ere ildo berean koka daiteke: “There are rules of use without which the rules of grammar are useless” (Hymes, 1979: 14). Hau da, hizkuntzen didaktikan ez da bakarrik hizkuntzaren ikuspegi estrukturala kontuan hartzen, hizkuntzaren erabilera da garrantzitsua.

Eskolan jarduera linguistikoa fikziozkotu egiten da, normalean gertatu ohi den testuingurutik kanpo gertatzen delako eta irakaskuntza/ikasuntza helburuekin ezartzen delako. “Testuinguruaren parametroak -esataria, hartzailea, helburua eta kokaleku soziala-hein batean bakarrik dira ekoiztearen eta berehalako hartzearen instantzia fisiko eta sozialak eta ‘fikziozkotu’ egin behar dira, ekoizpenaren norabidearen oinarri izango badira.” (Schneuwly, 2007: 143). Horrela, Dolz eta Schneuwlyk (1998/2016) diote irakasleak komunikazio egoera esanguratsuetan jarri behar dituela ikasleak, ikasleak komunikazio egoera desberdinak hobeto menperatzeko tresnez baliatzeko.

“La particularité de la situation scolaire réside dans le fait suivant qui complexifie fortement la réalité: il y a un dédoublement qui s’opère, où le genre n’est plus seulement outil de la communication, mais en même temps objet de l’enseignement/ apprentissage. L’élève se trouve nécessairement dans un espace du *comme si*, où le genre fonde une pratique langagière qui est nécessairement en partie fictive puisqu’elle est instaurée à des fins d’apprentissage” (Schneuwly & Dolz, 1997: 30).

Generoen aniztasuna kontuan izanda, askotan zein irakatsi da zalantza. Bakhtine-k (1984) lehen eta bigarren mailako generoak desberdintzen ditu: lehen mailakoak egunerokotasunean erabiltzen direnak dira, eta bigarren mailakoak diskurtso literario, zientifiko edo ideologikoari dagozkio, konplexuagoak dira eta landuagoak. Dolz eta Schneuwlyk

(2006) diote, eta H1eko ahozkoaren inguruan dihardute, eskolak testu genero formalak irakatsi behar dituela, izan ere, testu-mota horiek menderatzeko norbere jokabidearen kontrol kontziente eta borondatezkoagoa behar da.

Eskolan zein testu-genero landu erabakitzeak zalantzak sor ditzake. Dolz eta Schneuwlyk (2006) ahozkoaren irakaskuntzarako genero formalak hobesten dituzte, nolabait lehen hizkuntzan, genero arruntak eskolatik kanpo ikasten direlako, eta, aldiz, formalek gogoeta eta trebatze gehiago eskatzen dutelako; bestalde, hizkuntza idatziarekin ere lotura estua izaten dute, horregatik aipatutako gomendioa. Ortega eta Anakabek (2015), bere aldetik, zenbait irizpide ematen dituzte euskal irakaskuntza eleaniztunerako testu-generoen aukeraketa eta/edo programazioa egiteko orduan:

- diskurtso aniztasuna: testu sozialen lagin adierazgarria izan behar da, ardatz komunikatibo desberdinak dituen: argumentazioa, azalpena, narrazioa, eta abar.
- ziklo eta etapa bakoitzerako zehazten diren helburuen barnean dauden erabilera sozialak, hau da, beharizan akademikoetatik eratorritako erabilera sozialak.
- testuinguru soziolinguistikoak bermatzen ez dituen erabilera sozialak. Gure kasuan, eskola Euskal Herriko zein testuinguru soziolinguistikotan kokatzen den kontuan izanda, testu genero desberdinak landu beharko lirakeke baina, oro har, euskaraz genero akademiko eta pertsonalek hartzen dute garrantzi berezia, inguruak ez duelako bermatzen ikasleek horiek menperatzea; gaztelaniaz erabilera formalak, harreman instituzionaletarako testu-generoak, izan ere, erabilera informalekoak testuinguruak bermatzen ditu; ingelesez, aldiz, bestelako genero motak, ikasleen eguneroko bizitzatik hurbilago daudenak, esaterako.

Testuek hezkuntzako lege dokumentuetan duten lekuari dagokionez, Heziberri 2020 Legearen Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoak ere aldarrikatzen du hizkuntzen i(r)akuntza testuen bidez egiten dela, eta hizkuntzaren alderdi komunikatiboa azpimarratzen du:


“Printzipio horiek beharrezkoa egiten dute komunikazio-proiektu esanguratsuen bidez irakastea, testua delarik oinarrizko komunikazio-unitatea; ikaskuntza sekuentzia didaktikotan egituratzea, komunikazio-lan zehatz bat lortzera bideraturik, eta prozedurazko edukiak lehenestea, *egiten jakitea*, eta ez adierazpenezko jakintza hutsa” (33).

2.1. Transposizio didaktikoa eta eredu didaktikoa

Testu generoekin eskolan lan egiteak transformazio batzuk kontuan hartu behar izatea eskatzen du: hizkuntza praktikek eskola testuinguruan tratamendu didaktikoa jasaten dute (Schneuwly & Dolz, 1997). “La definición de las dimensiones enseñables de los géneros supone una toma de distancia y una ruptura parcial con las prácticas de referencia para constituir un medio que facilita su apropiación.” (Dolz & Gagnon, 2010: 511), hau da, generoen alderdi irakasgarriak identifikatzeak halaberrez eskatzen du erreferentziatzko hizkuntza praktika sozialengandik haustura bat eta ikaste egoerara egokitze bat. Helburu zehatz batzuk eta hizkuntzaren izaera testuala eta generikoa kontuan hartuz egin behar da irakaskuntza; beraz, testua komunikaziorako baliabidea dela ahaztu gabe, eskolako egoerak eskatzen dituen egokitzapenak egin behar dira. Horri transposizio didaktikoa deritzo.

Transposizio didaktikoa komunitate zientifikoak ekoiztutako ezagutzak irakasgarri bihurtzeko beharrezko egokitzapenak egitea da (Dolz & Tupin, 2011). Hain zuzen ere, Chevallard-ek (1985: 49) eskema honen bidez laburbiltzen du transposizio didaktikoa. Bertan, erreferentziatzko ezagutza teorikoak irakasteko objektu bihurtzeko prozesua laburbiltzen du.

1. Taula: Transposizio didaktikoaren laburpen-taula.



Lehen fase batean, ezagutza zientifikoak eraikitako ezagutzatik (*objet de savoir*) irakaskuntzarako egokiak diren eduki batzuk hautatzen dira (*objet à enseigner*). Bigarren fase batean, eduki hauek irakaskuntza objektu (*objet d’enseignement*) bihurtzeko egokitu egiten dira. Irakaskuntza objektu horiek egingarriak izan behar dute ikasleentzat eta barne koherentzia bat eduki behar dute. Campsi (2005) jarraiki, bi dira ezagutzen transposizio honetan eragiten duten faktore garrantzitsuenak: alde batetik, ezagutza zientifiko eta irakaskuntza objektuaren arteko testuinguru eta helburu ezberdintasuna; kasu honetan, ezagutzen transformazioa bertestuinguraketa bati dagokio; beste alde batetik, ikasleek modu progresiboan bereganatzen dituzte ezagutzak, eta horrek sekuentziazio prozesu garrantzitsua suposatzen du, eta horrek, aldi berean, ezagutza praktika espezializatuetan banatzea. Adibidez, ahozko azalpena testu generoaren inguruko artikulu zientifiko ugari dago (Schneuwly & Dolz, 1997; García-Azkoaga, 2007), baina testu genero hau ikasgelan ezin da besterik gabe

inplementatu, baizik eta egokitzapenak egin behar dira: genero horren eduki irakasgarriak zehaztu eta eduki horiek ariketetan banatu.

Testu generoaren transposizio didaktikoa egiteko, Dolz eta Schneuwlyren (2006) ustez, testu generoaren eredu didaktikoa eraikitzea lagungarria da: “La elaboración de un modelo didáctico del género (Dolz & Schneuwly, 2006) supone la identificación de las dimensiones enseñables que pueden producir actividades y secuencias de enseñanza” (Dolz & Gagnon, 2010: 510-511). Ahozko eta idatzizko generoen osagarri irakasgarriak irakaskuntzarako formalizatzeari egiten dio erreferentzia (Dolz & Gagnon, 2010). Irakatsi daitezkeen dimentsio horiek deskribatzen eta esplizitatzen direnean, horiek irakastea errazago bihurtzen da, baita ebaluatzea ere (Dolz & Gagnon, 2010).

“La modelización didáctica de los géneros textuales tiene como marco de referencia el horizonte de expectativa, es decir, lo que se espera que contenga el texto: las unidades lingüísticas que caracterizan su organización y le dan linearidad, el contexto de comunicación en el que surge y el uso que tiene el texto dentro de una comunidad. El modelo didáctico nos permite identificar los diferentes componentes textuales susceptibles de ser enseñados.” (Dolz et al., 2013: 62).


Testu generoa baliabide didaktiko egiteko orduan, Dolz eta Gagnonek (2010) zenbait osagarri edo kategoria proposatzen dituzte, hain zuzen ere, irakaskuntzak behar duen egokitzapena bideratu ahal izateko: egoera komunikatiboa, unitate tematikoak, egituratzea edo planifikazioa, testuratzea eta unitate paralinguistikoak.

3. Sekuentzia didaktikoak (SD)

Aipatu dugu interakzionismo sozio-diskurtsiboan oinarritutako ereduan ikasleei hizkuntza testu generoen bidez irakasten zaiela, testuak baitira hizkuntza jardueraren produktu enpirikoak. Hala, testu-generoak irakasteko baliabide didaktiko zehatza proposatu da: sekuentzia didaktikoa (Dolz & Schneuwly, 1998/2016). Hona hemen sekuentzia didaktikoaren egitura:

1. Irudia: Sekuentzia didaktikoaren osagaiak.

Sekuentzia didaktikoa



(Dolz et al., 2001: 7). Egileak egokitua.

Honela definitzen du Bronckartek sekuentzia didaktikoa:

“La secuencia didáctica se puede definir como un conjunto de periodos de enseñanza (o de “lecciones”), agrupados en el tiempo y organizados de manera sistemática alrededor de una **actividad lingüística erigida en proyecto de clase explícita**, y articulados en torno a una finalidad de aprendizaje común y homogénea”. (Bronckart, 2013: 40).

3.1. Sekuentzia didaktikoaren faseak

Sekuentzia didaktiko batek hainbat etapa ditu (Dolz et al., 2001):

1. Egoeraz jabetze etapa: ikasleek komunikazio egoeraren eta egingo duten hizkuntza jardueraren irudikapena eraikitzen dute. Bi oinarritzko dimentsio ditu:

- Ondo definitutako komunikazio egoera bat aurkeztea. Ikasleei oso modu esplizituan proposatu behar zaie proiektua, komunikazio egoera zein den ahalik ondoen uler dezaten. Galdera hauei erantzuteko informazioa ematen zaie ikasleei: zein izango da landuko dugun testu generoa?, nori zuzentzen da ekoizpena?, ze forma hartuko du ekoizpenak?, nork hartuko du parte ekoizpenean?. “En altres paraules, es tracta de definir un projecte de comunicació tan precís com siga possible i que cal realitzar al final d’una seqüència” (Dolz & Schneuwly, 2006: 119).

- Ekoiztuko diren testuen gaia eta moldea, hain zuzen ere, testu generoa, prestatzea. Ikasleek jakin behar dute zein gairen eta nolako testu molde, edo egituraketaren gainean egingo duten lan. Adibidez, eredu gisa funtziona dezakeen testu bat irakurri edo entzun dezakete ikasleek eta testuaren gaiaren eta testuaren gaineko lanketa bat egin.

Egoeraz jabetze etapak, beraz, proiektu komunikatiboa ezagutzeko eta horri lotuta doan hizkuntz ezagutza ikasleei aurkezteko aukera ematen du. Ahal den neurrian, sekuentzia didaktikoak klaseko proiektu baten barruan sartzen dira, izan ere, horrek emango die esanahia eta pertinentzia ikaskuntza jarduerari. Proiektu batek asmo komunikatibo argi bat daukan ekoizpen ariketa bat hartzen du beregain; hori dela eta, ekoizpenaren egoera komunikatiboaren parametroak zehaztu behar dira. Proiektu batek helburu zehatzak eta esplizituak ditu, eta helburu horietan oinarritu daitezke ekoizpena ebaluatzeko irizpideak (Camps, 1996).

2. Hasierako ekoizpena:

Ikasleek irakaskuntza objektu izango den testua ekoiztuko dute. Hasierako ekoizpena sekuentzia didaktikoaren lehen ikaskuntza unea da: ikasleek ikaskuntza objektuari dagokionez gainditu behar dituzten arazoengatik inguruan ikasten dute. Ikasleek haien mugen aurrez aurre jartzean, haien arazoengatik inguruan are kontzientzia handiagoa hartuko dute. Ikasleen hasierako testua sekuentzia didaktikoaren elementu erregulatuak izango da (Dolz & Schneuwly, 2006; Larrigan & Idiazabal, 2012), izan ere, hasierako ekoizpen horren bidez ikasleek jada dakitenaren inguruan eta hobetu beharreko alderdien inguruan kontzientzia hartzen dute (Dolz eta Schneuwly, 2006).

De Pietro eta Dolzek (2007: 159) diote hasierako ekoizpen horrek “jakintzen hasierako egoera kokatu eta esku-hartze didaktiko baterako arlo pertinenteak definituko” dituela. Irakaslearentzat, hasierako ekoizpen hauek behaketa momentu pribilegiatuak dira, irakasleari sekuentzia ikasleen benetako gaitasunetara egokitzea ahalbidetzen baitiote. “Sekuentzia didaktikoak errorearen identifikazioa errazten du eta, batez ere, bere aprobetxamendua ikaskuntzak garatzeko eta ezagutza eraikitzeko” (García Parejo, 2011: 22).

Hasierako ekoizpena irakaslearen kontsigna batek bideratzen du. Beharrezkoa da kontsigna ondo formulatzea eta bertan egoera komunikatiboaren ezaugarriak ondo zehaztea, hasierako ekoizpena asko baldintza baitezake. Honela definitzen dute Garcia-Azkoaga eta

Manterolak (2016: 16) kontsigna: “Entendemos la consigna como un conjunto de instrucciones en las que se expresan claramente cuáles son los objetivos y el contexto de la actividad comunicativa, incluidos los parámetros de la situación de comunicación.”

3. Moduluen fasea:

Modulu edo tailerren aukeraketa sekuentziaren helburuak lortzeko ikasleek dituzten zailtasunen arabera egin behar da, hau da, proiektuaren helburuen arabera aukeratu behar dira tailerrak, alegia, landu beharreko ariketak (García-Azkoaga & Idiazabal, 2015). Idatzizko edo ahozko testu bat ekoiztearen jarduera modulu desberdinetan banatzen da, elementu desberdinak banan-banan lantzeko. Moduluetan zehar landu beharreko arazoek testu ekoizpenaren mailekin dute zerikusia, hain zuzen ere, ISDaren ardatz den testuaren arkitekturaren mailak hartzen dira erreferentzia gisa:

- ✧ Komunikazio egoeraren irudikapena: ikasleak ikasi behar du testuaren hartzailearen, helburuaren, bere estatusaren eta generoaren ahalik eta irudikapen zehatzena egiten.
- ✧ Testuko edukien eta informazioen lanketa: ikasleak edukia bilatzeko, lantzeko edo sortzeko informazio iturriak ezagutu behar ditu.
- ✧ Testuaren planifikazioa: testu genero bakoitzak zurrunagoa edo malguagoa izan daitekeen egitura konbentzionala dauka.
- ✧ Testuratzea: ikasleak bitarteko linguistiko eraginkorrenak hautatu behar ditu testuari koherentzia tematikoa eta pragmatikoa emateko. Gramatika unitateak ere lantzen dira testuratze moduluetan: aditz formak, testu-antolatzaileak, eta abar.

Diseinatu ohi diren ariketen artean, hauek aipa daitezke: ereduzko testuen behaketa eta azterketarako ariketak; testuen ekoizpenerako ariketa sinplifikatuak: testu elaborazioaren zati konkretu batean zentratu daiteke, testu batean falta den zati bat sartu, eta abar. Modulu bakoitzaren bukaeran, modulu horretan testu-generoaren inguruan landu diren nozioak biltzen dituen oharren koaderno modukoa erabiliko da sintesi eran, kontrol zerrenda, hain zuzen ere.

Ikasleek moduluetan egiten dituzten ariketen bidez testu ekoizpenaren alderdi batzuk kontzienteki kontrolatu ditzakete, baita testu baten ekoizpenak eskatzen dituen gaitasun

linguistiko-diskurtsiboak automatizatzea ere posible da (Dolz & Schneuwly, 2006). Agostok eta Picók (2011: 79) azalpen testuak lantzeko sekuentzia didaktikoen inguruan halaxe diote:

“Es decir, que a lo largo de todo el proceso, los alumnos pueden adquirir una mayor conciencia de las particularidades de la escritura de los textos expositivos, y esto se ha debido al esfuerzo de explicitación y de instrucción alrededor de todos los elementos que intervienen en el proceso de escritura a nivel cognitivo y textual”.

Horrek ikasleen autoerregulazioarekin du lotura.

4. Azken ekoizpena:

Ikasleek modulu

Amaierako ekoizpenean hartzen du garrantzia lehen aipatu den kontrol zerrenda horrek:

✦ Bertan, lortu beharreko helburuak aipatzen dira, eta horrela, norberaren ikaskuntza prozesuaren kontrola izatea ahalbidetzen du.

✦ Berrikuspenean eta berrekoizpenean testu ekoizle gisa norbere jokabidea erregulatzeko eta kontrolatzeko tresna gisa balio du.

✦ Egin diren aurrerapenak ebaluatzea ahalbidetzen du.

3.2. Sekuentzia didaktikoak: bermeak eta erronkak

Larringan eta Idiazabalek (2012) propietate teoriko eta epistemologikoak aitortzen dizkiote SDari, horrek ziurtasuna ematen diolarik harekin lan egiten duenari. Sekuentzia didaktikoaren barruan ikaslearen esku jartzen diren ariketen pertinentzia uneoro ebaluatu ahal izateak ematen dio oinarri zientifikoa sekuentzia didaktikoa tresnari. Hasiera eta amaierako ekoizpenen arteko konparaketaren bidez ikus dezakegu ikasle bakoitzak zer ikasi duen, baita ere zein punturaino izan diren egokiak sekuentzia didaktikoaren barruan planteatutako ariketak (Díaz de Gereñu, 2017). Zentzu horretan, sekuentzia didaktikoak ematen duen fidagarritasuna aipatzen du Díaz de Gereñuk, gero ikusiko dugun moduan.

3.2.1. Testu generoetan oinarritutako sekuentzia didaktikoa eta irakasleen prestakuntza

Ohiko irakasle batek testu generoetan oinarritutako sekuentzia didaktikoak gelaratzeko orduan aurkitzen dituen erronkak zein izan daitezkeen ikusiko dugu ondorengo lerroetan.

Mielgok (2012) Bizkaiko hiru zentro desberdinetan, HHn, LHn eta DBHko hizkuntza ikasgaietan sekuentzia didaktikoekin egindako esku-hartzearen emaitzak aurkezten ditu, ikasleek metodologia hori jarraitu ondoren bereganatu zituzten testu-mailako edukiei dagokienez. Sekuentzia didaktikook gelan inplementatzeko irakasleek formakuntza saioak jaso zituzten. Hain zuzen ere, ikerketa honek berretsi zuen sekuentzia didaktikoak eduki testual eta linguistikoen jabeakuntzari dagokionez eraginkortasun-maila altua frogatzen duela, baita ere azpimarratzen du emaitzen gaineko kontrol fidagarria izatea ahalbidetzen duela.

Sekuentzia didaktikoak epe luzean arrakastatsuak eta eraginkorrak izango dira ala ez, irakasleek sekuentzia didaktikoen metodoa testuinguru didaktiko bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuz inplementatzeko duten abileziaren arabera (Bronckart, 2013). Horrek lotura dauka aurrerago aipatuko ditugun balio didaktikoaren printzipioetako batekin, egingarritasunarekin alegia, irakaslea gai izan behar baita tresna didaktikoa ikasgelan martxan jartzeko.

Sekuentzia didaktikoen metodologiak eskatzen duen zehaztasunarekin inplementatzeko beharrezkoa da irakasleak testuen azterketa sozio-diskurtsiboan formatzea (Anakabe et al., 2013). Irakasleen etengabeko prestakuntzaren barruan egindako behaketa oinarrituta, Anakabek et al.-ek (2013) lau ardatzen inguruan sailkatzen dituzte irakasleek SDen metodologiarekin dituzten erronkak:

1) Testuak eta ikaskuntza eduki linguistiko eta diskurtsiboak hautatzea. Honen barruan beharrezkoa aipatzen dute irakasleak diskurtsioen analisisan trebatzea, testuen genero diskurtsiboa zein den eta testu genero hori ekoizteko beharrezkoak diren estrategia eta abilezia diskurtsiboak ezagutzeko.

2) Testu ekoizpenerako kontsignak diseinatzea: arazo-egoerak sortzen ikastea, ikasleen zailtasunetatik abiatuta.

3) Ezagutza berriak barneratzeko ariketak proposatzea. Ikaskuntza ariketak modu sekuentziatuan programatzen ikasi behar dute irakasleek: irakasleek testu genero bakoitzaren berezgarri diren gaitasun diskurtsiboak identifikatzeko abilezia garatu behar dute. Aldi berean, horiei buruz hitz egiten ikastea ere aipatzen dute.

4) Ebaluazio irizpideak zehaztea.

García-Azkoaga eta Manterolak (2016) LHko zenbait irakaslek, formakuntza saio batzuen ondoren, diseinatutako zazpi (sei euskaraz eta bat ingelesez) sekuentzia didaktikoren egokitasuna ebaluatu zuten. Trebetasunen artean, irakasleek badakite sekuentzia didaktikoak proiektu komunikatiboetan ardaztu behar direla eta hizkuntza ekoizpena irakasteko proiektu komunikatiboak sortu behar direla, horrek hizkuntzaren lanketari norabide komunikatiboa ematera bideratzen ditu. Baita ere aipatu behar da SDak osatzen dituzten elementu guztiak agertzen direla aztertutako SDetan. Hala ere, irakasleen ezagutzan hainbat hutsune identifikatu zituzten: besteak beste, ez da modu zehatzean esplizitatzen zein den sekuentzia didaktikoaren barruan ekoizteko proposatzen den testu generoa; proiektu bidezko irakaskuntzaren funtzionamendua ezagutzen duten arren, proiektu komunikatiboa ez da beti modu esplizituan formulatzen; maiz kontsigna falta da edo kontsigna partzialak edo kontsigna ez nahikoa zehatzak ekoizten dituzte; ereduak testu gisa testuinguru komunikatiboaren ezaugarriak agertzen ez dituzten testuak aurkezten dizkiete ikasleei; sekuentzia didaktikoko ariketen eta testu generoaren ezaugarri testual eta linguistikoaren artean lotura falta da; testu arkitekturan oinarritutako ariketak diseinatzeko zailtasuna nabarmena da.

Sekuentzia didaktikoen esperimentazioa ikertu ahala, kontzeptu eta ikergai berriak garatu dira ISDren barruan, ondorengo atalean aipatuko dugun moduan: batetik, irakaskuntzarako baliabideen balio didaktikoaren azterketa; eta bestetik, irakaslearen keinu didaktikoen azterketaren bidez, sekuentzia didaktikoen gelaratzean objektu irakatsiaren ikerketa.

3.3. Sekuentzia didaktikoen balio didaktikoa

Testu generoaren ereduak generoaren ezagutza teorikoak sistema didaktikoaren lehenetasunetara egokitzen ditu (Bronckart, 2013), betiere irakaskuntza baliabideen balio didaktikoaren hiru irizpideetan oinarritzen delarik (Dolz & Schneuwly, 2006):

1. Legitimazioa: arrazoizkoa da testu generoa lantzea, testuak izaera generikoa dauka.
2. Pertinentzia: testu generoa lantzeko ariketek lotura estua dute generoarekin.
3. SDaren atalek elkarrekiko solidarioak izan behar dute, elkarrekin osotasun bat eginez.

Sénéchal eta Dolzek (2019) beste bi printzipio gehitzen dizkiote balio didaktikoari, alde batetik, egingarritasuna, hau da, testuinguru didaktiko batean irakasleak sekuentzia didaktikoa inplementatzeko izan ditzakeen zailtasun eta erronkak, eta bestetik, sekuentzia didaktikoak

ikasleei beraien ikaskuntzan aurrera egiteko ematen dien aukera.

Balio didaktikoaren printzipioak kontuan hartzeak lotura estua dauka transposizio didaktikoarekin (Schneuwly et al., 2009). Espezifikoki, egingarritasunaren printzipioak, izan ere, irakasleak bere baliabideen bidez –tresna eta diskurtsoak- irakatsi beharreko objektua objektu irakasgarri bihurtzen du, beraz, objektua irakasteko beharrezko egokitzapenak egiten ditu, lehen aipatu dugun moduan, bere tresna eta diskurtsoaren bidez sekuentzia didaktikoaren inplementazioan aurkitzen dituen zailtasun eta erronkei aurre egiteko.

3.4. Irakaslearen jardunaren analisisa keinu didaktikoen bidez

Esan bezala, tresna didaktikoen balio didaktikoaren barruan, egingarritasunak irakasleak sekuentzia didaktikoa inplementatzerako orduan dituen erraztasun eta zailtasunei egiten die erreferentzia, eta horrek, aldi berean, irakasleak irakaskuntza objektua irakasgarri bihurtzeko erabiltzen dituen estrategia edo diskurtsoarekin du zerikusia:

“Chaque objet à enseigner se présente en effet, à l’intérieur de la discipline, comme un ensemble de dispositifs et de discours –les outils de l’enseignant- qu’actualisent, que rendent vivant les gestes dans une situation réelle, transformant ainsi l’objet à enseigner en objet enseigné” (Schneuwly, 2009: 42).

Hau da, eta Schneuwly (2009) jarraiki, irakaslearen keinu didaktikoei irakaskuntza objektuaren transposizio didaktikoa egiten laguntzen dute. Irakaslearen keinu didaktikoen analisisa irakaslearen jarduna ulertzeko ikerketa saiakeren barruan kokatzen du Wirthnerrek (2017). Tardif eta Lessard-en (1999) oinarrituta, Wirthnerrek (2017) dio irakasleak lan estrukturalaz gain (lan instituzionala, errutina ofizialak), lan intuitiboagoa ere egiten duela (lan inprobisatua, ikasleekin elkarrekintzak); autore berak, Leroi-Gourhan-en (1964) oinarrituta, esaten du tresna didaktikoa ez dela existitzen, teknikoki eraginkorra egiten duten keinuen bidez baizik.

Irakaslea, prozesu komunikatibo baten bidez, irakaskuntza objektua ikasleentzat ulergarri egiten saiatzen da, irakasle-ikasle-objektu interakzionaren bidez. Schneuwlyk et al.-ek (2009) hiru tresna-mota bereizten dituzte: lehenik eta behin, diziplina espezifikoko bati ere ez dagozkion tresnak, eskolari orokorrean baizik; bigarrenik, eskolako materiala: ariketak, manualak, eta abar; eta, azkenik, eskolak irakasle objektuari buruz eraikitako diskurtsoak: nola hitz egiten den objektuari buruz, nola aurkezten den, horri buruzko galderak egitea, etab.

Wirthnerrek irakasleak gelan ekoizten duen diskurtsoa testu genero gisa hartzen du:

“(…) si de nombreux outils sont matérialisés par des supports tels que le manuel, la fiche, le cahier, d’autres le sont par la parole et peuvent être considérés, selon nous, comme des genres de texte (oraux et écrits) de l’enseignement: le questionnement, l’explication, la présentation, etc. Au sein de la classe, utilisés par l’enseignant, au service de l’enseignement et de l’apprentissage d’objets disciplinaires bien définis, ils acquièrent ainsi des caractéristiques particulières qui en font justement des genres de la profession enseignante.” (Wirthner, 2017: 30).

Schneuwlyk (2009) irakaslearen lanaz hitz egiten du irakaskuntza objektuaren eraikuntza gisa, eta esaten du irakaslearen lanaren helburua ikasleen prozesu psikikoak sustatzea dela, hau da, irakasleak ikasleek objektuari buruz dituzten ezagutzak transformatzeko baldintzak sortzen ditu. Eta irakasleak ikasleen sistema psikikoan eragin dezake soilik ikasleekin elkarreraginean.

Irakasleak erabil ditzakeen keinu didaktikoen artean, Schneuwlyk (2009) lau bereizten ditu: tresna didaktikoa gelan martxan jartzea, erregulazioa, instituzionalizazioa eta memoria didaktikoa sortzea. Tresna didaktikoa gelan presente egiteak esan nahi du irakaskuntza objektua klasean aurkeztea. Hori kontsigna, instrukzio edota galdera baten bidez egiten da, adibidez; erregulazioa irakasleak zuzentzea da, objektuaren eraikuntzan aurrera egin dezaten: “Obstacles et apports influencent, par les interactions qu’elles suscitent avec l’enseignant, le déroulement de la construction de l’objet enseigné en classe” (Schneuwly, 2009: 38); instituzionalizazioa da ikasleei erakustea ikasi duten hori diziplina baten barruan ikasi behar dituzten ezagutzei dagokiela; azkenik, memoria didaktikoa sortzea da objektuaren elementu guztiak erlazionatzea, osotasun bat osatzeko, ikaskuntzari zentzua emateko, adibidez, gogorarazpena eta antizipazioa. Irakasleak ikasgelan erabiltzen dituen keinuak ez ezik, ikasgela barruan hizkuntzak nola kudeatzen dituen eta hizkuntza alternantziak egiten duen erabilera ere irakaslearen jardunaren beste aztergai bat da (Dolz, 2011).

Testu-generoen irakaskuntzarako sekuentzia didaktikoak teorizatu eta esperimendatu ahala, interakzionismo sozio-diskurtsiboan garatu den ikerketa ildo bat *objet enseigné*ren ikerketa da eta, horren barruan, irakaslearen keinu didaktikoak aztertzen dira (Schneuwly et al., 2009; Gagnon et al., 2019). Tesi honetan arreta nagusia ikasleen gaitasunetan jarri den arren sekuentzia didaktiko hirueledun baten esperimendazioaren bidez, baita ere, modu

xumeagoan, irakaslearen keinuen analisi bat egingo da ikasgelan hizkuntzen trataera integratuaren eta hizkuntzen arteko elkarreraginaren gauzatzea aztertzeko asmoz.

Bigarren kapitulua borobiltze aldera, azpimarratuko genuke kapitulu honetan hizkuntzen didaktikarako marko teorikoa eraiki dugula, interakzionismo sozio-diskurtsiboan (ISD) oinarritzen dena. Hiru printzipio nagusi atera ditugu ISDtik: testua da unitate komunikatibo oinarrizkoena, beraz, hizkuntzaren irakaskuntzarako baliabide zentrala; testu-generoa testuak irakatsi ahal izateko heldulekua da, mugagabea den testu aniztasunean ez galtzeko; testu generoan oinarritutako sekuentzia didaktikoa da testuaren arkitektura eta baldintza didaktiko nagusien bermea dituen tresna. Sekuentzia didaktikoen esperimendazioan aurrera egin ahala, bi ikergai berri sortu dira ISDren barruan: balio didaktikoa eta sekuentzia didaktikoen inplementazioan irakaslearen keinu didaktikoak aztertzeko.

III. KAPITULUA

IKASLEEN GAITASUN ELEANIZTUNA ETA HIZKUNTZEN ALTERNANTZIA IKASGELAN

Sarrera

Gure tesiaren helburua, aipatu bezala, irakaskuntza eleaniztunerako baliagarria izan daitekeen baliabide didaktiko bat esperimentatu eta baliabidearen ekarpena aztertzea da. Esan bezala, euskara ardatz hartzen duen eleaniztasuna da gure testuingurua, eta hori da EAEko hezkuntza legediak arautzen edo hobesten duena. Europan ere irakaskuntza eleaniztunaren aldeko gomendioa egiten dela ikusi dugu, eta gure ustez, hizkuntza gutxituetako komunitateek ere bide hau izan dezakete bere hizkuntza propioa biziberrituz eleaniztasunaz aberasteko. Ugariak dira irakaskuntza eleaniztuna bideratu ahal izateko egin izan diren proposamen didaktikoak (Candelier, 2010; García-Azkoaga & Idiazabal, 2015). Horietako batzuk aurkeztuko ditugu, dela sekuentzia didaktiko eleaniztun batzuk erreparasatuz edota translanguaging ildoak (García & Wei, 2014) eskaintzen dituen aukerak gogoratuz. Modu kritikoa egiten ahaleginduko gara, alegia, arestian ikusi ditugun printzipio teorikoen argitan behatuko ditugu, zenbaiteraino baliagarriak iruditzen zaizkigun adieraziz.

Aipatu da EAEko legediak hizkuntzen irakaskuntza integratua edo HTB proposatzen duela. Integrazio hori bideratzeko hizkuntzen txandakatze edo alternantzia bat gertatuko dela irudikatzen dugu, baina alternantzia hori oso era ezberdinetan gerta daiteke edo antolatuta daiteke. Nolabait sinplifikatzearen, pentsa dezakegu era espontaneoan emango dela, ikasleak eta irakasleak ere hein handi batean hirueledunak-edo badirelako. Bertako bi hizkuntzen artean, alegia euskara eta gaztelaniaren artean txandakatzeak (edo nahasteak) modu espontaneoan ematen direla gauza ezaguna da, bereziki egoera ez formaletan, ikasleen arteko solasetan esate baterako. Baina irakaskuntza eleanitza eta tartean hizkuntza gutxitu bat indartu nahi bada, ez dugu uste espontaneitateak izan behar duenik aukera didaktikoa. Translanguaginga, García eta Weik (2014) proposatzen duten moduan, esate baterako, ez dugu uste gure egoerarako ildo egokiena denik. Agian Cenoz eta Gortterrek (2017b) proposatzen duten translanguaging pedagogikoa bide interesgarriagoa izan daiteke, eta horren barruan, aitortu ere egiten dugu kontuan izanda hizkuntzetako bat hizkuntza gutxitua delako, arreta berezia eskaini behar zaiola, hizkuntza horren erabilera murriztagoa baita ikasleen artean.

García eta Weik (2014) diotenez, murgilketa ereduak harrotasunez defendatzen dute hiztunen hizkuntza erabileran muga zehatzak ezartzen dituztela eraikitzen dituzten espazio desberdinen bidez. Horrela, ohikoa izan da murgilketa eredueta helburu-hizkuntza ez den beste hizkuntzarik gelan ez integratzea (Baker & Wright, 1997), helburua delako H2/H3a ahalik eta ondoen ikastea. Horretarako, helburu-hizkuntza bakarrik erabiltzearen aldeko apustua egiten da, baita ere jakina delako ikasleen H1aren ikaskuntza gizarteak eta eskolak bermatzen dutela (García-Azkoaga & Idiazabal, 2015).

Ezaguna den bezala, egun, hizkuntza bat baino gehiago irakasten den ikastetxeetan ohikoa da hizkuntza bakoitzari espazio, denbora, irakasle, eduki desberdina atxikitzea, baina García eta Weik (2014) diotenez, ikasle eta irakasleek etengabe urratzen dute arau hau, eta hizkuntza praktika konplexuak gertatzen dira ikasgela barruan. Horren adibide gisa Martínezen lana (2010: 24) dakarte gogora, Los Ángeleseko *middle school* (Lehen eta Bigarren Hezkuntza bitarteko eskola) bateko ingeles klasean gertatutako hizkuntza txandakatzea erakusteko:

2. Taula: Los Ángeleseko *middle school* bateko ingeles klasean gertatutako hizkuntza txandakatzea:

Zulema: Page what?
Caroline: Um.
Zulema: Twenty-something, <i>no</i> ?
Caroline: Wait. This one? <i>¿Cómo está?</i>
Zulema: <i>Sí</i> , circle. <i>¿Cuál es?</i>
Caroline: <i>¿Como ésta, mira. Como ésta. Ésta está bien bonita.</i>
Zulema: <i>Sí</i> , pero <i>¿qué page?</i>
Caroline: <i>A ver, ¿qué page? Twenty-one.</i>

(García & Wei, 2014: 55)

Cenoz eta Gortterek (2014) ere baieztatzen dute ikasgai bat hizkuntza batean irakastea denean helburua, ikasle-irakasle hartu-emanetan hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea ohikoa dela; horren adibide izango litzateke, ingeleseko klasean, ikasleek testu bat ingelesez entzutea, entzun bitartean irakurri ere egin dezaketena. Irakasleak ideia nagusiak ingelesez errepikatzen ditu, eta zati batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz azaltzen ditu, ikasleek ulertu dutela ziurtatzeko. Irakaslea ikasleei ingelesez zuzentzen zaie gehienetan baina ikasleek gaztelaniaz erantzuten dute eta batzuetan euskaraz (Cenoz & Gorter, 2014).

Beraz, esan dezakegu hizkuntzen alternantzia ohikoa dela eskolan (Garcia & Wei, 2014; Cenoz & Gorter, 2014), baina beste kontu bat da alternantzia hori irizpide didaktikoekin planifikatzea. Hori benetan irizpide didaktiko zehatzekin nola planifikatzen den ikusteko, alde batetik sekuentzia didaktiko eleaniztunak (edo sekuentzia didaktikoen antzeko proposamenak) eta translanguaging pedagogikoaren barruko proposamenak izango ditugu aztergai.

1. Hezkuntza eleaniztunerako zenbait baliabide didaktiko

Atal honetan hizkuntza bat baino gehiago beregain hartzen dituzten baliabide didaktikoak izango ditugu aztergai. Orintxe aipatu dugun bezala, irakaslearengandik kontrolatua edo erregulatua izateko beharra duen praktika gisa definitzen da hizkuntzen integrazioa tesi honetan (Idiazabal et al., 2015), hizkuntza gutxitu bat, euskara, dagoelako tartean (Cenoz & Gorter, 2017a) eta kasu honetan hezkuntzak paper garrantzitsua jokatzen duelako euskararen sustapenean. Beraz, hizkuntza bat baino gehiago integratzea ikasketa prozesuan bai (Cummins, 2008) baina nola, hori da auzia.

Bronckartek (2013: 48) Aostako bailarako hezkuntza elebidunerako diseinatutako sekuentzia didaktikoei dagokienez, honakoa dio: “las secuencias constituyen los primeros instrumentos concretos que organizan formalmente la alternancia de la lengua enseñada y que podrían conducir al establecimiento progresivo de un equilibrio más lógico entre fases centradas en el francés y fases centradas en el italiano”. Aurreko atalean ISD ikusmoldean oinarritutako sekuentzia didaktikoen aldeko aukera egin dugunez, atal honetan molde berarekin edo gertukoarekin sortu eta erabili edo espermentatu diren zenbait sekuentzia didaktiko elebi- edo eleaniztun aztertuko ditugu. Izan ere, guretzat erreferentzia garrantzitsua dira. Hauek dira aukeratu ditugun sekuentzia didaktikoak, nahiz eta hauez gain, ikastetxeren batean egiten den proiekturen bati ere egiten diogun erreferentzia: Alegriak (2015) espermentatutakoa; Andaluziako Kontseilaritzak “Currículo Integrado de las Lenguas. Propuesta de secuencias didácticas” izenburupean sarean argitaratutako HTB lantzeko proposamenak; Badiola et al.-en (2013) lana; Berritzegune Nagusiaren webgunean argitaratutako hizkuntzen irakaskuntzarako HTBn oinarritutako ikasgelarako proposamenak; Decandio eta Dolz-ek (2015) argitaratutakoa; Floris et al.-ek (1988) argitaratutakoa; Getxoko Berritzegunearen HTB lantzeko proposamen didaktikoak; Idiazabalen (2000) lana; Nafarroan ahozko hizkuntza irakasteko Esther Mugertza eta Yolanda Olasagarrek diseinatutako online materiala; Ortega eta Anakabek (2015) argitaratutakoa; Pagolaren (2010) lana.

Azterketa xehea egiten hasi aurretik, komeni da zehaztea aurkeztuko ditugun proposamen didaktikoak oro har oso perfil antzeko ikasleentzat diseinatu zirela, hau da, gaztelania nagusi den testuinguruetan inplementatzeko, ikasleen lehen hizkuntza gaztelania izanik, euskara bigarrena eta ingelesa, ikasle gehienek ikasten duten lehen atzerriko hizkuntza. Adibidez, Alegriaren (2015) lanean ikasle gehienek D eskolatzere-ereduan ikasi dute euskara, ez familia testuinguruan, beraz, haien H1 gaztelania da eta H2 euskara. Ortega eta Anakabek (2015) aurkezten duten proiektuan ere ikasleek murgilketa egiten dute euskaraz. Aipatutako bi testuinguru soziolinguistikoetan gaztelania da nagusi. Aztertutako proposamen didaktiko gehienak DBHn landutakoak dira, DBHn egin baitugu guk-eta esperimendazioa. Hala ere, Lehen Hezkuntza eta Batxilergoko proposamen batzuk ere ekarriko ditugu.

Proposamen didaktiko horien berrikusketa egiteko, ondoko irizpide hauek zehaztu dira:

1) Materialaren helburuak: lehenengo aztergai honetan begiratuko dugu ea proposamen didaktikoak hizkuntzazkoak ez diren edukiak, edo propioki hizkuntzazkoak ez diren edukiak eta hizkuntzak integratzen dituen, ala hizkuntzak bakarrik; ea zer gaitasun lantzeko sortutako materiala den: ulermena, ahozko/ idatzizko ekoizpena...

2) Proiektu komunikatibo eleaniztuna eta aurre- eta ondo-testuen ekoizpena: hemen aztertuko dugu, alde batetik, ea sekuentzia didaktiko osoak diren, hau da, ea ikasleek aurre- eta ondo-testua ekoiztu behar duten, eta ea zein hizkuntzatan ekoiztu behar dituzten proposamen didaktikoan zehazten diren testuak.

3) Hizkuntza alternantzia proposamen didaktikoko moduluetan: hirugarren aztergai honetan ikusiko dugu ea modulu guztiak elebakarrak diren ala, aldiz, modulu elebidunak ere tartekatzen diren. Baita nolako planteamendua / hipotesia dagoen transferrari dagokionez.

4) Emaitzak: emaitzen atalean garatzen saiatuko garen erantzuna da ea baliabide didaktiko elebidun/eleaniztunek zenbateraino erakusten edo frogatzen duten hizkuntza edo hizkuntzen gaitasunetan aurraperen zehatzak lortu diren, edo ez den zehaztasunik ematen.

1.1. Berrikusitako proposamen didaktikoen helburuak

Berrikusi ditugun baliabide didaktikoak hiru helburu nagusi hauen arabera sailka daitezke: hizkuntzen eta edukien ikaskuntza sustatzea, bien integrazioaren bidez, hizkuntzak soilik integratzea eta tipologikoki gertu dauden hizkuntzen arteko ulermena sustatzea.

- Hizkuntzen eta edukien ikaskuntza sustatzea, bien integrazioaren bidez

Ortega eta Anakabek (2015), Pagolak (2010) aurkeztutako sekuentzia didaktikoek, baita Berritzegune Nagusiaren webgunean argitaratutako hizkuntzen irakaskuntzarako HTBn oinarritutako ikasgelarako proposamenek ere hizkuntzak ez ezik, edukiak ere integratzea dute helburu. Adibidez, Berritzegune Nagusiaren proposamenetan proiektu globalen bidezko metodologiaren bidez egiten da lan. Berritzegune Nagusiaren proiektuetan testu-tipoak eta gai tematikoak ardatzen du proiektua, horrek ematen dio batasuna. Elkarren osagarri diren bi edo hiru unitate didaktikok osatzen dute proiektu bakoitza: hizkuntza bakoitzean bat, testu-genero bat lantzeko. Adibidez, DBH 4. mailan programazio elebiduna egiten da euskaraz eta gaztelaniaz “Kirolak gora eta behera” gaia lantzeko, testu-tipoa azalpen testua delarik: ahozko azalpena lantzen da euskaraz, eta txostena gaztelaniaz. Beste adibide bat Ortega eta Anakaberen (2015) lana da, hizkuntzen eta hizkuntzakakoak ez diren edukien integrazioarako programazio osatua proposatzen da, Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetarako. Bertan, euskara, gaztelania eta ingelesa integratzen dira eta gai bera lantzen da hiru hizkuntzetan, adibidez, “Gure dieta eta gure osasuna” izeneko proiektu osatuan. Ondoko azpigaiak eta testu-generoak landu ziren proiektu horretan: euskaraz, “Nolakoa da nire dieta”, eta txostena; gaztelaniaz, “Haurren obesitatea”, eta zuzendariari gutuna; eta ingelesez, “Euskal Herriko eta beste toki batzuetako dieta”, eta gutun-lagunari eskutitza.

Horiez gain, ikastetxe batean, J.C. Baroja ikastetxean⁴ hain zuzen ere, DBH 4. mailan bidaiei buruzko gaia lantzeko proposamena egiten da hiru hizkuntzatan: gaztelaniaz, bidai-ohiturei buruzko galdetegi batzuk egin ondoren, emaitzak grafiko eta testu konparatiboetan adierazi zituzten eta haien ikaskideei horiei buruzko aurkezpen bat egin zieten. Ingelesez, bisitatu edo bisitatzea gustatuko litzaielkeen tokiei buruzko iragarkiak grabatu zituzten. Euskaraz, turismo-gidak power point bidez prestatu eta ahoz aurkeztu zituzten. Horrela, magazine hirueledun bat ekoiztu zuten DBH 4koek.

⁴ Sarean: <http://juliocbaroja.blogspot.com/>

- Hizkuntzak soilik integratzen dituzten proposamen didaktikoak

Badaude hizkuntzak bakarrik integratzea helburu duten sekuentzia didaktikoak ere. Badiola et al.-en (2013) lana, Idiazabal (2000), Alegria (2015), Andaluziako Kontseilaritzak “Currículo Integrado de las Lenguas. Propuesta de secuencias didácticas” izenburupean sarean argitaratutako HTB lantzeko proposamenak, Nafarroan ahozko hizkuntza irakasteko Esther Mugertzak eta Yolanda Olasagarrek diseinatutako online materiala, Getxoko Berritzeguneak sarean argitaratutako “HTB mintegia” lantzeko sortutako materiala eta Aostako bailarako egindako material didaktikoa (Floris et al., 1988). Esaterako, Badiola et al.-en (2013) lanak biografia linguistikoa testu-generoa lantzen du euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez; Alegriak (2015) foro birtuala euskaraz eta gaztelaniaz; Idiazabalek (2000) aldizkari baterako gutuna euskaraz eta gaztelaniaz. Badiola eta besteren lanean, hiru hizkuntzetan ziren aurre eta ondo testuak, eta moduluetan ere hirurak lantzen ziren, euskara nagusi bazen ere. Alegria eta Idiazabalen lanetan, integrazioa egiten da transferraren hipotesia baieztatzeko.

- Tipologikoki gertu dauden hizkuntzen arteko ulermena lantzea helburu duten proposamen didaktikoak

Izenburuan ageri den helburua daukaten proposamen didaktikoez hizkuntza-familia bereko hainbat hizkuntza integratzen dituzte. *Erlazionatutako hizkuntzen elkar-ulertzea* modura ere ezagutzen dira baliabide didaktiko hauek (Candelier, 2010). Hizkuntza horiek ikasleen ama hizkuntzarekin edo irakaskuntza hizkuntzarekin dute lotura, edota jada badakiten hizkuntza batekin, “as the development of comprehension is the most tangible way of using knowledge of a related language to learn a new one”, (Candelier, 2010: 3). Hizkuntza desberdinak hitz egiten dituzten pertsonak elkar ulertu ahal izateko, hitz egiten duten hizkuntzan konpetentzia errezeptibo partziala izatea nahikoa da (Clua, 2019).

Decandio eta Dolzek (2015) jarraitzen duten ikuspegia erlazionatutako hizkuntzen elkar-ulertzearen barruan sartzan dela esan dezakegu, izan ere, esperimintatutako sekuentzia didaktikoan parte hartu zuen ikasle-talde bakoitzak bere hizkuntza erabiltzen du, hau da, Ginebrako ikasleek italiara eta Brasilarrak portugesa, eta bestearena ulertzen du eskolako posta-truke elektronikoa lantzeko proposamen didaktikoan.

1.2. Proiektu komunikatibo eleaniztuna eta aurre- eta ondo-testuen ekoizpena

Berrikusitako baliabide didaktiko guztietako proiektu komunikatiboetan hizkuntza bat baino gehiago hartzen da kontuan. Hau da, proiektuen bidez hizkuntza batean baino gehiagotan ekoiztu behar izaten dituzte testuak ikasleek. Azpialt honetan aztertuko dugu ea sekuentzia didaktiko osoak diren, hau da, aurre- eta ondo-testuak dauden, eta zenbat hizkuntza hartzen dituen proiektu komunikatiboak beregain, alegia, zein hizkuntzan ekoizten dituzten ikasleek testuok.

Proiektu gehienak eleaniztunak dira, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Hortxe, bi motatakoak bereiz ditzakegu: alde batetik, aurre- eta ondo-testuak biltzen dituzten sekuentzia didaktikoak: Pagola (2010), Badiola et al. (2013), eta Mugertza eta Olasagarren materiala. Badiola et al.-en (2013) proiektuan, adibidez, biografia laburra testu-generoaren ekoizpena lantzen da hiru hizkuntzetan, fikziozko egoera komunikatibo bati jarraiki: *Berrian* euskal pertsonaia gazte eta famatuz biografiak idazteko deiari erantzuteko. Decandio eta Dolzen (2015) proiektua ere eleaniztuna da, izan ere, lau hizkuntza erromaniko konbinatzen ditu irakurmenaren ulermenari dagokionez (gaztelania, frantsesa, italiara eta portugesa), eta italiara eta portugesa ekoizpen idatziari dagokionez. Ikasleen artean eskutitz-trukaketa bat hasi nahi izan zuten proiektu honen bidez, non ikasleek bere burua aurkezten duten, baita herrialdea eta bizitokia ere, eta ikasleen toki eta kirol gustokoenak, eta gustu kulturalak. Ikasleek lau testu ekoizten dituzte: bi italiaraz (aurre- eta ondo-testua) eta bi portugesez (aurre- eta ondo-testua), italiaraz Ginebrakoek eta portugesez Brasildarrek.

Euskara, gaztelania eta ingelesa barne hartzen dituzten sekuentzia didaktikoen barruan, batzuetan ondo-testuen ekoizpena bakarrik proposatzen da, eta ez aurre-testuena, beraz, suposatzen dugu ikasleek ariketak egiten dituztela, eta ondoren, ondo-testua ekoiztu. Hemen sailkatuko genituzke Ortega eta Anakabe (2015), eta Berritzegune Nagusia eta Getxoko Berritzegunearen proposamen didaktikoak. Adibidez, Getxoko Berritzegunearen "HTB mintegia" material didaktikoari dagokionez, material guztiak eleaniztunak dira euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez, eta gutxi batzuetan, frantsesa ere integratzen da. Hizkuntza guztietan testu mota eta ardatz tematiko bera lantzen da, baina testu-genero desberdin bat hizkuntza bakoitzean. Ikasleek ekoizpen bat egin behar dute hizkuntza bakoitzean. Ondoren, azken ekoizpenak izaera integratzailea du, hau da, hizkuntza desberdinetan ekoiztutako testu-generoak biltzen ditu. Adibidez, 2006-2007 ikasturtean diseinatutako materialean narrazioa lantzen da. Testu mota horren barruan, ingelesez edo frantsesez eskutitz informala lantzen da; gaztelaniaz irakaspena duen alegia; euskaraz kontaketa.

Andaluziako Kontseilaritzaren sekuentzia didaktikoen proposamenak ere eleaniztunak dira batik bat. Material horretan ere ez da aurre-testuaren ekoizpenik ageri. Ikasleen perfil linguistikoari dagokionez, ikasleen H1 gaztelania da eta atzerriko hizkuntza gisa ingelesa, frantsesa eta alemana dituzte. DBH 1. mailan, adibidez, ikasleen H1 gaztelania, H2 ingelesa, frantsesa edo alemana, eta H3 ingelesa lantzeko proiektua aurkezten da, deskribapen-narrazio testua lantzeko. Hizkuntza guztietan gai bera lantzen da, ingurunearen behaketa hain zuzen ere, baita testu-genero bera ere, testu narratibo-deskriptiboa, alegia. Ikasleen H1 gaztelaniaz haien inguruari buruzko deskribapen testu bat idatzi behar dute “A través de mi ventana” izeneko sekuentzia didaktikoaren barruan; H2 ingelesez “Looking out of the window” da gaia, alemanez “Mein Stadtviertel” eta frantsesez “Fenêtre sur cour”, eta ahozko eta idatzizko deskribapen testu bat ekoiztea da helburua ikasleen H2an; ikasleen H3an, ingelesez, “My neighbourhood” da gaia, eta helburua ikasleek ahozko zein idatzizko testu narratibo-deskriptibo bat ekoiztea.

Badaude aurre-testua euskaraz bakarrik ekoiztarazten duten proiektu komunikatiboak ere (Alegria, 2015; Idiazabal, 2000). Moduluetan zehar jarduerak euskaraz egin ondoren, ondo testuak euskaraz eta gaztelaniaz ekoizten dira, nolabait hasierako proiektu komunikatiboa moldatuz. Modu honetara, sekuentzia didaktiko hauek aukera ematen dute euskaratik gaztelaniarako trebetasun diskurtsiboen transferentzia aztertzeko. Zehazki, Alegriaren lanean eztabaidarako foro birtuala testu generoaren euskarazko lanketak ikasleen euskarazko zein gaztelaniazko trebetasunetan izan dezakeen eragina aztertzen da.

Uribe Kosta BHIIn ere HTBn oinarritutako proiektuak jartzen dira martxan. Horietako bat “Fotosalaketak”⁵ da, HTBn oinarritzen dena. Proiektu honen helburua inguruan dauden gauza, egoera, leku salagarriak ezagutzera ematea da. Hiru hizkuntzak inplikutzen dira proiektuan eta hiru testu genero barne hartzen ditu: azalpen testua, testu deskriptiboa eta iritzi testua, izan ere, ikasleek hizkuntza bakoitzean egin behar dituzte fotosalaketak: gustatu ez zaiena azaldu behar dute, horri buruzko xehetasunak eman (deskribatu), iritzia eman eta konponbide bat proposatu. Kontrakoa ere egiten da, alegia, fototxaloketa⁶, hau da, inguruan txalogarriak diren egoerak kameraz harrapatzea. Lantzen diren testu generoak fotosalaketan lantzen diren berdinak dira.

⁵ Sarean: <http://fotosalaketak.uribekostabhi.com/>

⁶ Sarean: <https://sites.google.com/a/uribekostabhi.com/fototxaloketa/>

1.3. Hizkuntza alternantzia moduluetan

Atal honetan ikusiko dugu ea aztertutako proposamen didaktikoetako modulu edo tailerretako ariketetan hizkuntzak bereizita ala nahastuta lantzen diren.

Aztertu ditugun proposamen didaktiko gehienetan moduluetao ariketak elebakarrak dira: Ortega eta Anakabe (2015), Pagola (2010), Idiazabal (2000), Alegria (2015), Andaluziako kontseilaritzaren sekuentzia didaktikoetan eta Getxoko Berritzegunearen materialetan. Esaterako, Ortega eta Anakaberen lanean (2015), “Gure dieta eta gure osasuna”, modulu elebakarrak lantzen dituzte hizkuntza bakoitzean, testuinguratzea, planifikazioa eta unitate linguistikoei dagokienez: euskaraz, txostena lantzen dute; gaztelaniaz, zuzendariari gutuna, eta ingelesez, “letter to a penfriend”. Ikus daitekeen moduan, hizkuntza bakoitzean testu genero desberdin bat lantzen dute. Hala ere, hizkuntzarteko transferentzia kontuan hartzen dutela esan daiteke, izan ere, ingelesean egiten den lanari dagokionez, adibidez, esaten dute ingeleseko testuak gaitasun linguistiko eta diskurtsiboak konpartitzen dituela euskaraz jada landu duten testuarekin, eta beraz, gaitasun horiek ingelesera transferituko dituztela. Ingelesa ikasleen H3 izanik, ingelesean lantzen diren eduki linguistikoak alde aurretik ikasleen H1 (eta H2an) lantzearen garrantzia azpimarratzen dute.

Pagolaren (2010) lanean ikasleek azalpen testu idatzia lantzeko euskaraz modulu elebakarrak landu ondoren, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez ekoiztu zuten ondo-testua. Moduluetan landu ziren alderdiak testuinguraketa, planifikazioa/egitura eta unitate linguistikoak izan ziren. Testuinguraketari dagokionez, adibidez, azalpen testuen helburu informatiboa kontuan hartzea; planifikazioaren barruan, testuaren garapena argi geratu dadin azpigituluak erabiltzea; azkenik, unitate linguistikoei dagokienez, erlatibozko perpausak ondo erabiltzea. Lan horrek ikusi nahi zuen ea moduluak euskaraz soilik landu ondoren, hobekuntzak hiru hizkuntzetan ikus zitezkeen. Idiazabal (2000) eta Alegriaren (2015) lanetan, Idiazabalen lanean argudio testuak, eta Alegriarenean eztabaidarako foro birtuala lantzeko trebetasunak euskaraz jorratu zituzten sekuentzia didaktikoko ariketetan. Ikerlariak ondoko alderdi hauek aztertu zituen ikasleen ekoizpenetan: Idiazabalen (2000) lanean, testuen hitz eta paragrafo kopurua, argudiozko gutunaren atalak eta, azkenik, testuratze baliabideak. Alegriaren (2015) lanean, aldiz, bestearen hitzaren berrartzeak aztertu ziren.

Pagola (2010), Idiazabal (2000) eta Alegriaren (2015) sekuentzia didaktikoetako moduluen barruan ez dago hizkuntza alternantziarik, moduluak elebakarrak baitira euskaraz. Aipatutako lan horiek Elkarmenpekotasun Linguistikoaren Printzipioaren inguruan egindako

ikerketak dira. Hain zuzen ere, Idiazabalen lanean ondo-testuak euskaraz ez ezik, gaztelaniaz ere ekoiztu zituzten, ikusteko ea euskaraz landutako trebetasunak gaztelaniaz ere erabiltzen zituzten. Transferrari dagokionez, beraz, aurreikusi zuten nahiz eta sekuentzia didaktikoko ariketak euskaraz soilik landu, atal nagusien egitura gaztelaniaz ere hobetuko zutela, baina testuratzeko-elementuak hizkuntza bakoitzaren barruan landu behar zirela (kohesio, konexio eta modalizazioa). Alegriaren lanean ere ondo-testuak euskaraz eta gaztelaniaz ekoiztu zituzten, ikusteko ea ikasleek euskaraz garatutako gaitasunak gaztelaniara transferitzen zituzten.

Badaude moduluetan zehar une batzuetan hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen dituzten baliabide didaktikoak: Berritzegune Nagusiak argitaratutako proposamenak, Badiola et al.-en (2013) lana, eta Mugertza eta Olasagarrek "Ahozko hizkuntza irakastea" izenburupean online argitaratutako materiala. Berritzegune Nagusiaren materialean, oro har, unitate bakoitza hizkuntza batean lantzen da, nahiz eta proiektuak, normalean, euskara, gaztelania eta ingelesa integratzen dituen. Hala ere, adibidez, DBH 3. mailan azalpen testuak lantzeko materialak osasuna du hizpide, eta glosario bat egiten ikasten dute gaztelaniako unitatean ("Salud para todos. Glosario"). Unitate horretan, euskara, gaztelania eta ingelesa konparatzeko ariketak daude, adibidez, erlatiboak zein baliabide linguistikoren bidez egiten diren hizkuntza bakoitzean. Moduluetakoa ariketak egin eta gero, ikasleek unitate bakoitzean landu duten testu-generoa ekoizten dute, unitatea landu duten hizkuntzan. Hizkuntzarteko eragina kontuan hartzeari dagokionez, unitateetan zehar hizkuntza batean lantzen dena beste hizkuntzarako ere baliagarri zaiela esaten zaie ikasleei, eta hizkuntzen arteko loturak esplizitatu egiten dituzte, adibidez DBH 2. mailan "Literaturan murgildurik. Ahozko azalpena" euskarazko unitatean:

"Jarduera honetan azalpen testuen ezaugarriak gogoratzen saiatuko gara. Gogoratu gaztelania arloan landutakoa azalpen testuen ezaugarriei buruz (13., 14. eta 15. jarduerak). Badakizue zein diren idatzizko zein ahozko azalpenen ezaugarri orokorrak? Zeintzuk dira azpimarragarrienak? Nolako hizkuntza ezaugarriak dituzte azalpen testuek?" (50. or.).

Badiola et al.-en (2013) lanean ere nahiz eta modulu gehienak elebakarrak izan euskaraz, modulu batean euskara, gaztelania eta ingelesa txandakatu ziren. Hain zuzen ere, lau saio egin zituzten honako alderdi hauek lantzeko: egoera komunikatiboa, egitura/paragrafoak, ortotipografia/antolatzaileak eta izen kohesioa. Alderdi horien lanketa euskaraz egin zen. Hala ere, antolatzaileak lantzeko ariketetan euskara, gaztelania eta ingelesa erabili ziren, ikasleek testu antolatzaileak erabili behar direlako kontzientzia garatzeaz gain, hizkuntza bakoitzean hizkuntza baliabideak ere eskuratzea zelako helburua. Lan horrek ere, Idiazabal (2000) eta

Alegriaren lanean (2015) bezalaxe, hizkuntzarteko transferentziaren hipotesia frogatu nahi izan zuen.

1.4. Hizkuntza alternantzia lantzen duten proposamen didaktikoen emaitzak

Atal honetan galdera honen erantzuna garatzen saiatuko gara: hizkuntza bat baino gehiago kontuan hartzen dituzten proposamen didaktikoen zenbateraino erakusten dute hizkuntza gaitasunak hobetzen dituztela, eta zein hizkuntzatan hobetzen diren?

Aztertutako hainbat lanetan, emaitza hobeak lortzen dira ikasleek sekuentzia didaktikoa egin ondoren: Pagola (2000), Badiola et al. (2013), Idiazabal (2000), Alegria (2015), Mugertza eta Olasagarreren proposamenak, eta Decandio eta Dolz (2015). Hain zuzen ere, aurre- eta ondo-testua dagoenean beti dago emaitza hobe sekuentzia didaktikoa egin ondoren, aurre-testurik ez badago, aldiz, ezin da jakin emaitzak hobeak diren, horregatik defendatzen dugu sekuentzia didaktiko osatuen erabilera. Badiola et al.-en (2013) lanean, sekuentzia didaktikoko ariketak euskaraz soilik burutu ondoren, talde esperimentalak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez hobetu zuen biografia laburrak testuen ekoizpena, batez ere, egoera komunikatiboa, planifikazioa, ortotipografia eta izen kohesioari dagokionez. Testu-antolatzaileei dagokienez, ez zen alde handia nabaritu aurre-testurik ondo-testura, antolatzaile aniztasuna gaztelaniaz nabaritu zen batez ere. Beraz, argi ikusten da euskaraz barneratutako gaitasunak gaztelania eta ingelesera transferitu dituztela maila askotan.

Idiazabalen (2000) lanean ere, sekuentzia didaktikoko ariketak euskaraz soilik landu ondoren, argudio testu hobeak ekoiztu zituzten, ez euskaraz bakarrik, gaztelaniaz ere. Testuaren antolaketan eta planifikazioan oso agerikoa izan zen euskaraz egiten zuten lana gaztelaniazko testurako baliatzen zutela. Testuratzeko baliabideei dagokienez, batez ere polifonia markatzean ikusten da euskarazko lanketak gaztelaniazko testuan izan zuten eragina: hizkuntza batean ikasi denez esku-hartze enuntziatiboak markatzen direla, gaztelanian ere horretarako baliabideak bilatu dituzte. Alderantziz, hizkuntza batetik bestera gutxien transferitu duten alderdia modalizaziorako baliabideak izan ziren. Idiazabalek (2000) dio horiek hizkuntza bakoitzaren baitan landu behar direla. Decandio eta Dolzen (2015) lanean ondorioen artean aipagarriena da ikasleen arteko posta trukeen bidez ikusi dutela ikasle batek kide batek aipatutako edukia berrartzen duenean, elkar ulertzen dutela, izan ere, bakoitzak bere hizkuntzan idazten du. Hori baldin bazen ere ikerlarien interes foko garrantzitsuena, sekuentzia didaktikoaren eragin positiboa ikus daiteke ondoko elementuen azterketaren bidez ere: gutunaren aspektu formalei dagokienez, ikus daiteke ikasleek modu eraginkorrean bereganatu

dituztela generoari dagozkion trebetasun linguistikoak, izan ere, tokia, data eta agurtzeko formulak erabiltzen dituzte. Eduki tematikoari dagokionez ere, aberastasun handia nabari da ekartzen dituzten gaietan, hau da, sekuentzia biografiko (bere buruak aurkezteko) zein deskriptiboetan (bere ingurua aurkezteko) gai anitzei buruz dihardute.

Beste kasu batzuetan, ikasleek ondo-testua soilik ekoizten dute: Ortega eta Anakaberen (2015) lanean eta Berritzegune Nagusiak argitaratutako materialean. Berritzegune Nagusiaren proposamen didaktikoetan, adibidez, material hauek martxan jarri diren ikastetxe desberdinetan ikasleek ekoiztutako ondo-testuak agertzen dira, baina ez da emaitzarik ateratzen. Getxoko Berritzegunearen proposamen didaktikoetan ikasleek ondo-testua ekoiztu behar dutela aipatzen da, baina sekuentzia didaktiko horien espermentaziorik ez da agertzen. Gauza bera gertatzen da Andaluziako Kontseilaritzak HTBren barruan diseinatutako materialekin, adibide gisa azaltzen dira.

Atal honen helburua HTB egiteko baliagarriak diren hainbat proposamenen berrikuspen bat egitea izan da: ekarri ditugun batzuk sekuentzia didaktiko osoak dira, aurre- eta ondo-testuekin. Beste batzuk, aldiz, testu ekoizpena sekuentzia edo unitate didaktikoaren bukaeran bakarrik proposatzen dute. Ikusi dugun bezala, baliabide didaktikoetan hizkuntza bat baino gehiago kontuan hartzeko ahalegina egiten da, bai Euskal Herrian, baita kanpoan ere. Hala ere, gehiago dira alternantzia proiektu-mailan bakarrik daukatenak, eta ez ariketa zehatzetan, hau da, alternantzia sekuentzia didaktikoaren barruan dagoen baliabide gutxi dago eta horien espermentazioa nekez garatu den alorra da. Horrez gain, transferraren hipotesiari begira egindako proposamenak aurki ditzakegu gehienbat. Aurre- eta ondo-testuak agertzen diren proposamenetan argi ikusten da ikasleen hobekuntza; batzuetan, aldiz, ondo-testuari soilik egiten zaio erreferentzia, eta ezin daiteke zehaztasunez esan zein alderdi hobetu dituzten eta zein ez.

2. Translanguaging

Ikasgelan hizkuntza desberdinak integratzearekin lan egiten duen eta gaur egun hezkuntza eleaniztunean oso entzutetsua den beste kontzeptu bat translanguaging da. Translanguaging-ek paradigma aldaketa bati erantzuten diola esaten da, hizkuntzen irakaskuntzan *the multilingual turn* (Conteh & Meier, 2014; May, 2014) deritzonari, hain zuzen ere. Translanguaging terminoa ezagunena izan arren, badaude kontzeptu bera adierazten duten beste zenbait termino: polylingualism (Jørgensen, 2008); metrolingualism (Otsuji &

Pennycook, 2009); flexible bilingualism (Creese & Blackledge, 2010); translingual practice (Canagarajah, 2013); holistic bilingualism (Soltero-González et al., 2012); focus on multilingualism (Cenoz & Gorter, 2011). Ikuspegi honek hizkuntzen ikuspegi tradizionala, hizkuntzak entitate zurrun eta bereizi gisa ikusten dituen, zalantzan jartzen du, ikuspegi holistikoago baterantz, zeinak hizkuntza erreperitorio guztiaren erabilera sustatzen duen. Honela definitzen dute García eta Weik translanguaging (2014: 2):

“(...) translanguaging is an approach to the use of language, bilingualism and the education of bilinguals that considers the language practices of bilinguals not as two autonomous language systems as has been traditionally the case, but as one linguistic repertoire with features that have been societally constructed as belonging to two separate languages”.

García eta Li Weiri (2014) jarraiki, orain arte, hizkuntzaren ikuspegi tradizionalak bi pertsona elebkarren batura gisa ikusi izan ditu pertsona elebidunak, hau da, hizkuntza bakoitza sistema autonomo bat balitz bezala. Translanguaging ikuspegiak, aldiz, hizkuntza erreperitorio bakarra dugula aldarrikatzen du. Hala ere, beste zenbait autorek ere elebitasunaren ikuspegi elebakarra kritikatu izan dute (Grosjean, 1989; Herdina & Jessner, 2002). Moore-k (2007) ere, García (2009) eta García eta Li Weik (2014) bezala, hizkuntza erreperitorio bakarraz ziharduen:

“Cette compétence ne se caractérise pas par la supersposition ou la juxtaposition de compétences toujours distinctes. Il s’agit d’une compétence plurielle, complexe, composite, hétérogène, qui inclut des compétences singulières, parfois partielles, mais qui constitue un tout en tant que répertoire disponible pour le sujet concerné.” (Moore, 2007: 211).

Translanguaging ikuspegiak elebitasuna dinamikoa dela aldarrikatzen du, alegia, hiztun “elebidunak” hizkuntza erreperitorio bakarra dauka eta egoera bakoitzean dituen behar komunikatiboen arabera, gizartean “aparteko” hizkuntza gisa irudikatzen diren sistema bateko edota besteko hizkuntza baliabideak erabiltzen ditu. Ikuspegi honek elebitasun tradizionalari elebitasuna elebakartasun paralelotzat hartzea aurpegiratzen dio. Horregatik elebitasunari “gehigarria” deitu dakioke ikuspegi tradizionalan, eta dinamikoa, translanguaging ikuspegiaren arabera:

“These separate structures of bilingual education, and the continued use of the terms L1 and L2 reveal an ideology of bilingualism that is *monoglossic* (Del Valle, 2000; García, 2009). In other words, bilingualism is seen as ‘parallel monolingualism’ (Heller, 1999)” (García & Wei, 2014: 55).

Translanguaging ikuspegiaren aburuz, hizkuntzak asmakuntza sozial eta politikoak dira, hau da, erralitate sozial gisa existitzen dira. Horren ordez, García eta Weik (2014) dioten moduan, *languaging* (Maturana & Varela, 1998) kontzeptua proposatzen du teoria horrek, hizkuntzari gizartean gertatzen den ekintza gisa erreferentzia egiteko, kontzeptu horren interesa hitzunen hizkuntza praktikak direlarik, alde batera utzirik, horrela, hizkuntzak sistema bakan gisa ikusten dituen ikuspegi tradizionala.

Translanguaging ikuspegiak hizkuntzen ikuspegi tradizionalari egiten dion beste kritika bat da honen helburua eleaniztasun orekatua dela egoera guztietarako, erreferentzia hitzun natibo elebakarrak direlarik. Translanguaging ikuspegiaren, aldiz, hitzun natibo idealaren ideia zalantzan jartzen da (Ruiz de Zarobe, & Ruiz de Zarobe, 2015), eta beraz, Baker eta Wright-ek (1997) sortutako *semilinguals* deritzen hitzunak izango genituzke, besteak beste. Baina hitzun natiboa helburutzat ez hartzearen ideia hau aspalditik jarri zen mahai gainean. Grosjeanek (1984) elebitasunak bi hizkuntzak modu parekoan jakitea esan nahi duen ideia mitifikatua zegoela esaten zuen, esanez bi hizkuntzen ezagutza orekatua izango dela bi hizkuntza horiek erabiltzeko beharra bera baldin bada. Castellottik eta Moorek ere (2011), Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoan (2001/2018) esaten denaren harira, onartzen dute konpetentzia eleaniztunak esan nahi izatea hitzunak ezagutzen dituen hizkuntzen artean konpetentzia-mailari dagokionez desoreka egotea. *Multicompetence* kontzeptuak (Cook, 1992) burmuin berean bi hizkuntza edo gehiagoren ezagutzari egiten dio erreferentzia eta hitzun elebidun baten hizkuntza gaitasuna hitzun elebatar batenarekin alderaezina den ideia adierazten du. Zentzu berean, Europako Kontseiluak (2001) proposatutako *plurilingualism* kontzeptuak ere modu ez-uniformean garatutako hizkuntza gaitasunei egiten die erreferentzia (Cenoz & Gorter, 2013; Coste et al., 2009; Piccardo, 2013), eta hizkuntza erreperitorio bakarra daukagula aldarrikatzen du.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoaren liburuki erantsi berrian (Europako Kontseilua, 2018) konpetentzia eleaniztunerako eta kulturantzera deskribatzaile eskalak zehazten dira, baita erreperitorio eleaniztuna eraikitze eskala ere. Hori horrela, translanguaging ikuspegiak hizkuntza-maila desberdina duten ikasleak ikasgelan integratzea bidera dezake (Lewis, Jones & Baker, 2012).

Hizkuntzak entitate bakar gisa hartzearen ideia baztertzen den arren, onartu egiten da hitzunek beti hitz egiten dutela testuinguru sozialetan, beraz, hizkuntzek eraikuntza sozial gisa garrantzitsuak izaten jarraitzen dute: "It can be argued that the boundaries between different

languages represent social constructions, but it is nevertheless legitimate to distinguish languages in certain contexts and for certain purposes in order to make sense and act our worlds" (Cummins, 2017: 112).

García (2009) translanguaging eta kode-alternantzia desberdintzen ditu, esanez translanguaging hizkuntzen definizio tradizionalaz haratago doala eta ez dela hizkuntza batetik bestera salto egitera mugatzen, hizkuntza erreperitorio osoa erabiltzea dela baizik. Bata eta bestearen atzean dauden oinarri teorikoak ezberdinak izan arren, beste zenbait autorek (García-Mateus & Palmer, 2017; Jones, 2017; MacSwan, 2017) translanguaging barruko estrategia gisa ulertzen dute kode-alternantzia. Adibidez, Jonesen (2017: 206) lanean kode-alternantzia eta itzulpena translanguaging barruko estrategia gisa hartzen dira. Sakariak eta Priyanak (2018) kode-alternantzia pedagogikoaren barruan sailkatzen dituzte García eta Weik (2014) translanguagingen barruan sailkatzen dituzten estrategiak. Hain zuzen ere, Sakaria eta Priyanaren (2018) ustez, kode-alternantzia (eta ez translanguaginga) erabiltzen dute irakasleek ulermena bermatzeko, klasea kudeatzeko, ikasteko aldami gisa, afekzioa edo edukazioa adierazteko, besteak beste. Ikasleen aldetik, kode-alternantziara jotzen dute ikasten ari diren hizkuntzan esan nahi duten hitza ezin dutenean aurkitu, adibidez, elkarrizketak aurrera jarrai dezan. Ikus daitekeen moduan, oraindik ere nahasgarria dirudi kode alternantzia eta translanguaging bereiztea.

2.1. Translanguaging pedagogikoa

Translanguaging praktikari erreferentzia egin diezaikegu praktika espontaneo gisa, hizkuntza bakoitza noiz eta zertarako erabili zehazten ez denean, hizkuntza bat baino gehiago dakitenean artean fenomeno naturala delako hiztunek erreperitorio osoa erabiltzea (Leonet et al., 2017; Mazzaferro, 2018). Translanguagingen beste korronteak zentzu pedagogikoa dauka, hain zuzen ere, translanguaging terminoa zentzu pedagogiko batekin sortu zen: ikasgai berean input (irakurketa eta/edo entzumen) eta outputerako (hitz egitea eta/edo idaztea) galesa eta ingelesa txandakatzen zituen praktika pedagogiko bati egiten zion erreferentzia bere esanahi originalak, *trawsiethu* (translanguaging) (Williams, 1994). Translanguaging pedagogikoa terminoak esan nahi du ikasgelan hizkuntza bat baino gehiago integratzea helburu pedagogiko batekin (Lewis et al., 2012), hau da, irakasleak alde aurretik modu kontzientean erabakitzea ikasgelan translanguaging martxan jarriko duela:

“We argue that the concept of pedagogical translanguaging should be reserved for contexts where teachers have made a deliberate decision to include students’ flexible language uses, and where the multilingual practices employed in pedagogy harmonize with the teachers’ ideologies of language” (Ganuza & Hedman, 2017: 210).

Beraz, alde zuzenetik ikasgela barruan hizkuntzak nola kudeatuko diren planifikatzeari egiten dio erreferentzia (Cenoz, 2017). Zenbait autorek diotenez (Canagarajah, 2011; Cenoz & Gorter, 2017b), translanguaging pedagogikoa oraindik ere garatu gabe dago.

Datorren atalean aipatuko dugun moduan, ohikoa da ikasgela elebidunean hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea, baina ikusiko dugun moduan, hori modu ez-sistematikoan egin ohi da, hau da, jarraibide zehatzik gabe. Hala ere, hainbat lanek erakusten dute munduan zehar eta Euskal Herrian translanguaging pedagogiaren adibide batzuk ere badaudela, eta atal honetan horietako zenbait adibide ekartzen saiatuko gara.

Galeseko testuinguruan translanguaging praktika gehienetan, hizkuntza nagusia, hau da, ingelesa, hizkuntza gutxitua, galesa, garatzeko erabiltzen dela esaten da (Jones, 2017). Lehen Hezkuntzan, esaterako, ikasleei galesez eta ingelesez hiztegi elebiduna aurkezten zaie matematika ikasgaiari, hiztegi elebiduna aurkezteak ikasleen hizkuntzarteko kontzientzia garatzea eta ikasleek edukia ikastea bermatzen duelako. Historiako eskolan, berriz, irakasleak ikasleei *translanguaging cues* bidez zehazten die hizkuntza bakoitzaren rola. Translanguaging pedagogiaren barruan, *translanguaging cues* (Jones & Lewis, 2014) deritzenek hizkuntza bakoitza noiz eta zertarako erabili zehazten duten argibideak dira.

2. Irudia: Lehen Hezkuntzako historia klasean aurkeztutako translanguagingerako instrukzioak.




Figure 5. Translanguaging cues presented in a primary school history lesson.

(Jones, 2017: 209)

Jonesek (2017) Roberts et al.-en (2017) oinarrituta, esaten du Bigarren Hezkuntzako irakasleek ikasgelan elebitasuna sustatzeko gehien erabiltzen dituzten estrategiak hiztegi elebiduna, eta maiztasun gutxiagorekin translanguaging eta itzulpena direla. Hala ere, irakasleen artean ikasgela barruan bi hizkuntzen erabilera kudeatzeari dagokionez formakuntza falta nabaria dela ere esaten du (Roberts et al. 2015).

Testuinguru euskaldunean, Leonet et al.-ek (2017) Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleekin euskara, gaztelania eta ingeles ikasgaietan translanguaging inplementatu zuten ariketa batzuetan. Autore horiek esaten dute ondoren aipatuko ditugun bi ariketak ikerketa proiektu zabalago baten parte direla, zeinaren helburua translanguaging pedagogikoaren bidez ikasleen kontzientzia linguistikoa eta metalinguistikoa garatzea den. Ariketa horiek inplementatuz lortu zuten, alde batetik, eskola testuinguruan dauden hizkuntza desberdinen gaineko kontzientzia garatzea eta, bestetik, herriko testuinguruan erabiltzen diren hitz-elkartu eta eratorriak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez nola sortzen diren alderatzea, kontzientzia metalinguistikoa garatzeko, adibidez: liburudenda-bookshop alderatu daitezke, baina gaztelaniazko “librería” hitzetik desberdinak dira; “librería” “library” hitzaren sasi-adiskidea da. Aipatzen den translanguagingen bigarren adibidean helburua euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez narrazio testuak idaztea da. Ikasleei narrazio testu baten egitura euskaraz irakatsi ondoren, narrazio testu propioa idatzi behar dute euskaraz, eta elementu

berberak dituen narrazio testu bat gaztelaniaz, eta beste bat ingelesez. Horrela ikasten dute euskaraz ikasi duten narrazio testuen egitura gaztelaniaz eta ingelesez ere aplika daitekeela, eta aldiz, gramatika edo lexikoari dagozkion alderdiak hizkuntza bakoitzak espezifikoak dituela.

Bestalde, Cenoz et al.-ek (2019) ikerketa proiektu beraren beste zati bat azaltzen dute, hain zuzen ere, "Irratia eta telebista" moduluaren adibide bat. Modulu horretan ikasleek hiru paragrafoz osatutako azalpen testu batekin egiten dute lan, paragrafo bakoitza hizkuntza batean idatzita dagoelarik: bat euskaraz, beste bat gaztelaniaz eta beste bat ingelesez, hirurak testu beraren parte direlarik. Testua irakurri ondoren, hiru hizkuntzak konparatzeko ariketak proposatzen dira, hala nola, hitz sustraikideak eta hitz eraketarako estrategiak. Leonetek (2019) frogatu zuen translanguaging pedagogian oinarritutako esku-hartze honek ez zuela eragin negatiborik izan ikasleen euskara mailan; hori neurtzeko, ikasleen euskarazko irakurmenaren ulermena neurtu zen esku-hartzearen aurretik eta ondoren.

Azken urteotan asko ugaitu dira munduan zehar translanguagingen ikuspegian oinarritutako hizkuntzen irakaskuntzako ikerketak. Adibidez, Velasco eta Fialaisen (2018) lanean ikusi zuten Frantziako Alsace eskualdeko Haur Hezkuntzako bost-sei urteko ikasle batzuk frantsesa eta alemanaren arteko hitz sustraikide, eta sustraikide faltsu identiko eta ez-identikoen inguruan hausnartzeko gai zirela, aztertutako hitz horiek irakurriz, entzunez edota horien esanahiaren inguruan hausnartuz.

Afrika Hegoaldean, Charambak eta Zanak (2019) translanguaging ikuspegian oinarritutako ikerketa bat burutu zuten, zeinetan zientzia fisikoak ikasgai DBHko ikasleek hartu zuten parte. Emaitez erakutsi zuten ikasleen H1a, kasu honetan *sesotho*a, ingelesarekin batera integratzeak irakaskuntza-prozesuan eta, ondorioz, ikasleei testu paraleloak edo zientzia hiztegi elebidunak emateak, ikasleek kontzeptuak hobeto ulertzea zekarrela.

Schulzek eta Ittnerrek (2019) lau hizkuntza gaitasunak (irakurmena, idazmena, mintzamina eta entzumena) lantzeko translanguaging ikuspegian oinarritutako estrategiak aipatzen dituzte, betiere ingelesa irakasteko Estatu Batuetako testuinguruan. Adibidez, oraindik ingeles maila altua ez duten ikasleekin ingelesezko narrazio testu bat irakurri aurretik, testu horren laburpena beraien H1ean irakurtzea; edota entzumena lantzeko, irakasleak testu elebidun edo eleantiztunak irakurtzen dizkie ikasleei, hala nola, testu paraleloak edo hizkuntza bat baino gehiago tartekatzen dituen testu bat.

New Yorkeko testuinguruan, translanguagingek barne hartu ohi dituen bi hizkuntzak hizkuntza nagusi dira mundu mailan, ingelesa eta gaztelania, nahiz eta gaztelania hizkuntza gutxitua izan testuinguru honetan. Amerikako Estatu Batuetako Erroldaren Bulegoaren inkestaren arabera (2017), New Yorkeko biztanleen %51k ingelesa bakarrik hitz egiten du haien etxeetan; gainerako %49ak beste hizkuntza batzuk. Gehien erabiltzen diren bigarren hizkuntzak gaztelania eta gaztelania kreolera dira, hain zuzen ere, New Yorkeko gaztelania hiztunak biztanleen %25 dira, hau da, 1,9 milioi gutxi gorabehera. Testuinguru horretan, ingelesa irakasterakoan, ikasleek etxetik dakarten gaztelaniaren ezagutzaz baliatzen dira. Bigarren Hezkuntzan matematika ikasgai, adibidez, ingelesez idatzitako jarduerak gaztelaniazko ohar batzuk daukate eta batzuetan gaztelaniara itzulita daude jarduerok; edota irakasleak hizkuntza batean eta bestean egiten den izenordainen erabilerei buruz hausnartzera bultzatzen ditu ikasleak (García & Wei, 2014).

Mexikoko testuinguruan, López-Gopar et al.-ek (2014) ingeleseko klase barruan, ingelesa, irakaskuntza-hizkuntza dena, erabiltzeaz gain, ikasleen beste hizkuntzak, hau da, gaztelania eta Mixtec hizkuntza indigena ere erabiltzeko proiektu bat martxan jarri zuten. Horren bidez frogatu zuten ikasleek etxetik zekarzkitzen hizkuntzak ikasgelan balioan jartzeak ikasleek norbere identitatea baloratzea eragiten duela.

Lin eta Hek (2017) Hong Kongeko Bigarren Hezkuntzako institutu batean ikasle pakistandar eta indiarrekin egindako ikerketa batek berretsi zuen, ingelesa irakaskuntza hizkuntza zen ikasgela batean, translanguagingek hizkuntza eta edukia integratzen dituen esku-hartzeak egitea errazten duela, translanguaging aldazio pedagogikoa egiteko estrategia gisa (adibidez, hitz tekniko baten esanahaia emateko ikasleen H1a erabiltzea) eta identitatea berresteko estrategia gisa (ikasleek beraien kulturako elementuak ezagutzea) erabiltzen denean.

Celic eta Seltzerrek (2012) translanguaging inplementatzeko gida bat aurkezten dute. Translanguagingen estrategien barruan, alde batetik, *Designing Units around Multilingual Culminating Products* aurkezten dute, hau da, proiektu eleaniztun bat helmuga izango duten unitateak sortzea. Proiektu horiek guztiek testuetan oinarrituta egon behar dute. Horrez gain, testuaren hartzailak eta helburua kontuan izanda, testuak hizkuntza bat baino gehiago tarteka dezakeela zehazten da. Bestalde, sekuentzia didaktikoei antz handia hartzen dieten atazak deskribatzen dira bertan: "Introduce the culminating product early in the unit and plan scaffolding that will help students to best create the product by the end of the unit."

Beste estrategia bat “Translanguaging with Multi-genre Writing” da, testu generoekin irakastea eta generoen ekoizpenean translanguaging sustatzea, alegia. Hemen zehazten da genero bakoitzaren ezaugarriak modu esplizituan irakatsi behar zaizkiela ikasleei, baita ere zilegi dela genero batzuetan ingelese eta ikasleen ama-hizkuntzak erabiltzea.

Dirudienez, translanguaging pedagogiaren barruan izaera diferenteko baliabide didaktikoak sartzen dira: hiztegi elebidunak, metahizkuntza gramatikala, generoen ekoizpena, edukiak eta hizkuntza integratzeko baliabideak, hizkuntza hegemonikoak, gutxituak..

2.2. Ikasgelan hizkuntza desberdinak integratzea: zenbait ondorio

Hizkuntza gutxitu bat dagoen tokietan translanguaging inplementatzeari errespetua zaio, izan ere, ikasleek hizkuntza nagusira jotzea eragin lezake (Cenoz & Gorter, 2017a). Era berean, beharrezkoa dirudi ikasgela barruan helburu-hizkuntza ahalik eta gehien erabiltzea ikasleek hizkuntza horrekiko esposizio gutxi daukatenean eskolaz kanpo (Turnbull, 2001), baita hizkuntza horrekiko atxikimendua sustatzeko (García-Mateus & Palmer, 2017), eta erabilera esparruak errespetatzeko ere (Idiazabal & Dolz, 2013; Idiazabal et al., 2015). Galeseko testuinguruan, esaterako, translanguagingen ikuspegia adoptatzea kontu handiz egiten da hizkuntza nagusia lehenestea eragin dezakeelako (Jones, 2017: 224). “(...) a suitable didactic intervention based on pedagogical translanguaging needs to be purposefully adapted to the context and to the students’ language profile”. Beraz, hizkuntza ezberdinek irakaskuntzan izango duten pisua testuinguruaren arabera izango da (Etxezarraga, 2016).

Horren harira, Bakerrek (2017) ere badu zeresana: kodeak nahastea edo banatzearen arrazoa eskola bakoitzean elebitasunak duen helburuaren arabera da: hezkuntza elebidunaren helburua hizkuntza nagusirako igarobidea izatea bada, hizkuntzak nahastera joko da, horrela, hizkuntza nagusiaren erabilera sustatzeko, eta ondorioz, hizkuntza gutxituarena higitzeko; aldiz, helburua hizkuntza gutxitua mantendu eta garatzea bada, hizkuntzak banatzea garrantzitsua izango da (Baker & Wright, 2017). Hain zuzen ere, hizkuntza gutxituak curriculumean presentzia zabala izan dezan, ikasgelako jarduerak espazio eta denbora bereizita sortu behar dute (Baker, 2017). Gainera, kode nahasketa dela-eta, hizkuntza gutxituekin dagoen beste arazo bat kode nahasketa ez-egonkorra da, adibidez *Spanglish* delakoa: aleatorioki hizkuntza bata eta bestea erabiltzeak hizkuntza gutxituarengandik urrundu, eta hizkuntza nagusira aldatzea eragin dezake. Hori dela eta, hezkuntza profesionalek hizkuntzak banatzearen garrantzia aldarrikatu dute (Baker, 2017).

Hirugarren kapitulu honetan translanguaging ikuspegiak hizkuntzen irakaskuntzari egiten dizkion ekarpenak edo planteatu diezazkiokeen erronkak ekartzen saiatu gara. Ikusi dugun bezala, translanguagingen erronka nagusietarikoa da hizkuntza gutxituan gaitasuna bermatzen duten translanguaging pedagogien ebidentzia zientifikoa eskasa dagoela (García & Wei, 2014). Hain zuzen ere, translanguaging pedagogikoaren adibide gehienetan beste hizkuntzak ingelesa garatzeko erabiltzen dira. Ikusi ditugun adibideetatik bitan soilik (Jones, 2017; Leonet et al., 2017) erabiltzen da ingelesa hizkuntza gutxitu bat garatzeko.

Beraz, mundu zabaleko ikerketen arabera, ikasgelan hizkuntza bat baino gehiago integratzeko egiten ari diren askotariko saiakerak kontuan izanda, eta EAEko hezkuntza sistemaren kasuan, hezkuntzaren erronka garrantzitsuenetako bat ikasleengan gaitasun eleanitza garatzea dela (Heziberri, 2020), uste dugu aurrerapauso handiak eman direla hizkuntzak ikas- eta irakasteko moduari dagokionez, eta horrek berarekin egokitzapen metodologiko bat eragin duela: hizkuntzak ez dira sistema isolatu gisa hartzen, modu integratuan irakasten baizik.

Aipatu ditugu baita ere sekuentzia didaktikoen eskaintzen dituzten abantailak, hala nola, hizkuntzen ikas- eta irakaskuntza sistematizatzen dute, emaitzen gaineko kontrola izatea ahalbidetzen dute eta ikasleak komunikazio egoera esanguratsuetan jartzea bultzatzen dute. Ikusten da, beraz, arazo batzuei konponbidea ematen zaiela. Hala ere, batez ere idatziaren lanketari begiratu diogu, ahozkoaren lanketa oraindik ere eskolan baztertuta dagoela ikusten da, idatzizkoa lantzeko tradizio luzeagoa dagoelako beharbada, hurrengo kapituluan azalduko den moduan. Gainera, nahiz eta aipatutako sekuentzia didaktiko batzuen ekoizpenek hiru hizkuntzetan ekoiztutako produktu bakarra sortu duten, normalean testu ekoizpena hizkuntza bakar bati dagokio. Hizkuntza bat baino gehiago integratzen dituen testu-ekoizpen bat, besteak beste, ikas- eta irakas-objektu bihurtzeak erronka bat suposatuko luke. Baker eta Jonesek (1998: 591) ere azpimarratzen dute: “ (...) the use of bilingual materials, particularly when they are built in a non-repetitive, non-parallel, but incremental and well sequenced manner, can be valuable, particularly in high schools. However, the production and availability of materials in many minority languages is difficult to achieve”.

Eta dauden material horietan hizkuntzen didaktika bateratua egitea zaila dela nabaria da. Hain zuzen ere, lehen kapituluan aipatu moduan, euskara, gaztelania eta ingelesa irakasteko materialen analisi esploratorio batek erakusten du hizkuntzak modu integratuan irakasteko zailtasunak daudela (Manterola et al., onartuta).

Hirugarren kapitulu honetan, beraz, teorikoki urrun dauden bi ikuspegi aurkeztu dira: alde batetik, hizkuntza alternantzia proposamen didaktiko ezberdinen bidez, eta bestetik, translanguaging pedagogikoa. Bata eta bestea gelartzeko orduan, ikusi den ezberdintasun nagusia da sekuentzia didaktikoen bidezko hizkuntzen trataera bateratua egiteko proposamen didaktiko gehienek aurre- eta ondo-testuak ekoizten dituztela hizkuntza desberdinetan, eta ez ariketa solteetan hizkuntza desberdinak integratzen dituztela; translanguagingek, aldiz, jarduera solteetan bakarrik egiten du alternantzia; sekuentzia didaktikoen, berriz, eginkizun komunikatiboaren mailan, eta kasu askotan ariketa solteetan ere bai (Badiola et al., 2013). Beraz, ezberdintasun handiena ez litzateke izango alternantzia egin ala ez, baizik eta noiz eta nola, alternantziari etekin didaktiko handiena modu fidagarrian ateratzeko.

IV. KAPITULUA

JENDAURREKO AHOZKO AZALPENAREN DIDAKTIKA

Sarrera

Ahozko hizkuntza izango dugu hizpide hurrengo kapitulu honetan, zehazkiago, jendaurreko ahozko azalpena, testu genero hori aukeratu dugu-eta tesi proiektu honetan aurkeztuko den esperimentazio didaktikorako. Ahozko hizkuntza landu nahi izan dugu erronka bat izango zela jakin arren, izan ere, idatziaren irakaskuntza izan da eskolaren zeregin tradizionala, ahozkoa ikasleek “egitearen egitez” ikasiko zutelakoan. “Saber hablar es una competencia fundamental poco enseñada porque arrastra una doble problemática: la falta de una tradición pedagógica sobre su enseñanza en nuestro país y las dificultades prácticas de su aplicación en clase.” (Vilà i Santasusana & Castellà, 2014: 19).

Planek (2015) ahozkoaren hiru funtzio bereizten ditu: alde batetik, modalitate pedagogikoak. Irakaslearen ahozkoa da hau, eta beraz, bitarteko gisa erabiltzen da, irakatsia izan gabe, ondoko funtzio hauetarako, besteak beste: gela kudeatzeko, ariketak azaltzeko edota galderak egiteko; ahozkoaren bigarren funtzioa jakintza eraikitzea da (ahozko gogoetatsua – Chabanne eta Bucheton, 2002). Horrela, ahozkoak jokatzeko duen roletako bat da, adibidez, potentzial kognitiboa eta pentsamenduaren funtzionamendua egituratu, findu eta ustiatzea (Gaussel, 2017) edota mediazio metakognitiboari bide ematea (Colognesi & van Nieuwenhoven, 2016; García-Azkoaga, 2015); azkenik, ahozkoak ikaskuntza objektu funtzioa dauka: hizkuntza behaketa- edo azterketa-objektu bihurtzen da, ahozko ekoizpenen kalitate eta eraginkortasuna hobetze aldera, eta komunikazio abileziak garatzeko (Plane, 2015). Azken funtzio honen barruan ideia da ikasleek ahozko komunikazioan gertatzen diren prozesuen gaineko kontzientzia hartzea, horien gaineko kontrola izateko, eta horrela, ikasleek haien portaera autoerregulatu dezaten. Lan honetan azken horri egingo diogu erreferentzia, ahozko hizkuntzaren irakaskuntzaren helburu gisa.

1. Ahozko hizkuntza eta bere irakaskuntza

Ahozko hizkuntzaren lanketari dagokionez, Dolz eta Schneuwlyk (2006) aipatzen dute ahozkoa ez dagoela ondo mugatuta objektu irakasgarri gisa, horregatik, oraindik idatziaren menpe dago hein handi batean. Hain zuzen ere, irakasleentzat erronka bat suposatzen du

ahozko hizkuntza irakasteak, ahozko hizkuntza irakaskuntza objektu gisa definitzea zailagoa delako (García-Azkoaga, 2015), eta beraz, idatziarekin alderatuta, konplexuagoa delako modu zehatzean identifikatzea zer den irakasgarria (Manterola, argitaratzeko onartua).

Ahozkoaren irakaskuntza dela eta, Dolz eta Schneuwlyk (1989) batez ere genero formalak lantzea hobesten dute, izan ere haien xede hizkuntza frantsesa ama hizkuntza da, eta gehien bat irakaskuntza elebakarra da eskuartean dutena. Gure kasua nahiko ezberdina da, euskara H1 edo H2 da eta irakaskuntza eleaniztuna dugu testuingurua. Nolanahi ere, gure ikerketarako testu genero formal bat aukeratu dugu ikerketaren ardatz gisa, ahozko azalpena, hain zuzen ere.

Aipatu dugu ahozko hizkuntza lantzeko hainbat zailtasunekin egiten dutela topo irakasleek. Dolz et al.-ek (2001) hizkuntza idatzia eta ahozkoa lantzearen desberdintasunen artean, hauek aipatzen dituzte: alde batetik, berrikuspenerako aukera: hizkuntza idatzia berrikusi daiteke, testua berriz hartu, landu, zuzendu daiteke. Ahozko testua denean, aldiz, ekoizpen prozesua eta produktua gauza bera dira. Norbere portaeraren gaineko kontrola ekoizpenean bertan egin behar da, hortaz, garrantzitsua da automatismoak sortzea, hitza prestatzea. Hizkuntza idatzia gero zuzentzen da; ahozko hitza, aldiz, lehenago, prestaketa sakon baten bidez. Bestetik, norbere jokabidea behatzeko aukera ere desberdina da modalitate batean eta bestean: testu idatziak denboran irauten du; hori dela eta, posible da norberak ekoiztu duen testuaren inguruan hausnartzea. Ahozko hizkuntza behatzeko, aldiz, grabatu egin behar da, grabazioak hitza objektu bihurtzen baitu. Hala ere, idatzizko erabilera batzuk (chat-ak) ahozkoaren antzeko izan daitezke.

Larringanek (2007) ahozkoan egiten den errearen tratamenduaren inguruan dihardu. Berak dioenez, akats gehiago dago ahozkoan ahozko hizkuntza berrikusi gabe aurkezten delako, eta hanka-sartzerik eginez gero, enuntziazioaz baliatu behar da.

Errorea, hizkuntza idatzian, nozio estatikoa da: enuntziatu oro zuzena da edo gaiztoa, eta errorea zuzentzeko eta berridazteko aukera du hiztunak. Edo halakotzat jotzen dugu. Ahozko hizkuntzan, errorea nozio dinamikoa da: hiztunak hanka-sartzea eginez gero, mezua luzatuz soilik eta aurrera joaz zuzen dezake (Larringan, 2007: 95).

Kontuan hartuta ahozko hizkuntzak eta idatzizko hizkuntzak ez dutela modu berean funtzionatzen, batean eta bestean akatsa nola tratatzen den, eta bata eta bestea nola ebaluatzen den ezberdina izan beharko litzateke (Larringan, 2007). Era berean, Dolz eta Schneuwlyk ere (2006) diote ahozkoaren ezaugarri diren erreformulazioak, berrasteak, hasiera

faltsuak, erdizka uzten diren esaldiak, eta abar zabor gisa hartzen direla baina “zabor” horrek kasu bakoitzean “funtzio” ezberdina bete dezakeela.

Ahozko hizkuntza elkarreragin sozialen bidez ikasten den ustea dago, baina De Pietro eta Dolzi (2007) jarraiki, eskuhartze didaktikoak diseinatu behar dira ahazko hizkuntza irakasteko, “Izan ere, ikasleek ez dute ia aukerarik, eguneroko elkarrekintzaren bidez, konbentzio sozialek tinko egituratzen dituzten komunikazio formak menderatu ahal izateko beharrezko diren gaitasunak garatzeko. Adibidez, elkarrizketa, hitzaldia edo debatea” (De Pietro & Dolz, 2007: 153). Beraz, ikasleek komunikazio modu desberdinei leku ematen dieten baliabide komunikatibo espezifikoei buruzko ezagutza bereganatu behar dute, ikasleen testuinguru sozialak ez baitu beti ziurtatzen komunikazio modu guztietarako sarbidea. Hizkuntza gutxitua presente dagoen egoeretan, esku hartze didaktikoa are funtsezkoagoa da, eskolaz kanpo ahazko hizkuntza praktikatzeko aukera gutxi egoten delako.

Ahozkoaren lanketa sistematiko baten bidez, ikasleek beraien mintzaira-portaera propioarekiko erlazio kontziente eta borondatezkoa garatuko dute, eta hitz egiteko (eta idazteko) gaitasunak hobetzeko tresna eraginkorrek emango zaizkie ikasleei (Schneuwly et al., 1996).

Gure ikerketan, esan bezala, ahazko aukezpena landuko dugu, baina hiru hizkuntza ezberdin integratuz osatzen dena, euskara, gaztelania eta ingelesa, hain zuzen ere. Irakaskuntza eleaniztunerako baliabide didaktikoa da diseinatu eta esperimendu nahi duguna. Helburu hori kontuan izanik, eta 3. kapituluari ikusi duguna gogoratuz, erabili nahi dugun testu generoa, sozialki ezaguna, erabilera nahiko arrunta duena izatea nahi dugu, eta hala dela uste dugu.

Ondoren datorren kapituluari, eta jarraian, jendaurreko ahazko azalpenaren ezaugarriak zehaztuko ditugu. Izan ere, atal honen helburua da ikustea ea zein ezaugarri diren pertinenteak ahazko azalpena irakasteko sekuentzia didaktiko batean lantzeko. Bestalde, hizkuntza bat baino gehiago tartekatzen dituzten eta gizartean aurki daitezkeen ahazko azalpenen zenbait adibide (testu sozial) ere emango ditugu, aukeratu dugun testu generoaren irudikapen argiagoa eta errealagoa egite aldera.

Horrez gain, jendaurreko ahazko azalpenaren didaktikari begira, curriculum dekretuak ahazko azalpenaren lanketari dagokionez esaten duena zehaztuko dugu alde batetik, eta bestetik, ahazko azalpenak lantzeko sekuentzia didaktiko batzuk aurkeztuko ditugu.

2. Jendurreko ahozko azalpenaren oinarritzko ezaugarriak

Eskola testuinguruan oso gutxitan da ahozko azalpena ikaskuntza objektu, ikasleek ezagutu beharreko jakintzagai (Colognesi & Deschepper, 2019; Dolz & Schneuwly, 2016; Simard et al., 2010) eta, ondorioz, gehienetan ez da egiten genero horren lanketa sistematikorik (García-Azkoaga, 2007); horren ordez, ahozko azalpena jakintza transmititzeko eta ikasleek ikasgai baten edukia bereganatu duten ala ez ebaluatzeko tresna gisa soilik hartzen da (García Azkoaga, 2007), eta ikasleek jada testu genero hori ekoizten jakingo balute bezala jokatzen da.

Honela definitzen du García-Azkoagak (2007) ahozko azalpena:

Azalpen-testua monologala edo bakarriketazkoa da eta “mintzajardun horren helburua dela eta, azalpenaren ekoizlea behartuta dago entzuleen ezaugarriak kontuan hartzea, eta horiek dituzten edo ez dituzten jakintzak aurreikustera, eta jakina, horren arabera testua modu jakin batean lantzea, edukia egituratzera eta helburua lortzeko egokienak diren baliabide diskurtsiboak erabiltzea” (García-Azkoaga, 2007: 182).

Bestalde, ahozko azalpena testu luzea izan ohi da: horrek eskatzen du gai eta azpigaien antolaketa egokia egin behar duela hizlariak, eta horretarako hizkuntza baliabide egokiak erabiltzen jakin behar du, entzuleak azalpena ondo ulertu dezan. Era berean, gai aldaketak modu esplizituan markatu behar dira, tematizatzaile edo markatzaile diskurtsibo baten bidez (Arriola et al., 2006; Battaner et al., 1997). Dolz eta Schneuwlyk (2006: 179) azpimarratzen dute ahozko azalpen batean zeharo garrantzitsua dela modu esplizituki egituratuan zuzentzea hartzaileei. Horretarako, metadiskurtsoaz baliatu behar da, alegia, ahozko azalpenari buruzko metahizkuntza sarri erabili behar da, adibidez, ‘hitzaldi honek lau atal izango ditu’ edo ‘nire azalpenean zehar hainbat gai eta azpi-gai bereiziko dira’. Testua modu egokian kudeatzeko, alde batetik, kohesio tematikoa zaindu behar du hizlariak; bestetik, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ondo bereizi (Battaner et al., 1997). Idatzian puntuazioak betetzen du zeregin egituratzailea hori, hau da, puntuazioak informazioa hierarkizatzen du (Battaner et al., 1997), baita testu antolatzaileek ere, esaterako, ‘lehenik eta behin’, ‘lehenengo hariari jarraituz’, ‘era berean’, ‘esate baterako’, ‘izan ere’.

Hizlariak entzuleen ezaugarriak kontuan hartuko ditu, aldi berean, entzuleen interesa pizten saiatuko da eta entzuleek gaiari buruz dituzten aurrezagutzak eta gaiari buruz espero dutena kontuan izango du. “Horretarako, edukiaren berritasuna ebaluatu behar du eta azalpenean egon daitezkeen zailtasunez jabetu behar da ondoren horiek gainditzeko.” (Mujika,

2013: 3). Vilà i Santasusanak (2005: 40) dioenez, igorlea hartzailearen lekuan jartzen da eta hartzailearentzat ulertzeko zaila izan daitekeena baloratzen du, eta zenbait estrategia komunikatiboren bidez, informazio berri hori ulergarri egiten saiatzen da: “(...) compartir los significados entre los participantes es un elemento clave de la eficacia comunicativa”.

3. Jendaurreko ahozko azalpen elebi/eleaniztunen praktika sozialak

Ahozko azalpen testu elebi/eleaniztunak gizarteko hizkuntza praktika nahikoa ohikoak edota geroz eta ohikoagoak direla uste dugu, adibidez, kongresuetan (Cenoz & Gorter, 2017a), emanaldi politikotetan, kultura eta merkataritzan, ikuskizun edo ekimenen aurkezpenetan aurkitu ditzakegunak.

“Un aspecto muy destacado de las prácticas discursivas en nuestra sociedad es el del plurilingüismo: en muchas de ellas se utiliza de forma simultánea y alternativa más de una lengua (tanto en la interacción entre los participantes como en el apoyo gráfico y audiovisual de los textos más o menos extensos de los cuales disponen” (Martín, 2018: 11).

Hain zuzen ere, bi eta hiru hizkuntza ekitaldi berean erabiltzea geroz eta arruntagoa da, bertako hizkuntza ofizialen presentzia indartzeko, nazioarteko harremanak eraginda, edota ekitaldiaren nazioarteko izaera azpimarratzeko. Zenbait hizkuntza ekoizpen berean integratzeak modalitate desberdinak har ditzake: eduki bera hizkuntza guztietan adieraziz eman daiteke edo hizkuntza bakarrean; ahozkoan hizkuntza batean aritu bitartean, PPTan bestean aritzea ere ohikoa dela dirudi.

Eta hori horrela dela frogatzeko, hurrengo atal honetan gizartean aurki daitezkeen eta hizkuntza bat baino gehiago integratzen dituzten ahozko azalpenen praktika sozialen adibideak aurkeztuko ditugu, 2017-2019 urte bitartean jaso ditugunak. Horretarako, gizartean aurkitutako praktika horien zenbait ezaugarri emango ditugu: hizkuntza alternantzia zein egoera komunikatibotan egiten den, zein helbururekin eta zein modalitate edo estrategia erabiltzen den hizkuntza bat baino gehiago integratzeko. Ikusiko dugunez, beraz, hizkuntza desberdinak integratzen dituen ahozko azalpena ez da genero ez-ohikoa, are gehiago, Euskal Herrian ohiko hizkuntza praktika da. Hori guztia kontuan hartuta, testu-genero interesgarria dirudi HTBren bidez lantzeko. Hain zuzen ere, ikerketa honetan aztertu den sekuentzia didaktikoan ikasleek egin behar duten testu-ekoizpen ariketa ahozko azalpen hirueleduna da, hau da, euskara, gaztelania eta ingelesa konbinatzen dituen ahozko azalpen bat, 5. kapitulan azalduko dugun bezala.

3.1. Hizkuntza alternantziaren egoera komunikatiboa

Testuinguru komunikatibo anitzetan aurki ditzakegu hizkuntza bat baino gehiago integratzen dituzten ahozko azalpenak. Aurkitu ditugun adibide gehienak kongresu zientifikoak, edo oro har, biltzarretako hitzaldienak izan dira, testuinguru formal eta akademikoetan egindako ahozko azalpenak, hain zuzen ere. Baina ikusiko dugun moduan, badira bestelako adibideak ere, eta Euskal Herrian bertan gainera. Aipatu egin behar da tesigilearen lekukotza zuzenaren bidez jasotako adibideak direla batzuk.

Ottawan, 2018ko maiatzaren 3an eta 4an ospatu zen “Translanguaging: Opportunities and Challenges in a Global World” kongresura (hemendik aurrera CCERBAL⁷) tesi honen egilea joan zen. Bertan, hitzaldi gonbidatu bat baino gehiagotan ingelesa eta frantsesa tartekatzen dira, adibidez. Beste adibide bat Euskal Herrian bertan ikusitakoa da: “Jendaurreko euskarazko komunikazioa: praktikatik ikasten” 2018ko EHUko uda ikastaroan hitzaldietako bat “Hizkuntzen kudeaketaren eredu konplexu bat: Donostia Zinemaldia⁸” izenekoa izan zen. Bertan azaltzen da, besteak beste, Donostia Zinemaldiaren amaierako galako diskurtsoan euskara, gaztelania eta ingelesa integratzen direla; Donostian 2016ko abenduaren 15 eta 16an ospatu zen Europako Hizkuntza-Aniztasunaren foroan ere, hizkuntza alternantzia gertatzen da hainbat momentutan: adibidez, UNESCO Etxearen zuzendariak ekitaldiaren aurkezpena egiten duenean euskara, gaztelania eta ingelesa tartekatzen ditu, edota foroaren aurkezleak foroa ospatu zen egunetako batean egindako aurkezpenean ere euskara eta ingelesa tartekatzen ditu; 2016ko urriaren 28an ospatu zen 2015/2016 ikasturteko Letren Fakultateko Graduazio Ekitaldi⁹ osoa elebiduna da, euskara eta gaztelania txandakatzen direlako; “Líneas de trabajo en relación al desarrollo atípico del lenguaje en niños bilingües euskera-castellano/ francés y plurilingües” Nafarroako Unibertsitate Publikoak 2017ko irailaren 29 eta 30erako antolatutako uda ikastaroan¹⁰ ere ikusi dugu nola hizlari batek euskara eta gaztelania tartekatzen dituen bere diskurtsoan.

⁷ CCERBAL 2018. Translanguaging: Opportunities and Challenges in a Global World. 2018ko maiatzak 3-4. Sarean: <https://ccerbal2018.sciencesconf.org/?forward-action=index&forward-controller=index&lang=en>

⁸ Sarean: <http://www.soziolinguistika.eus/es/node/6765>

⁹ Sarean: <https://ehutb.ehu.es/video/58c672fcf82b2b782f8b456d>

¹⁰ Sarean: <https://www.cursosveranoupna.com/curso/lineas-de-trabajo-en-relacion-al-desarrollo-atipico-del-lenguaje-en-ninos-bilingues-euskera-castellano-frances-y-plurilingues/>

Ikergazte kongresuan¹¹ hizlari batek euskaraz ematen du bere diskurtsoa, PPTa ingelesez idatzita daukan bitartean; *youtube* plataforman ere topa daitezke antzeko praktika sozialak. Adibidez, liburu baten kritika¹² egiten dute ikasle bik, alemana, ingelesa eta gaztelania tartekatuz.

Ahozko azalpenaz gain, bestelako askotariko testu-generoetan ere topa daiteke hizkuntza alternantzia. Adibide gutxi batzuk aipatuko dira jarraian: irratan, webguneetan eta sare sozialetan ere aurkitu ditugu hizkuntza alternantziaren adibideak: hasteko, “El bertsolarismo y el rock de la mano” elkarrizketa elebiduna 2018ko urtarrilaren 17an Euskadi Irratian¹³, non elkarrizketatzaileak gaztelaniaz egiten duen eta elkarrizketatuak euskaraz erantzun (erantzun bakoitzaren amaieran elkarrizketatzaileak elkarrizketatuak esaten duena gaztelaniaz laburbiltzen du); *Pint of Science* festibalaren webgunea da beste adibide bat, non webguneko testuan euskara, gaztelania era ingelesa tartekatzen diren (2019ko edizioko webgunea jada ez dago erabilgarri, 2020koa ari dira prestatzen-eta; hala ere, adibidea beherago azaltzen da); Ezker Anitza alderdi politikoaren udako kanpainako eslogan elebiduna ere aurkitu dugu, “No ezetz da”¹⁴; Iñigo Urkullu Lehendakariak Twitterren¹⁵ 2019ko otsailaren 4an idatzitako txio batean ere euskara eta gaztelania tartekatzen ditu, 1. eranskineko pantaila-irudian ikus daitekeenez: “Lankidetzako 2018ko Ignacio Ellacuría saria Mikel Ayestaranek jaso du gaur. @mikelayestaran ha demostrado ser un activista por la solidaridad y la cooperación; es más que un periodista, es un ‘cooperante periodista’”.

Telesail eta abestietan ere aurkitu dugu hizkuntza alternantzia. *How to get away with murder* telesaila, esaterako, ingelesez egin da, eta episodio batean, mexikar jatorriko bi pertsonaik gaztelania erabiltzen dute elkarri zuzentzeko ingelesez ari diren elkarrizketa baten erdian; NØGEN musika taldearen “Gertu” abestian euskara eta ingelesa tartekatzen dira: kanta

¹¹ Sarean: <https://www.unibertsitatea.net/aktualitatea/azken-ikergazte-kongresuko-hitzaldi-nagusiak-osorik-ikusgai>

¹² Sarean: <https://www.youtube.com/watch?v=OVK2kxP8SzA>

¹³ Sarean: <https://www.eitb.eus/es/radio/radio-euskadi/programas/graffiti/audios/detalle/5341526/audio-el-bertsolarismo-rock-mano-----/>

¹⁴ Sarean: <http://ezker-anitza.org/blog/tag/ez-ezetz-da-eu/?lang=eu>

¹⁵ Sarean: <https://twitter.com/iurkullu/status/1092424130400579584>

ingelesez da, errepika euskaraz. Bai telesailaren transkribapena, zein kantaren letra 2. eranskinean bildu ditugu.

Azkenik, hainbat karteletan aurkitu dugu hizkuntza alternantzia, besteak beste, *Summer in the USA, Kids & Us* edo *Surfing Zumaia* kartel hirueledunak, non ingelesa, gaztelania eta euskara tartekatzen diren; *Excellence in Basque Studies VIII* udako ikastaroko hitzaldi baten izenburua elebiduna da ingelesez eta euskaraz *Creativity is seeing what same as the others... eta beste era batera pentsatzea*; *toureko* kartela ere hirueleduna da euskaraz, frantsesez eta ingelesez. Kartel horiek guztiak 3. eranskinean aurki daitezke.

3.2. Hizkuntza alternantziaren konbinaketa modu ezberdinak

Hizkuntza alternantziaren ondoko lau konbinaketa modu hauek aurkitu ditugu aztertutako praktika sozialetan: agurrean hizkuntza bat baino gehiago integratzea; eduki edo informazio ezberdina ematea hizkuntza bakoitzean; beste hizkuntzan informazioa errepikatzea; beste hizkuntzan informazioa laburbiltzea; ahozko/idatzizko alternantzia. Aukera bakoitzaren barruan aurkituko ditugun adibideak tesigileak transkribatutakoak dira.

- Hasierako zatian hizkuntza bat baino gehiago integratzea:

Hainbat adibide aurkitu ditugu hasierako zatian hizkuntza desberdinak integratzen direnekoak: CCERBAL kongresura bertaratzeaz gain, azterketa hau egiteko hitzaldi nagusien bideoak¹⁶ youtube plataforman ikusi ahal izan ditugu.

Lehenengo egunean kongresuko arduradunek kongresuari hasiera emateko ingelesa eta frantsesa tartekatzen dituzte, ia lehen 3 minutuetan (Ofelia Garcíaren hitzaldia hasi aurretik ikus daiteke hori). Hizkuntza bakoitzean informazio desberdina ematen dute. Kongresuko agurrean ingelesa eta frantsesa tartekatu ondoren, Kevin Kee-ri, Letren Fakultateko dekanuari, ematen diote hitza. Beraz, kongresuaren hasierako ongi-etorri ekitaldia elebiduna dela esan daiteke.

madames et monsieurs / bonjour et bienvenue sur le campus bilingue de la université d'Ottawa / et au colloque de CCERBAL deux mille dix-huit / je m'appelle Nicola Slavkov / and I'm the director of the Canadian Centre for Studies and Research on Bilingualism and Language Planning de CCERBAL // and I am Jeremie XX (=?) director of the Official Languages and Bilingualism Institute and Associate Team of

¹⁶ Sarean Ofelia Garcíaren hitzaldi nagusia:

<https://www.youtube.com/watch?v=6237bAOa0MM&feature=youtu.be>; Danièle Moore-ren hitzaldi nagusia: <https://www.youtube.com/watch?v=6BlK6z48L0&feature=youtu.be>; Guillaume Gentilen hitzaldi nagusia: <https://www.youtube.com/watch?v=lJ7A17bUye0&feature=youtu.be>

the Faculty of Arts // as conference chairs we would like to thank you for being with us here today / The Canadian Centre for Studies and Research on Bilingualism and Language Planning promotes active research in form of dialogue as well as expertise on current issues in language teaching and learning assessment and policy / on réalise le projet de reserche au cour de chercheur invite en provenance de X (=?) international (...)

Kongresu berean, hitzaldi gonbidatueta batean, hizlariak gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez agurtzen ditu entzuleak, eta hortik aurrera ingelesa eta frantsesa tartekatzen ditu bere hitzaldiaren gaia aurkeztu, hitzaldian zehar erabiliko duen hizkuntza zein izango den esateko eta eskerrak emateko. Beraz, hitzaldiaren sarreran hizkuntza desberdinak integratzen dituztela esan daiteke. Hizkuntza bakoitzean informazio desberdina ematen du:

bueno / buenos días a todos / a: a: bonjour a: good morning a: it's really a wonderful pleasure to be here with you today avec mes amis canadiens et a: tous les autres mes amis a: who are deaf / a: and I'm so happy that the deaf community is here also /

perhaps we struggle and we grapple with our bilingualism but there is some hope maybe / a: of things a: coming together / aujourd'hui ça que je vais faire ce d'essayer d'expliquer le translanguaging / à de ma point de vue c'est ne pas le point de vue de tout le monde mais c'est **ma** point de vue / a : a : et je vais parler en anglais parce que on m'a dit de parler en anglais / mais a : je vais a: simplement a : remercie tout les francophones qui sont ici / e a : spécialement a : Nicola et Jeremie a : who have really welcomed me Je- e: Nicola picked me up from the airport and gave me a big hug after that immigration officer XXX (ez da entzuten) / as I said keeps you very humble /

Hortik aurrera hitzaldi osoa ingelesez egiten du eta PPTko diapositibak ere ingelesez daude.

Lehenago aipatu dugun 2016ko Europako Hizkuntza-Aniztasunaren Foroan, Iñigo Urkullu Lehendakariak ere ematen duen hitzaldian euskara erabiltzen du gehienbat, baina ongietorria emateko euskara eta gaztelania tartekatzen ditu, hizkuntza bakoitzean antzeko informazioa emateko.

Herri Agintariok / UNESCO Erakundeko arduradunok / jaun-andreok arratsalde on / ongi etorri / bienvenidas y bienvenidos al Foro de la Diversidad Lingüística de Europa / Donostia dos mil dieciséis / Donostia bi mila hamasei / Donostia bi mila hamasei Europako Kultura hiriburuaren ibilbidearen amaierara hurbiltzen ari gara / egitasmoa erralitate bihurtuta ikusteko aukera izan dugu eta gaur kulturaren kateari jarraipena eman diogu Aaruseko eta Pavoseko ordezkariekin batera / elkarrekin bizitzeko kultura zabaldu dugu /

Hizkuntza alternantziak arrazoi sentimentala ere izan dezake, hurrengo adibidean ikus dezakegunez. Europako Hizkuntza-Aniztasunaren Foroan, hizlari batek, galeskoa izan eta galesa bere lehen hizkuntza izan arren, euskaraz egiten du agurra, entzuleenganako hurbiltasuna lortzeko.

Eskerririk asko / e: egun on denoi e: Ellin Jones naiz eta e:m Galesen bizi naiz eta e: e:m eu- e: u- e: Aberystwytheko Unibertsitatean egiten dut lan eta oso pozik nago hemen e: egotea eta eskerririk asko kon- kon- gon-bi-da-pe-na-ga-tik gonbidapenagatik bueno / baña (*jendeak txalotu egiten du eta berak barre egiten du*) bueno barkatu gaur ingelesez hitz egingo: hitz egingo dut / e:m // we have with us today for very e: knowledgable a: commentators on the charter / (...)

- Eduki edo informazio ezberdina ematea hizkuntza bakoitzean.

CCERBAL kongresuan, adibidez, hitzaldi gonbidatueta batek, hasi aurretik, hitzaldian zehar egingo duen hizkuntza kudeaketa azaltzen du ingelesez eta frantsesez. Hain zuzen ere, esaten du bere hitzaldian zehar ingelesa eta frantsesa tartekatuko dituela, eta ingelesez hitz egiten duenean frantsesez egongo direla idatzita diapositibak, eta alderantziz:

so in the spirit of translanguaging / I will try to alternate english and french / a: providing a: french support while talking in english and vice versa / a: and also providing a lot of visual supports a: even though the whole meaning of the conference will be bilingual so a: the hope is that a: even if you're more at ease with english a: you will get the gist of the talk / in french and aussi en français meme si vous puisse allez en français comme en anglais / j'espère que vous allez quand meme comprendre suivre meme si un peu de nuances qui vont vous échapper e / a:m as you know a situation of bilingualism is rarely balanced and symmetrical / and that's why the: you will hear more english / (...)

Bere hitzaldian zehar hizkuntza bakoitza eduki desberdina transmititzeko erabiltzen da, ondoko adibide honetan, esaterako, itzulpengintza ikasketek egindako ekarpenez dihardu ingelesez, eta frantsesera pasatzerakoan, itzultzaile batek hartu dezakeen lehen erabakiaren gaineko azalpenak ematen hasten da:

there's a very long history a: a: a very rich contribution of translation studies in addition to terminology / work in comparative stylistics like XXXXX (=?) clasique / a: theoretical work a: as well as practical work like manu- a: textbook manuals for a: professional translation training / and from that you find a wealth of of strategies what they bring is a: a number of options and strategies that you can use / dunque e la premier choix qu'un traducteur peut faire ce de quel degré il va naturalisé le text source dans dans la langue simple (...) / and what's interesting to know is that to a: these options that translators have available often they are also situated historically and ideologically and they reflect the X (=pair?) relationship between languages /

Ondoren, Donostiako zinemaldiaren amaierako galaren une bati erreparatuko diogu. Bertan, hizkuntzak txandakatzen dira. Hasieran, ongi etorria euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz errepikatzen da, baina gero informazio berria ematen da hizkuntza bakoitzean.

gabon eta ongi etorri Donostia Zinemaldiaren hirurogeita bosgarren edizioari amaiera emango dion gala honetara / good evening and welcome ladies and gentlemen / buenas noches y bienvenidos a la gala de clausura de la sesenta y cinco edición del Festival de Cine de San Sebastian / azken bederatzi egunotan erabatekoa izan da inbasio zinematografikoa / bertan parte hartzen gozatu dezazuela espero dugu / aunque todavía queda disfrutar de uno de los momentos más importantes y emotivos del festival / la entrega de premios / over these last days students from film schools around the globe have shown their first works in public / zinema ikasleen hamaseigarren nazioarteko topaketaren epaimahaiko presidentek / Jose Luis Torres Leivak / eta baita ikasleak ere erabaki dute Panavisión sariaren irabazlea Boas Franckle zuzendarriaren berrehun eta hamabi film laburra dela /

UPV/EHUko 2015/2016 ikasturteko Graduazio Ekitaldi osoa ere elebiduna da, hau da, euskara eta gaztelania txandakatzen dira, informazio desberdina emateko. Lehenengo 10 minutuetatik egindako transkribapena da ondoko hau. Ekitaldiaren aitabitxiak esaten duenaren zati labur bat soilik transkribatu dugu, adibide gisa, hizkuntza bakoitzean egiten duen interbentzioa nahiko luzea delako. Ikus daitekeenez, hizkuntza bakoitzean informazio desberdina ematen du. Hasieran, mahaikideak eta bertan daudenak deitzeko interbentzio laburra egiten du euskaraz, eta jarraian bere lana bere pasioa dela adierazteko gaztelania erabiltzen du. Transkribatu dugun zatiaren bukaeran EHU lan egitearen ohorea euskaraz azaltzen du eta gaztelaniaz bere ikasle garaia ekartzen du gogora.

Egresados de la Facultad de Letras, como padrino vuestro que soy, os debo una explicación (...) Ni poz-pozik nago letren fakultateko dekanok taldeak neu hautatu izanarekin (...) Si querían elegir a alguien alto, guapo, glamuroso, elegante y sofisticado, deberían haber elegido a George Clooney (...) serio hitz egingo dut. Ohorea da ekitaldi berezi honetako aitabitxi izatea (...) Mi relación con la facultad de letras, antes conocida como facultad de filología, geografía e historia, comienza en 1986 (...)

María Solana Nafarroako hezkuntza kontseilariak euskara eta gaztelania tartekatzen ditu "Líneas de trabajo en relación al desarrollo atípico del lenguaje en niños bilingües euskera-castellano/ francés y plurilingües" 2017ko uda ikastaroan ematen duen hitzaldian informazio desberdina adierazteko.

Hablar de carácter preventivo es hacer mención a la necesidad de detectar de forma temprana / y esto lo mencionaba antes también / distintas situaciones de desarrollo atípico / creemos que es importante esa detección temprana / como se establece en el título de este curso / y contemplar / las medidas educativas que den respuesta a la necesidad detectada de manera temprana / en este

aspecto de detec- de detección precoz creemos que es necesario contar con pruebas objetivas que nos informen del desarrollo del lenguaje en cada una de las lenguas //gzteleraz eta frantsesez esaterako izan badira era horretako frogak / euskaraz aldiz bide luzea dugu egiteko oraindik / hori da daukagun errealidadea eta hori da aurrean duguna / iaz Nafarroako Unibersitate Publikoak antolatutako udako ikastaroa eta gero / zuek biek e: aipatu duzue / hemen zareten askok seguru eta beste: beste zenbaitek lan-talde bat antolatu: zenuten / hain justu euskararen garapena / hori nola ematen den neurtzeko froga espezifikoak lantzeko /

A Union of Diversity deitutako liburuaren kritika hirueleduna¹⁷ ere aurki dezakegu youtuben, non bi elkarrizketatzaileek alemana, ingelesa eta gaztelania tartekatzen dituzten, hizkuntza bakoitzean informazio desberdina emateko.

Pint of Science Festibalaren webguneko testuan euskara, gaztelania eta ingelesa tartekatzen dira, hizkuntza bakoitzean informazio ezberdina adierazteko:

“How can bilinguals switch between their languages fluidly? Nola? How? Comme? Zein da garunak egoera horri ematen dion erantzuna? Let’s have a look of this! Then, we will answer to an even deeper question: How are languages stored at our brain?”

- Beste hizkuntzan informazioa errepikatzea.

Aurreko adibideetan, hizkuntza bakoitzean informazio ezberdina ematen dela ikusi dugu. Orain, berriz, informazioa itzuli egiten dela ikusten dugu, alegia, informazio berdina ematen da bi (edo hiru) hizkuntzetan.

Lehenik eta behin, Europako Hizkuntza-Aniztasunaren Foroa ekarriko dugu (Donostia, 2016). Erakutsiko dugun lehen adibidean, ikusiko dugunez, ez da guztia beste hizkuntzan errepikatzen, informazio berria ere ematen baita. Hizpide dugun adibidean, Aran Atxak, UNESCO Etxearen zuzendariak, foroaren aurkezpena egiten du. Bertan, euskara, gaztelania eta ingelesa tartekatzen ditu. Foroaren aurkezleak euskaraz egiten du ongiatorria; ondoren, euskaraz eta ingelesez ari da: euskaraz esaten duena, gero ingelesez errepikatzen du, alegia, hizkuntza gutxituak biziberritzeko estrategia komunak bilatzeko bilgune izango dela foroa.

(...) egun on / (...) eta hizkuntza guztiak guztion altxorra dira / biziberritu eta normalizatu egin nahi dugu hizkuntzen egoera / eta horretarako estrategia komunak ezarri nahi ditugu / horretarako elkartu gara hemen / sektore publiko eta pribatuak / lankidetzan aurrera egiteko / erakunde sozialak ikerketa eta kultur eragileak eta gobernu erakundeak / asko dugu egiteko eta asko dugu Europako eraikitzen- eraikuntzari ekarpen- ekarpenak eg- egiteko / izan ere hemen ordezkatu

¹⁷ Sarean: <https://www.youtube.com/watch?v=OVK2kxP8SzA>

dagoen aniztasuna aberastasuna da Europarentzat / eta hori aldarrikatzea ere g- geure lana da / (...)
this forum brings together partners organizations and specialists from civil society on a european
level / as well as organizations from the world of research and culture and government bodies to
reflect on and debate the different aspects of the development minoritized languages in Europe /
we are very satisfied that worldwide experts have accepted the invitation to participate in this
forum / researchers and experts from top european institutions / practitioners that work every day
to promote language diversity and minority languages politicians representatives of the civil society
and Unesco delegates / we all have gathered in this forum to discuss and most of all to identify
specific strategies that allow vulnerable languages to be revitalized and normalized /

Ekitaldia aurkezten ibili zen hizlariak ere foroa ospatu zen egun batean egiten duen
aurkezpenean aurrekoaren antzeko adibidea ikus dezakegu: aurkezleak euskara eta ingelesa
tartekatzen ditu, hain zuzen ere, euskaraz hasten da, ingelesez euskaraz esandakoa
laburbiltzen du, eta ondoren informazio berria ematen du ingelesez; azkenik, eskerrak ematen
ditu ingelesez eta euskaraz:

Espero dut hemen egun hauetan egingo den lanak esan bezela aurrera egiteko balioko duela izan ere
/ programa honetan ikusiko dugu batetik eragileei dagokienez hizkuntza politikan beti aldarrikatzen
dena // herri aginteak / beraz e: hizkuntzak politikan planifikatzeko erabakiak har ditzaketanak /
adituak / eta gizarte eragileak / eta egunero hizkuntza politika horretan ez bakarrik goikoek
erabakitakoa aplikatu behar dutenak baizik eta behetik gora hori sustatu behar dutenak
proposamenak egin behar dituztenak / eta hizkuntza politikan beti aldarrikatzen den hori / goitik
beherakoa eta behetik gorakoa / horren uste dut ispilu zoragarria dela gaur hemen bildutako multzo
haundi hau // I welcome all of the experts practitioners come from other parts of Europe / I was
saying in euskera that I think that this is a wonderful forum a: to practice and to a: share the
knowledge / the worries we all have / around education / around use of the language by youth / we
all know that minoritized languages in Europe are in a very different situation / as regard as a:
officialization / as regard as protection by a: governmental bodies / but at the same time we all
share more or less the same worries / and more or less a: we share the same problems / I really hope
that these three days will be a wonderful opportunity and forum to share to learn from each other /
and a: to have a Europe a little bit more / pushing towards a: the use protection of the minoritized
languages a: to strengthen all the effort made here and there to protect each of us our own language
/ so a: thank you everybody for your participation for your contribution and I really hope that this will
not be a forum that will last just three days but will be an opportunity to organize a net that will go
and last long after the finishing of this forum / eskerrik asko eta ongi etorri guztioi bihotzez
Donostiara /

3. eranskinean azaltzen diren kartelen kasuan, *Summer in the USA* eta *Kids & Us*
karteletan, hain zuzen ere, non ingelesa atzerrian ala akademia batean ikasteko informazioa
azaltzen den, informazio gehiena errepikatu egiten da hizkuntza ezberdinetan, baita hirugarren
kartelean ere, *Surfing Zumaia*, Zumaian uretako kirol ezberdinak praktikatzeko aukera azaltzen
den horretan ere.

- Beste hizkuntzan informazioa laburbiltzea

El bertsolarismo y el rock de la mano Alberto Irazu kazetariari Euskadi Irratian egindako elkarrizketa elebiduna da. Elkarrizketatzaileak gaztelaniaz egiten du eta Alberto Irazuk euskaraz erantzun. Hasieran, egingo duten hizkuntzen kudeaketaren berri ematen dute: elkarrizketatzaileak esaten du Irazuk euskaraz erantzungo dituela galderak eta erantzunen sintesi bat egingo duela berak gaztelaniaz. Erantzun bakoitzaren amaieran elkarrizketatzaileak Albertok esaten duena gaztelaniaz laburbiltzen du.

Elkarrizketatzaileak euskal kulturarekin – batez ere bertsolaritzarekin- zerikusia duten euskarazko termino asko sartzen ditu gaztelaniazko diskurtsoan, beltzez adierazi direnak ondoren emango ditugun adibideetan: “de **Negu Gorriak**; “campeonato de **bertsolaris**; los **bertsos** eran; aquella **txapela** la ganó; el **bertsolarismo**; un **saio**; como **gaijartzaile**; relacionado con el **baserri**, el caserío; en aquella época, el **euskaldun-fededun**, ese binomio...; el mundo que proviene del **baserri**; en los **bertsosaioz**...; era más por su **euskara**; empiezan las **bertso eskolaz**; en un **gaztetxe**; de lo costoso que es ser **euskaldun**; a todo lo que era la **euskal kultura o la kultura euskaldun**; experiencias como **Gu eta Gutarrak**; la época de los sesenta, la del **txistu y el tamboril**”.

- Ahozko/ idatzizko alternantzia

Kongresuen kasuan, hizkuntza alternantzia ahoz egiten da batik bat. Hala ere, bai CCERBAL kongresuan, baita Iker gazteko aurkezpenean ere, hizlariak hizkuntza batean ari direla, PPTa beste hizkuntza batean dago, hain zuzen ere, CCERBAL kongresuan hizlari batek ingelesez hitz egiten duen bitartean, PPTa frantsesez dago, eta alderantziz; “Bizitza eta karrera ikerkuntzan: Nire esperientzia” Arkaitz Carracedo CIC BioGUNEko Onkologia Molekularra ikerketa taldeko buruak hitzaldi nagusietako bat ematen du 2017ko Iker gazte kongresuan. Berak euskaraz egiten duen bitartean, PPTa ingelesez idatzita dago: *A career in research: Pitfalls, drawbacks and perspectives*.

Aurkeztu ditugu hizkuntza alternantzia gertatzen den ahozko azalpenak, eta ikusi dugu gizartean egiten den praktika dela. Jendaurreko ahozko azalpen formal baten barruan hizkuntza bat baino gehiago konbinatzea gizartean hedatzen ari den hizkuntza praktika da.

4. Jendaurreko ahozko azalpenaren didaktika

Ahozko azalpenaren didaktikak helburu bikoitza du: hizkuntzazkoa alde batetik, ahozko azalpena ekoizteko ezaugarri linguistikoez jabetu behar delako ikaslea, eta zeharkakoa bestea, ahozko azalpenaren eduki erreferentzialaz, hau da, ahoz transmititzen den gai tematikoaz jabetzea ere bai (García-Azkoaga, 2007).

Kapitulu honen 1. atalean ahozkoaren irakaskuntzak dituen ezaugarriak eta zailtasunak aipatu ditugu, hain zuzen ere didaktikarako hainbat erronka irudika daitezke bertan: tradizio falta, deskribapen linguistiko eskasia, lanketarako zailtasunak, transkribaketak eta material audioa erabili beharra, eta abar.

Atal honetan DBH 4. mailan “Euskara eta literatura, eta gaztelania eta literatura” eta “Atzerriko lehen hizkuntza (ingelese)” ikasgaietan ahozko azalpenaren lanketarako ebaluazio-irizpide eta lorpen adierazleen inguruan arituko gara. DBHko bigarren zikloko azken urtean zentratuko gara, urte horretako ikasleek hartu baitzuten parte proiektu honetan.

Egun EAEn indarrean dauden curriculum dekretuetan zentratuko gara, hain zuzen ere, 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (EHAA, 2016-01-15) eta 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea.

4.1. Euskal curriculum dekretuak ahozko azalpenaren lanketari buruz zehazten duena

DBH 4. mailan ahozko azalpena ikasleek euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez ekoizten ikasi behar duten testu genero gisa aurkezten da. Euskaraz eta gaztelaniaz, hau da, EAEko bi hizkuntza ofizialetan, ingeleserako baino hizkuntza konpetentzia-maila altuagoa ezartzen da.

Euskara eta gaztelania ikasgaietan, testua aldeztatik aurretik planifikatzearen beharraz hitz egiten da. Testu horiek konplexutasun-maila jakin batekoak izango dira, “eraginkorrak”, “argiak” eta “egituratuak”, hain zuzen ere. Ingelesez, aldiz, testu laburrez eta hizkuntza arruntekoek hitz egiten da. Ikus daiteke ebaluazio irizpide bezala balorazio lausoak ageri direla. Gai aldetik ere desberdintasun nabariak azaltzen dira: euskaraz eta gaztelaniaz gai mardulagoak agertzen dira, gizartea, politika edo kultura; ingelesez, aldiz, ikasleentzat ezagunagoak diren gaiak, eguneroko gaiak, interes pertsonalekoak edo akademikoak proposatzen dira. Komunean daukaten ezaugarrietako bat da hitzezko baliabideez gain, ez

hitzezkoak ere baliatu behar dituztela. Ahozko azalpena egiterakoan, hizlaria gidoi batean oinarritu daitekeela zehazten da euskara eta gaztelania ikasgaietarako; ingeles ikasgaian ikasleak aldez aurretik landutako gai bati buruz arituko direla aipatzen da.

236/2015 Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzaileak gehiago zehazten ditu orain aipatu ditugun ebaluazio-irizpide eta lorpen-adierazleak. Euskara eta gaztelania ikasgaietan, informazioa modu logikoan antolatzeari egiten zaio erreferentzia, baita testua modu egokian egituratzeko testu antolatzaileak erabiltzeari ere. Hartzailearengan ere jartzen da arreta, eta hura inplikatzeko, baita testuaren ulergarritasuna bermatzeko ere hizkuntza baliabideak erabiltzean, horren barruan, besteak beste, galdera erretorikoak eta birformulazioak. Hitzezkoak ez diren elementuak ere ekartzen dira, hain zuzen ere, doinua, keinua edo gorputzaren jarrera.

Ingelesari dagokionez, ahozko azalpena komunikazio egoeraren parametroen arabera planifikatzeari egiten zaio erreferentzia. Testua planifikatzeko ohar edo eskemaren erabilera ere aipatzen du, baita informazioa modu logikoan egituratzeko testu antolatzaileen erabilera ere. Irakasleak zein ebaluazio irizpide erabiliko dituen jakiteari garrantzitsua deritzo, baita informazio bilaketan autonomiaz aritzeari ere.

Curriculumean hizkuntzen arteko transferentziaren ideia ere nabarmentzen da. Gehienetan modu positiboan egiten zaio erreferentzia transferrari, baina batzuetan transfer okerra ere agertzen da. DBH 4. mailako edukien barruan, curriculum orientatzailean (305), adibidez, esaten da: "Hizkuntzen arteko kalko eta transferentzia okerrak identifikatzea eta zuzentzea".

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura eta atzerriko lehen hizkuntza ikasgaietarako, etapako helburuen artean hizkuntzaren sistemari buruz gogoeta egitea zehazten da eta hizkuntzarteko transferentzia helburutzat hartzea.

DBHrako ebaluazio-irizpide eta lorpen adierazleen artean ere honako hau agertzen da, atzerriko bigarren hizkuntzaren irakaskuntzari dagokionez: "Hizkuntza-alderdiei buruz eta testu-tipologiari buruz beste hizkuntzetan ikasitakoa erabiltzen du atzerriko hizkuntzaren ulermena eta idazmena hobetzeko" (388). Curriculum orientatzailean ere, atzerriko bigarren hizkuntzaren irakaskuntzari dagokionez, hizkuntzen arteko konparaketak egitea aipatzen du.

4.2. Jendaurreko ahozko azalpenaren alderdi irakasgarrien aukeraketa

Aurreko azpiatalean ikusi dugu ahozko aurkezpena irakasgai garrantzitsua dela Euskal Herriko Curriculumean. Hainbat ebaluazio-irizpide eta didaktikarako kontuan hartu beharreko ezaugarri aipatzen dira. Nolanahi ere, nahiko irizpide lausoak direla ikusi dugu.

Gure ikerketa bideratzeko, 2. kapituluuan aurkeztu dugu gure norabide teorikoa, ISD deiturikoa, eta bertan aurkeztu dugu Bronckartek (2004) proposatzen duen testuaren arkitektura eredua. Alegia, testuen azterketarako nahiz irakaskuntzarako argibide zehatza eta koherentea ematen digun eskema. Ikusmolde horren barruan, hain zuzen, Dolz eta Schneuwlyk (2006) ahozko aurkezpena irakasteko hiru mailatako eskema proposatzen dute: komunikazio egoera, azalpenaren planifikazioa eta testuratzeko mekanismoak. Ahozko azalpena objektu irakasgarri bihurtzeko, ahozko azalpenaren ezaugarriak izango dira irakasgaiak.

